EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**
*Plangintza eta Enplegu Sailburuordetza*
Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES**
*Viceconsejería de Planificación y Empleo*
Dirección de Servicios y Régimen Jurídico

# GASTU PUBLIKOA GIZARTE ZERBITZUETAN. 2011

Txostenaren egilea: Emaiker

Enplegu eta Gizarte Politikako Sailaren Estatistika Organoak berrikusia eta osatua

2013ko maiatzak 6

AURKIBIDEA


***I.- AZTERLANAREN aurkezpena*** ........ ***5***

***II.- Azterlanaren esparrua eta metodologia*** ........ ***9***

***III.- gizarte zerbitzuetako gastu publiko arrunta*** ........ ***13***

**1.- Gizarte-zerbitzuetako gastuaren ikuspegi orokorra** ........ **14**

**2.- Gastuaren xede edo helburua** ........ **26**

2.1 Adineko pertsonak ........ 27

2.2. Gaixotasunak, ezintasunak eta minusbaliotasunak dituzten pertsonak ........ 38

2.3. Familia, haurrak eta gazteak ........ 42

2.4. Gizarte-bazterketa ........ 46

2.5.- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta laguntzako lantalde teknikoak ........ 53

**3.- Finantziazio-iturriak** ........ **58**

3.1 Finantzazioaren egoera lurralde historikoetan ........ 62

3.2. Foru Aldundiak ........ 64

3.3. Udalak ........ 74

3.4 Eusko Jaurlaritza ........ 83

3.5. Autonomia-erkidegoez gaindiko erakundeak ........ 86

***IV.- UDALEN ARTEKO ALDEEN AZTERKETARA HURBILKETA*** ........ ***89***

**1. Desberdintasun orokorrak gizarte zerbitzuetako udal-gastuan** ........ **90**

**2. Udal-gastuari buruzko zenbait komentario osagarri sektore, programa eta zerbitzuen arabera** ........ **100**

2.1. Udalen arteko aldeak Adinekoentzako programetan ........ 100

2.2. Udalen arteko aldeak oinarrizko gizarte-zerbitzuetan ........ 104

2.3. Udalen arteko aldeak gizarte-bazterketaren aurkako programetan ........ 105

***V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA*** ........ ***109***

# I.- AZTERLANAREN AURKEZPENA

Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoari buruzko txostenak (Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak garatzen du urtero) zera du helburu: administrazio publikoek gizarte-zerbitzu eta -prestazioen esparruari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egiten duten gastua aztertzea. Hori horrela izanik, euskal gizarteak bere erakunde publikoen bidez egiten duen ahalegina mugatzeko aukera ematen du azterlanak, EAEko gizarte-zerbitzuen sistema propioari eusteko.

Gizarte-zerbitzuetan egiten den gastuaren ikuspegi antolatua eman nahi du lan honek. Xede hori finkatuta, administrazio publikoek sektorean eginiko ekarpena jorratzen dute azterlanean erabilitako aldagaiek, gastu-dimentsio hori bildu, ordenatu eta aztertzeko. Zifra historikoen jarraipena egin daiteke hurbilketa honen bidez, eta luzetarako azterketak landu daitezke.

Konprometitutako gastu arrunt garbia izan da gastuaren egoerara hurbiltzeko oinarria. Hau da kontzeptuaren definizioa: zerbitzuak mantentzeko guztizko gastuaren eta jarduerak eragindako diru-sarreren arteko aldea[1].

Azterlanak hiru ikuspegi hauek ditu ardatz: finantzarioa, sektoriala eta lurraldeari dagokiona.

Ikuspuntu finantzarioari erreparatuta, gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren finantziazio-iturriak aztertzen dira, sektorean esku hartzen duten administrazio publikoak bereiziz:

- ➔ Udalak[2].
- ➔ Hiru foru-aldundietako gizarte-ekintzako departamentuak.
- ➔ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.
- ➔ Beste erakunde publiko batzuk[3].

---

1 Erabateko bateragarritasunik ez baldin badago ere, gastu arrunt garbi konprometituaren kontzeptua administrazio publikoek erabilitako gastu arrunt garbiaren ia parekoa da.

2 Udal-gastuaren ikerketa txostenean egin da, gehigarri gisa. Hala ere, txostenaren estatistika eranskinetan EAEko udal bakoitzaren gastu publikoari buruzko informazio zehatza aurki daiteke.

3 Talde honetan biltzen dira Europako Gizarte Fondoak egiten dituen ekarpenak Eusko Jaurlaritzak sustatutako gizarteratze- eta laneratze-programetarako, aldundietako Gizarte Ekintzako Departamentuek beren balantze ekonomikoetan diru-sarreratzat hartzen dituzten Europako Gizarte Funtsak, eta Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistema (IMSERSOren baitako sistemak), mendekotasunerako diru-laguntzak finantzatzen dituena.

Gastua non egiten den aztertzen du, zehatz-mehatz, sektore-hurbilpenak. Alor horretan, kontingentzien arabera banatzen dira baliabideak, eta programa, zerbitzu eta prestazioak baliatzen dira haietan esku hartzeko.

Honako hau da azterlanean bilduriko kontingentzien tipologia:

- ➔ Adinekoak.
- ➔ Ezintasunak dituzten pertsonak.
- ➔ Familia, haurrak eta gazteak.
- ➔ Emakumea.
- ➔ Gizarte-bazterketa.
- ➔ Droga-mendetasunak.
- ➔ Biztanleria.

Gastuak prestazio motaren arabera antolatzea da gizarte-zerbitzuetan egiten den gastua aztertzeko beste bide finalista egoki bat. Azterketa-ikuspegi horretan, kategoria hauek ezartzen ditu azterlanak:

- ➔ Banakako prestazio ekonomikoak. Gizarte-zerbitzuek kudeaturiko laguntza ekonomiko guztiak, aldizkakoak nahiz puntualak, barne hartzen dira epigrafe honetan, edozein ezaugarri dutela ere, eskubidekoak nahiz grazia bidezkoak izan. Kanpoan geratzen dira, dena den, derrigorrean gizarte-zerbitzu jakin baten testuinguruan erabili beharrekoak direnak.

- ➔ Egoitza- eta laguntza-zerbitzuak. Alojamendu-beharrizanak betetzeko helburua duten zerbitzuei atxikitako gastu-partida guztiak biltzen ditu kategoria honek, familia-harrerari dagozkionak barne.

- ➔ Zerbitzu pertsonalak. Administrazio publikoek egoitza-zerbitzuez bestelako zerbitzuak finantzatzeko zuzenean edo zeharka bideratzen dituzten gastuak jasota daude atalean. Horien artean daude, batik bat, eguneko zentroak, okupazio- eta enplegu-zentroak, haurtzaindegiak, jantokiak, zahar-etxeak, errehabilitazio- eta diagnosi-zentroak, eta etxeko laguntza-zerbitzua.

- ➔ Beste gastu batzuk. Honako kontzeptu hauek osatzen dute kapitulua: sustapen-, prebentzio- eta gizarteratze-jarduerak, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, aurreko epigrafeetan bildu gabeko elkarte-mugimendurako diru-laguntzak, eta gastu orokor eta zuzendaritzakoak.

Azkenik, gastuaren banaketa geografikoa aztertu da gastuaren lurralde-ikuspegian, gizarte-zerbitzuen sistemak artatutako pertsonen bizileku-udalerria kontuan izanda.

Azterlanaren berariazko helburuetako bat da zehaztasunez aztertzea gastuaren finantza-, sektore- eta lurralde-ikuspegiak, eta sistemaren barruan egon litezkeen diferentziak eta desorekak adieraztea.

Alde horretatik, komeni da aldez aurretik onartzea diferentzia eta desoreka horiek sektorearen errealitaterako hurbilketa partziala baino ez dutela eskaintzen, alderdi monetarioan soilik baitaude neurtuta. Agerikoa da, ildo horretan, erakundeek balia ditzaketen askotariko estrategiei erreparatuta, oso emaitza desberdinak lor daitezkeela finantza-baliabide berberekin sektorearen output adierazleetan, hau da, biztanleriaren bizi-baldintzen hobekuntzari dagozkion alderdietan. Bestalde, zaila da errealitate horretara hurbiltzea, ez baita erraza modu kuantitatibo batean neurtzea “gizarte-output” hori. Zaila da, era berean, emaitza-aldagai horien eta inbertituriko bitartekoen arteko erlazioa zehaztea, zer etekin lortzen diren argitzeko.

Berariaz nabarmendu behar da, horrenbestez, administrazio publikoek garaturiko ahaleginaren adierazlea baino ez dela gastua. Hala ere, oso adierazle adierazkorra da gerora zehatz-mehatz ikertu beharko liratekeen arazoak hautemateko. Aldagai gehigarriak gaineratuta aztertu behar lirateke arazoak, nahiz eta aldagai horiek zeharka baino ez diren jasotzen azterlan edo txosten honetan.

Txosten analitikoarekin batera, estatistika-eranskin batzuk dakartza lan honek, lurralde historikoaren, finantziazio-iturrien eta gastu-xedearen arabera ordenatuak, eta sistemak artaturiko pertsonen bizileku-udalerriei erreparatu ondoren. Estatistika-informazio horretan oinarritzen da txosten hau, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri guzti-guztiek eginiko gastu publikoaren informazio banakatua ematen duen aldetik.

# II.- AZTERLANAREN ESPARRUA ETA METODOLOGIA

Txosten honek 2011. urteko ekitaldi ekonomikoari dagozkion emaitzak aztertzen ditu, eta gizarte-zerbitzuen esparruko gastu arrunt garbi konprometituei dagozkien zifrak baliatu dira azterlan hori egiteko.

Administrazio-irizpideek mugatzen dute gizarte-zerbitzuen alorra, eta zehaztugabetasun-mailaren bat eragin dezakete zenbait kasutan.

Muga horiek hartzen ditu kontuan txosten honek gizarte-zerbitzuen definizioa emateko; hala, funtsean, foru-aldundien gizarte-zerbitzuetako departamentuek esku hartzen duten jardunen multzoa direla esango dugu lan honetan. Zerbitzu propioen arloko zuzeneko esku-hartzearengatik zein udalen jardueraren finantziaziorako egiten duten ekarpenarengatik, udalak dira gizarte-zerbitzuak emateko euskal sistemaren ardatz nagusia. Lurraldeen artean aldeak badaude ere, programa, zerbitzu eta prestazioen sorta erkide edo komun bat finantzatzen dute foru-aldundiek, eta gizarte-zerbitzuen antzeko egitura baten aurrean jartzen gaitu horrek.

Zerbitzu horiek aztertzen ditu txosten honek, baina, horiez gain, historian gizarte-zerbitzuen eta -prestazioen euskal sisteman izan diren jarduerak aztertzen dira, eta horien artean daude, besteak beste, euskal sistemak diru-sarreren bermerako ezarri dituen programak, gaur egun Lanbide erakundeak kudeatutakoak (DBE, EPO, etc.).

Azterlan honetan aurkezten diren emaitzak behar bezala irakurriko badira, gastuak antolatzeko baliatu diren irizpideak adierazi behar dira, aurreko urteetan erabili diren berberak. Hauek izan dira irizpideak:

- ➔ Programaren edo prestazioaren hartzailearen bizilekua kontuan izanda egozten zaizkie udalerriei udalaz gaindiko erakundeek eginiko gastuak; betiere, hori logikoa bada eta horri buruz kontuan hartzeko moduko informazioa badago.

- ➔ Egoitza-zerbitzuen kasu zehatzean, zentroan sartu aurreko bizilekuari dagokion udalerriari kargatzen zaio gastua.

- ➔ Gastua kontingentzien arabera banatzen da, eta, horien barruan, gastuaren azken xedearen araberako programa eta zerbitzuen arabera, beste edozein kontsiderazio alde batera utzita.

- Ildo horretan, pertsona fisikoei egoitza-zentro batean sartzeko emandako laguntzek, esaterako, tratamendu bera dute zentro horiei zuzenean ematen zaizkien diru-laguntzekin alderatuta edo egoitzen mantentze-lanen ondoriozko kostuak finantzatzeko zentro horiekin ezartzen diren hitzarmenekin alderatuta. Diru-kopuru guztiak berdin egozten zaizkio egoitza-zentroen epigrafeari.

Euskal gizarte-zerbitzuak sistema ia itxitzat hartzen dira azterlan honetan, arloan eskudun diren euskal erakunde publikoek soil-soilik finantzaturiko sistematzat. Dena den, zenbait egoera berezi ere hartzen dira kontuan. Horrela, azterketan kontuan hartu dira Europako Gizarte Funtsei dagozkien zenbatekoak, baldin eta berariaz zuzendu badira gizarteratzeko eta laneratzeko jardunak finantzatzeko, eta IMSERSOren mendean dagoen Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistemari dagozkion zenbatekoak, mendetasunerako laguntzak finantzatzera bideratuak.

Ez dira beren horretan edo modu autonomoan kontuan hartzen beste erakunde batzuetako baliabide ekonomikoak —hala nola Lan eta Gizarte Gaietako Ministeriokoak edo Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalekoak—, Euskadin administratzen dituen erakunde publikoaren baliabide propioekin parekatu baitira.

Aitzitik, euskal sistemaren barruan gertatzen diren transferentzia finalistak finantziazioaren erakunde arduradunari esleitzen zaizkio beti, eta azkenik gastua egiten edo kudeatzen duenari. Euskal Autonomia Erkidegoko sistemaren baitan egiten diren esleipen horien artean, nabarmentzekoak dira Eusko Jaurlaritzak udalei egindakoak Gizarte Larrialdietarako Laguntzak banatzeko, eta aldundiek udalei egindakoak egoitza-zerbitzuak, etxeko laguntza, eguneko zentroak eta hainbat sektoretan egiten diren sustapeneko eta promozioko programak finantzatzeko.

# III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO GASTU PUBLIKO ARRUNTA

## 1.- Gizarte-zerbitzuetako gastuaren ikuspegi orokorra

EAEko herri-administrazioek 1.615.241.127 euro erabili zituzten Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen sistema finantzatzeko. Gastu arrunta % 3,3 igo da, beraz, 2010. urtearekiko. Azken hogei urteetako bigarren igoerarik apalena da, eta oso urrun dago 2000. urtearen ondorengo lehen urteetan izan ziren gorakadetatik, % 14,4koak izan baitziren, batez beste. Igoerak apaltzeko joerari jarraitzen dio; izan ere, 2009tik 2010erako igoera % 5,2koa izan zen.

Euskadin, babes-sistemari eusteko kostua, 2011. urtean, 739,37 eurokoa izan da, urtean eta biztanleko. Datuak familia-unitateetara ekarriz gero, ikusten da 2.052,40 euro jarri direla batez beste urtean familia bakoitzeko[4].

Agerikoa da gizarte-zerbitzuen sistema publikoak zer-nolako dimentsio handia duen. Barne-datuei erreparatuz gero, ikusten da gizarte-zerbitzuetan herri-administrazioek egindako gastua, 2011. urtean, gizarte-zerbitzuetan egindako gastu osoaren % 72,4 izan zela, sektore pribatuaren ekarpena aintzat hartuz gero. Administrazioek gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastua Barne Produktu Gordinaren ehuneko bitik gorakoa da; zehazki, % ,2,4koa izan da 2011. urtean, 2010. urteko ehunekoaren ildoari eutsiz.

Azterketa ikuspegi kualitatibora lerratuz gero, hau da, sektoreak herri-administrazioen jarduera osoan duen lekua aztertzeko, egokia da beste sektore batzuetako gastuarekin konparatzea gizarte-zerbitzuetan egiten den gastua, eta, berariaz, gizarte-zerbitzuen antzeko helburua izan dezaketen sektoreetan egiten den gastuarekin. Agerikoa da, horrenbestez, gizarte-zerbitzuetako sektore publikoak tamaina eta garrantzi handia duela. Alde horretatik, gizarte-zerbitzuetan egindako gastua, 2009an, hezkuntzan egindako gastu publiko osoaren % 81,4aren parekoa izan zen, eta osasunean egindako gastu publiko osoaren % 36,4aren parekoa.

**Gastu publikoa EAEko gizarte-politikaren arloetan (mila €). 2009/2010**

| | Gastua, guztira | Gastua gizarte-zerbitzuetan | Gizarte-zerbitzuetan egindako gastuaren % |
|---|---|---|---|
| Osasun-arloko gastu publikoa 2009an (1) | 4.080.774 | 1.485.435 | 36,4 |
| Hezkuntzan egindako gastu publikoa 2009an (2) | 1.825.882 | 1.485.435 | 81,4 |
| Gizarte Babesa 2010ean | 15.970.602 | 1.563.028 | 9,8 |

(1) Osasun Kontua 2009. Eustat eta Osasun Saila
(2) Irakaskuntza publikoaren gastuaren eta finantziazioaren estatistika. 2007. Eustat

4 EUSTAT erakundearen 2006ko Demografia Inkestak familia-unitateei buruz ematen dituen datuak baliatu dira, hura baita eskuragarri dagoen azkena. Aintzat hartu behar da familia-unitateen kopurua nabarmen igo dela orduz geroztik, harik eta 850.000 ingurukoa izateraino. Hori horrela, familia-unitateko per capita gastua 1.900 euro ingurukoa da urtean.

[3] Gizarte Babesaren Kontua. (1995-2008). EUSTAT

Gizarte-zerbitzuetan egindako gastua, 2010. urtean, gizarte-babesean egindako gastuaren % 9,8 izan zen. Nabarmendu behar da, dena den, zifra horiek Europaren testuinguru orokorrean kokatu behar direla, eta maila horretan argi dago Euskadi oraindik Europako herrialdeen azpitik dagoela gizarte-babeseko gastuaren arloari dagokionez. Gauzak horrela, 2010eko gizarte-babeseko gure maila BPGarekiko % 24,5 zen, eta Europar Batasuna osatzen duten Europako herrialdeetan, aldiz, % 29,4. Europa ekialdeko herrialdeek soilik dute, BPGarekiko, EAEkoa baino ehuneko apalagoa gizarte-gastuaren alorrean[5].

**Gizarte-babesaren gastu-adierazleak Europan 2010**

| | Gizarte-babeseko gastua | | | | Adinekoentzako prestazioetako gastua | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira (milioi €) | Per capita gastua | Per capita gastua PB erosketak | BPGaren % | Gastua, guztira % | Gastua biztanleko PBE | Eur27=100 |
| **EB27** | **3.605.679** | **7.185** | **7.185** | **29,4** | 37,6 | **15.483** | **100** |
| Alemania | 765.718 | 9.363 | 8.894 | 30,7 | 31,7 | 13.671 | 88 |
| Austria | 86.922 | 10.360 | 9.352 | 30,4 | 41,7 | 22.157 | 143 |
| Belgika | 106.492 | 9.774 | 8.697 | 29,9 | 30,6 | 15.484 | 100 |
| Bulgaria | 6.510 | 864 | 1.936 | 18,1 | 45,2 | 4.911 | 32 |
| Zipre | 3.768 | 4.543 | 5.099 | 21,6 | 39,2 | 15.857 | 102 |
| Danimarka | 78.368 | 14.126 | 10.292 | 33,3 | 36,7 | 22.821 | 147 |
| Eslovakia | 12.238 | 2.254 | 3.335 | 18,6 | 36,6 | 9.869 | 64 |
| Eslovenia | 8.830 | 4.310 | 5.168 | 24,8 | 38,5 | 12.047 | 78 |
| Espainia | 269.907 | 5.858 | 6.284 | 25,7 | 32,7 | 12.136 | 78 |
| Estonia | 2.590 | 1.932 | 2.838 | 18,1 | 43,1 | 7.183 | 46 |
| Finlandia | 54.645 | 10.189 | 8.542 | 30,6 | 35,0 | 17.311 | 112 |
| Frantzia | 654.239 | 10.085 | 8.891 | 33,8 | 36,9 | 19.684 | 127 |
| Grezia | 64.658 | 5.714 | 6.224 | 29,1 | 40,9 | 13.353 | 86 |
| Holanda | 188.731 | 11.359 | 10.405 | 32,1 | 33,1 | 22.263 | 144 |
| Hungaria | 22.288 | 2.229 | 3.628 | 23,1 | 39,7 | 8.647 | 56 |
| Irlanda | 46.307 | 10.350 | 9.248 | 29,6 | 18,7 | 14.962 | 97 |
| Islandia | 2.329 | 7.324 | 6.669 | 24,5 | 20,9 | 11.473 | 74 |
| Italia | 463.992 | 7.671 | 7.337 | 29,9 | 49,2 | 17.815 | 115 |
| Letonia | 3.219 | 1.438 | 2.242 | 17,8 | 51,1 | 6.651 | 43 |
| Lituania | 5.269 | 1.603 | 2.684 | 19,1 | 39,2 | 6.398 | 41 |
| Luxenburgo | 9.060 | 17.871 | 14.896 | 22,7 | 26,9 | 28.830 | 186 |
| Malta | 1.234 | 2.967 | 4.054 | 19,8 | 45,1 | 12.061 | 78 |
| Norvegia | 80.834 | 16.533 | 11.321 | 25,6 | 29,9 | 22.583 | 146 |
| Polonia | 67.197 | 1.760 | 2.899 | 18,9 | 49,1 | 10.506 | 68 |
| Portugal | 46.592 | 4.380 | 5.275 | 27,0 | 42,0 | 12.029 | 78 |
| Erresuma Batua | 478.281 | 7.682 | 7.676 | 28,0 | 40,6 | 18.827 | 122 |
| Txekiar Errepublika | 30.275 | 2.878 | 3.940 | 20,1 | 42,0 | 10.758 | 69 |
| Errumania | 21.810 | 1.017 | 1.998 | 17,6 | 45,7 | 6.129 | 40 |
| Suedia | 106.539 | 11.360 | 9.240 | 30,4 | 39,6 | 20.044 | 129 |
| Suitza | 110.650 | 14.141 | 9.905 | 26,6 | 40,3 | 23.668 | 153 |
| **EAE (2010)** | **15.971** | **7.185** | **7.889** | **24,5** | 37,6 | **15.343** | **99** |

(1) Erosteko Ahalmenaren Parekotasuna
Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren Kontua eta Eurostat

[5] Zahartzaroagatiko prestazioei erreparatuz gero, hobea da EAEren egoera, 27 herrialdetako Europar Batasunaren batez bestekora iristen baita ia-ia.

Aurreko ekitaldietan bezala, baliatutako baliabide ekonomikoen bi heren (% 65,9) honako bi kontingentzia mota hauetara bideratu ziren 2011. urtean: adineko pertsonentzat izan zen egindako gastu osoaren % 33,8, eta gizarte-bazterketa prebenitzeko erabili zen gastuaren % 32,1. Gastu-ehunekotan, haien atzetik joan ziren ezintasunak dituzten pertsonak (% 17) eta familia, haurtzaro eta gazteriako sektorea (% 11,9).

**Gizarte-zerbitzuetako gastu publiko arruntaren xedea sektorearen arabera 2011n**

| | Gastua, guztira | % Bertikalak |
|---|---|---|
| Adineko pertsonak | 546.055.311 | 33,8 |
| Ezintasunak dituzten pertsonak | 274.251.148 | 17,0 |
| Familia, haurrak eta gazteak | 192.832.962 | 11,9 |
| Emakumea | 19.467.899 | 1,2 |
| Gizarte-bazterketa | 519.023.516 | 32,1 |
| Droga-mendetasunak | 10.641.543 | 0,7 |
| Biztanleria osoa | 52.968.748 | 3,3 |
| Guztira | 1.615.241.127 | 100,0 |

Datu horiek adierazten dute gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren barne-banaketak hiru ardatz hauek dituela, eta finkatzen ari dela barne-banaketa hori:

➔ Gastua finkatzea adineko pertsonen eta gizarte-bazterketaren sektoreetan.

Bi sektore horiek gizarte-zerbitzuetan egindako gastu publikoaren % 65,9 metatzen zuten 2011n. Adinekoen sektorean egindako gastua da handiena oraindik ere.

➔ Ezintasunak dituzten pertsonen sektorea gizarte zerbitzuen gastu osoaren % 20tik behera gelditu da, gero eta gastu handiagoa egiten baita adinduen eta gizarte-bazterketaren sektoreetan.

Hala ere, 2010 eta 2011 urteen bitartean, sektore horretan handitu da gehien gastu arrunta: % 5,8; izan ere, igoera % 3,8 izan da adineko pertsonen sektorean, eta % 2,7koa gizarte-bazterketaren sektorean.

➔ Familiaren, haurren eta gazteriaren sektoreak indartu egin du laugarren postua gizarte-zerbitzuetan egindako gastuaren banaketan.

**Gastu-ehunekoak sektoreka. 2011**




Gizarte-zerbitzuetan egindako gastua zer prestaziotan banatu den aztertzen badugu, ikusten da diru gehien behar izan duten prestazioak prestazio ekonomikoak (% 40,1) eta egoitza-zerbitzuak (% 29,2) izan direla. Bi interbentzio-modalitate horretan gastatu da gizarte-zerbitzuetan egindako gastu osoaren % 69,3. Zerbitzu pertsonaletako gastuak guztizko gastuaren % 13,5 biltzen du, eta gainerako kontu-sailek gastu guztiaren % 17,2.

Prestazio ekonomikoetan egindako gastua da handiena, eta horren arrazoia da finkatu egin direla mendekotasun-egoeran dauden pertsonei emandako prestazioak eta diru-sarrerak bermatzeko politikari lotutako prestazioak. Prestazio horien artean, leku nabarmen handia dute egoitza-zerbitzuek, handitu egin baita adinekoentzako egoitza-zerbitzuetan egin den gastua.

**Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren izaera 2011**

| | Gastua, guztira | % bertikalak | Per capita gastua |
|---|---|---|---|
| Prestazio ekonomikoak | 648.135.403 | 40,1 | 296,68 |
| Egoitza-zerbitzuak | 471.244.282 | 29,2 | 215,71 |
| Zerbitzu pertsonalak | 218.378.704 | 13,5 | 99,96 |
| Beste zenbait gastu | 277.482.738 | 17,2 | 127,02 |
| Guztira | 1.615.241.127 | 100,0 | 739,37 |

**Gastu-ehunekoak gastu motaren arabera. 2011**




Datuak lurraldez lurralde aztertuta, ikusten da Bizkaian egin dela gizarte-zerbitzuetan egindako gastu osoaren % 53,3. Gipuzkoan egin da gastu osoaren, % 29,4, eta, azkenik, Araban egin da gastu osoaren gainerako % 17,3a.

**Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren bilakaera, lurraldeka. 2009-2011**

| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira (mila €) | 2009 | 263.832 | 793.330 | 428.273 | 1.485.435 |
| | 2010 | 272.043 | 836.568 | 454.418 | 1.563.028 |
| | 2011 | 278.862 | 861.328 | 475.052 | 1.615.241 |
| Per capita gastua | 2009 | 840,71 | 688,26 | 606,88 | 681,91 |
| | 2010 | 857,23 | 725,10 | 642,50 | 717,53 |
| | 2011 | 873,55 | 745,24 | 669,46 | 739,37 |
| % horizontalak | 2009 | 17,8 | 53,4 | 28,8 | 100,0 |
| | 2010 | 17,4 | 53,5 | 29,1 | 100,0 |
| | 2011 | 17,3 | 53,3 | 29,4 | 100,0 |

Per capita gastua adierazle egokiagoa da lurraldeen arteko diferentzien adierazlea baino, eta, hari erreparatuta, ikusten da alde nabarmenak daudela Arabaren eta beste bi lurralde historikoen artean. Hala, Arabako per capita gastu publikoa urtean 873,55 eurokoa da, Bizkaian, berriz, 745,24 eurokoa da, eta Gipuzkoan, 669,46 eurokoa. Araban, per capita gastua Bizkaian baino 1,2 aldiz handiagoa da, eta Gipuzkoan baino 1,3 aldiz handiagoa.

Diferentzia horiek, hala ere, txikitzen ari dira. Horrela, 2010-2011 aldian, Bizkaian eta Gipuzkoan izandakoa baino txikiagoa izan zen Araban per capita gastuaren igoera. Izan ere, biztanle bakoitzeko gastua % 1,9 igo da 2010 eta 2011 urteen bitartean Araban, baina igoera hori % 2,8koa izan da Bizkaian

eta % 4,2koa Gipuzkoan. Ildo horri berari jarraitu eta 2009-2011 biurtekoari erreparatzen badiogu, ikusten da per capita gastua Araban % 3,9 igo zen bitartean, parametro hori % 8,3 igo zela Bizkaian eta % 10,3 Gipuzkoan.

**Gizarte-zerbitzuetako per capita gastuaren lurralde-banaketa. 2011**




Gastu-mailari eta gastuaren nolakotasunari begiratuta, alde nabarmenak daude lurralde historikoen artean. Araban per capita edo biztanleko gastu handiagoa egiten dela da alde edo diferentzia handiena, baina bada diferentzia nabarmenik Bizkaia eta Gipuzkoaren artean ere, gizarte-zerbitzuen garapen maila antzekoa duten arren.

Datu horiek egiaztatzen digute, beraz, biztanleko edo per capita gastuari erreparatua, herri-administrazioen gastua nabarmen handiagoa dela Araban gainerako bi lurralde historikoetan baino, adineko pertsonak babesteko gastuan (330,27 euro pertsonako Araban, 264,60 euro Gipuzkoan eta 218,78 euro Bizkaian); ezintasunak dituzten pertsonekin egindako gastuan (155,88 euro Araban, 131,61 euro Gipuzkoan eta 113,43 Bizkaian) eta familia, haurrak eta gazteriari bideratutako gastuan (105,69 euro Araban, eta 94,20 eta 79,81 euro, hurrenez hurren, Gipuzkoan eta Bizkaian). Datuek erakusten digute Gipuzkoa beste bi probintzien arteko posizioan geratzen dela, eta Bizkaia dela gastu-kopuruaren zenbatekoetan azkena geratzen den probintzia.

Gastu-tamaina txikieneko sektoreetan gerturatu egiten dira lurraldeen zifrak, baina sektore bakar batean egin du EAEko beste probintzia batek Arabak baino gastu handiagoa biztanle bakoitzeko. Gizarte-bazterketarena da sektore hori; izan ere, per capita gastua 295,92 eurokoa izan da Bizkaian, 238,86 eurokoa Araban eta 141,99 eurokoa Gipuzkoan.

Gastuaren nolakotasun edo helburu horiek gastuaren barne-banaketa diferenteak eragiten dituzte lurraldetik lurraldera. Hori horrela, ikusten da adineko pertsonen sektoreak eragiten duela gastu handiena Araban eta Gipuzkoan (% 37,8 eta % 39,5, hurrenez hurren), eta ezintasunak dituzten pertsonen sektorearen eta familia, haurtzaro eta gazteriako sektorearen baturak gastu-ehuneko apalagoa osatzen dutela gizarte-bazterketaren sektorean egiten den gastuarena baino (% 29,9 eta % 27,3 Araban; eta % 33,8 eta % 21,2 Gipuzkoan). Bizkaian, aldiz, gizarte-bazterketaren sektorean egiten da gasturik handiena, probintzia horretako gastu osoaren % 39,7, eta datu hori adineko pertsonengan egindako gastuarena baino handiagoa da, gastuaren % 29,4 egiten baita azken sektore horretan.

**Gastuaren sektore-banaketa lurralde historikoetan. 2011**

| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
|---|---|---|---|---|---|
| Per capita gastua | Adineko pertsonak | 330,27 | 218,78 | 264,60 | 249,96 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 155,88 | 113,43 | 131,61 | 125,54 |
| | Familia, haurrak | 105,69 | 79,81 | 94,20 | 88,27 |
| | Emakumea | 9,19 | 10,97 | 5,44 | 8,91 |
| | Gizarte-bazterketa | 238,86 | 295,92 | 141,99 | 237,58 |
| | Droga-mendetasunak | 4,01 | 5,18 | 4,75 | 4,87 |
| | Biztanleria osoa | 29,65 | 21,14 | 26,87 | 24,25 |
| | Guztira | 873,55 | 745,24 | 669,46 | 739,37 |
| % bertikalak | Adineko pertsonak | 37,8 | 29,4 | 39,5 | 33,8 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 17,8 | 15,2 | 19,7 | 17,0 |
| | Familia, haurrak | 12,1 | 10,7 | 14,1 | 11,9 |
| | Emakumea | 1,1 | 1,5 | 0,8 | 1,2 |
| | Gizarte-bazterketa | 27,3 | 39,7 | 21,2 | 32,1 |
| | Droga-mendetasunak | 0,5 | 0,7 | 0,7 | 0,7 |
| | Biztanleria osoa | 3,4 | 2,8 | 4,0 | 3,3 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

**Per capita edo biztanleko gastuaren ehuneko-banaketa EAEko lurralde historikoetan. 2011**



Lurralde edo probintzien arteko diferentziak ikusten dira, era berean, gastua nola banatzen den aztertuta, hau da, gastuaren izaerari edo nolakotasunari erreparatuta. Ezberdintasun edo diferentzia handiena da zer garrantzi edo pisu proportzional ezberdina duten probintziatik probintziara prestazio ekonomikoek eta zentzu hertsian gizarte-zerbitzu diren prestazioek (egoitza-zerbitzuek eta zerbitzu pertsonalek). Hori horrela, prestazio ekonomikoetan egindako gastu-ehunekoa nabarmentzen da Bizkaian (gastu osoaren % 45,6 egiten da prestazio horietan Bizkaian, % 33,2 Gipuzkoan eta % 35,1 Araban). Gipuzkoa eta Arabak, aldiz, gastuaren banaketa orekatuagoa erakusten dute, gastuen helburuei erreparatuta. Azken bi herrialde historiko horietan, ehuneko handiagoak gastatu dira egoitza-zerbitzuetan (% 34,4 eta % 32,1, hurrenez hurren, Gipuzkoan eta Araban, eta % 25,4 Bizkaian), eta ehuneko txikiagoak zerbitzu pertsonaletan (% 16,7 eta % 16,5 bi probintzia horietan, eta % 10,8 Bizkaian).

Gastuaren barne-banaketa diferentea da lurraldetik lurraldera, baina ezin da zuzenean esan horrek gastu-maila handiagoak eragiten dituenik kontzeptu batean ala bestean lurraldearen arabera. Hala eta guztiz ere, per capita gastuaren adierazleari erreparatzen badiogu, berriro egiaztatzen da Bizkaia dela prestazio ekonomikoetan gastu handiena egiten duen probintzia (339,78 euro per capita), Araba eta Gipuzkoaren aldean (306,36 eta 222,14 euro, hurrenez hurren).

Aitzitik, Arabak oso nabarmen gainditzen ditu beste bi lurraldeak zerbitzu pertsonal edo egoitza-zerbitzuetako per capita gastuan zein gastu orokorrean (beste gastu batzuk). Egoitza-zerbitzuen sektorean, Araban egiten den per capita gastua (280,15 euro) 1,2 aldiz handiagoa da Gipuzkoan baino (230,02 euro), eta 1,5 aldiz handiagoa Bizkaian baino (189,13 euro). Aldeak are handiagoak dira zerbitzu pertsonalen sektorean, Gipuzkoan baino 1,3 aldiz gehiago eta Bizkaian baino 1,8 aldiz gehiago gastatzen baita Araban (144,21 euro azken horretan, eta 111,78 eta 80,49 euro Gipuzkoan eta Bizkaian). Beste gastuak aztertuz gero, aldeak txikiagoak dira Araba eta Bizkaiaren artean (142,83 eta 135,84 euro, hurrenez hurren), eta nabarmen gutxiago gastatzen da pertsonako Gipuzkoan (105,52 euro).

**Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren izaera, lurralde historikoen arabera. 2011**

| | | Prestazio ekonomikoak | Egoitza-zerbitzuak | Zerbitzu pertsonalak | Beste zenbait gastu | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Araba | Gastua, guztira | 97.799.156 | 89.430.472 | 46.035.502 | 45.596.721 | 278.861.852 |
| | Per capita gastua | 306,36 | 280,15 | 144,21 | 142,83 | 873,55 |
| | % horizontalak | 35,1 | 32,1 | 16,5 | 16,4 | 100,0 |
| Bizkaia | Gastua, guztira | 392.707.348 | 218.588.473 | 93.025.884 | 157.005.847 | 861.327.552 |
| | Per capita gastua | 339,78 | 189,13 | 80,49 | 135,84 | 745,24 |
| | % horizontalak | 45,6 | 25,4 | 10,8 | 18,2 | 100,0 |
| Gipuzkoa | Gastua, guztira | 157.628.898 | 163.225.337 | 79.317.319 | 74.880.169 | 475.051.723 |
| | Per capita gastua | 222,14 | 230,02 | 111,78 | 105,52 | 669,46 |
| | % horizontalak | 33,2 | 34,4 | 16,7 | 15,8 | 100,0 |

**Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren izaera, lurralde historikoen arabera. 2011**




Herri-administrazioek biztanleria-sektore bakoitzean egiten duen gastuaren barne-egitura aztertuta, ikusten da ez dagoela alde handirik lurraldetik lurraldera. Hala ere, alderdi hauek nabarmen daitezke:

Gizarte-bazterketaren sektorean, prestazio ekonomikoek biltzen dute gastuaren gehiengoa. Bizkaian gastatzen da diru-ehuneko handiena prestazio horietan: % 83 probintzia horretan, % 76,1 Araban, eta, azkenik, % 68,8 Gipuzkoan. Azken bi probintzia horiek, ordea, ehuneko handiago bat bideratzen dute egoitza-gastuetara. Araban % 4 bideratzen dute, % 7,7 Gipuzkoan eta % 2,1 Bizkaian. Ehuneko handiagoak gastatzen dira, era berean, beste zenbait gastutan (% 19,9 eta 23,4% alde batetik, eta % 14,8 Bizkaian).

Adineko pertsonen sektorean, Araban gastu-ehuneko handiagoak bideratzen dira egoitza-zerbitzuetara eta zerbitzu pertsonaletara (% 82,3 probintzia horretan, eta % 72-73 ingurukoak Bizkaian eta Gipuzkoan); aitzitik, gastu-ehuneko handiagoa bideratzen da prestazio ekonomikoetarako Bizkaian eta Gipuzkoan (% 21 eta % 23,7, hurrenez hurren, probintzia horietan, eta % 15,2 Araban).

Ezintasunak dituzten pertsonen sektorea aztertuz gero hiru lurraldeetan, ikusten da egoitza-zerbitzuek eta zerbitzu pertsonalek biltzen dituztela sektorean egiten den gastuaren % 65 eta % 76 bitartean. Azterketa xeheago batek erakusten digu zerbitzu pertsonalak gailentzen direla Araban eta Gipuzkoan (% 37,9 eta % 42,4), eta nabarmen gainditzen dutela Bizkaiak zerbitzu horietan egiten duen gastu-ehunekoa (% 31). Bizkaian, gastu-ehuneko paretsuak egiten dira bi zerbitzu horietan. Probintzia horretan, zertxobait handiagoa da egoitza-zerbitzuetan egiten den gastua, % 33,8koa, baina beste bi probintziak ere oso hurbil daude proportzio horretatik (% 32,1 Araban eta % 33 Gipuzkoan).

Familia, haurtzaro eta gazteriaren sektorearen barruan, egoitza-zerbitzuetan eta prestazio ekonomikoetan gastatzen dute diru gehien hiru lurraldeek. Banaketa horretan, nabarmendu behar da Arabak eta Bizkaiak sektore-gastu osoaren % 30 baino gehiago baliatzen dutela beste zenbait gasturi aurre egiteko, hala nola familia eta lana bateratzeko programak, kale-hezitzaileak eta haurtzarorako talde teknikoak. Gipuzkoak, aldiz, % 24,8 bideratzen du beste gastu horietara. Gipuzkoan, nabarmentzekoa da egoitza-zerbitzuetan egiten den gastua (% 39,4 lurralde horretan, % 36,2 Bizkaian eta % 30 Araban). Arabak gastatzen du proportzio handiena prestazio

ekonomikoetan, % 39,9, eta nabarmen gainditzen ditu Gipuzkoako eta Bizkaiko proportzioak (% 35,8 eta % 31,9).

**Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren izaera, biztanleria-sektorearen eta lurralde historikoaren arabera. 2011 (% bertikalak)**

| | Adineko pertsonak | Ezintasunak dituzten pertsonak | Familia | Emakumea | Gizarte-bazterketa | Biztanleria osoa | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| P. Ekonomikoak | 15,2 | 18,7 | 39,9 | 0,0 | 76,1 | 0,0 | 35,1 |
| Egoitza-zerbitzuak | 56,5 | 32,1 | 30,0 | 22,2 | 4,0 | 0,0 | 32,1 |
| Zer. Pertsona. | 25,8 | 37,9 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 16,5 |
| Beste gastu batzuk | 2,5 | 11,3 | 30,1 | 77,8 | 19,9 | 100,0 | 16,4 |
| Araba, guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| P. Ekonomikoak | 21,0 | 16,1 | 31,9 | 0,3 | 83,0 | 0,0 | 45,6 |
| Egoitza-zerbitzuak | 51,5 | 33,8 | 36,2 | 25,1 | 2,1 | 0,0 | 25,4 |
| Zer. Pertsona. | 20,7 | 31,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 10,8 |
| Beste gastu batzuk | 6,7 | 19,1 | 31,9 | 74,5 | 14,8 | 100,0 | 18,2 |
| Bizkaia, guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| P. Ekonomikoak | 23,7 | 18,8 | 35,8 | 0,0 | 68,8 | 0,0 | 33,2 |
| Egoitza-zerbitzuak | 51,6 | 33,0 | 39,4 | 26,6 | 7,7 | 0,0 | 34,4 |
| Zer. Pertsona. | 21,2 | 42,4 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 16,7 |
| Beste gastu batzuk | 3,5 | 5,8 | 24,8 | 73,3 | 23,4 | 100,0 | 15,8 |
| Gipuzkoa, guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Probintzietako eskualdeetan egindako per capita gastua zenbatekoa den aztertzen badugu, lurralde historikoetan ikusitakoak baino diferentzia deigarriagoak agertzen zaizkigu.

Per capita gastu handiena Arabako barne-eskualdeetan (Lautada, Mendialdea eta Errioxa) eta Gipuzkoako Goierrin egiten da, guztietan igarotzen baita 800 eurotako langa: 910,59 euro Arabako Lautadan, 836,75 euro Goierrin, 803,21 euro Arabako Mendialdean eta 802,92 euro Errioxan.

Hala ere, Arabako Lautadan soilik gainditzen du per capita gastuak probintzia horretako gastuaren batez bestekoa, 873,55 eurokoa, eta horren arrazoia da Gasteizek duen gastu-maila handia. Nabarmentzekoa da, era berean, 2011. urtean, Arabako eskualde batzuetan autonomia-erkidego osoaren batez bestekotik, 739,37 euroko zenbatekotik, behera izan dela gastu-maila. Ez daude batez besteko horretatik oso urrun Arabako Kantaurialdea eta Arabako Bailarak (716,80 euro eta 708,82, hurrenez hurren), baina bai Gorbeialdean (630,65 euro).

Bizkaiko eskualde ia guztiek dute EAEko batez bestekoaren (745,24 euro) azpiko per capita gastua. Bilbo Handia eskualdean soilik gainditzen da, 793,35 euroko zenbatekoarekin, Bizkaiko eta EAE osoko batez besteko gastu-zenbatekoak. Bizkaiko gainerako eskualdeek EAEko gastu-maila apalenak dituzte oro har; hala, 545,70 eurokoa da zenbateko hori Plentzia-Mungian eta 627,73 eurokoa Enkarterrin.

Bi zifra horien artean kokatzen dira eskualde gehienak. Gernika-Bermeo eskualdea da EAEko batez bestekora gerturatzen den bakarra (690,78 euro).

Goierri eskualdeko zonaldeak, lehen adierazi dugun moduan, EAEko per capita batez bestekoa gainditzen du, eta, probintzia horretan bertan, gastu-maila handieneko eskualdeen artean dago Urola Kosta eskualdea, EAEko batez bestekora gerturatzen baita 736,41 eurorekin. Bestalde, 655 eta 672 euroko per capita gastuaren bitartean dabiltza Donostia, Debabarrena eta Debagoienako eskualdeak, Gipuzkoako batez besteko zenbatekotik gertu (669,46 euro). Bestelakoa da Tolosaren, eta, bereziki, Bidasoa Beherea eskualdearen egoera, Euskadin per capita gastu-maila apalenetakoa duten eskualdeak baitira (617,50 eta 499,09 euro, hurrenez hurren).

Datuak oro har irakurrita, ikusten da gizarte-zerbitzuetan per capita gastu handiagoa egiten dela Araba barrualdeko eskualdeetan, Arabako Lautadan bereziki, Gipuzkoako Goierrin eta Bilbo Handian. Erdibideko leku batean daude Arabako Kantaurialdea eta Arabako Bailarak, Bizkaiko Gernika-Bermeo eta Gipuzkoako Urola Kosta eta Donostialdea. Zertxobait atzerako daude Deba ibaiaren bailarako bi eskualdeak. Per capita gastua 650 eurotik beherakoa da Bizkaiko gainerako eskualdeetan, Gorbeialdean eta Gipuzkoako Tolosaldean eta Bidasoa Beherean.

Banaketa hori aztertzeari ekin baino lehen, kontuan izan behar dugu zuhurtasunez aztertu behar direla per capita gastuari buruzko datuak; izan ere, erakunde publikoen jardunaren intentsitate handiagoa islatzen dute, baina, bestalde, premien maila desberdinen errealitateak mugatzen du intentsitate hori, eskualdeen arabera.

**Gizarte-zerbitzuetan egiten den per capita gastua eskualdeka. 2011**



## 2.- Gastuaren xede edo helburua

Txostenaren 1. puntuan aurreratu dugunari berriro helduz, puntu hauetan laburbil daitezke herri-erakundeek 2011n gizarte-zerbitzuetarako konprometitu duten gastu arrunt garbiari buruzko datu nagusiak:

Aurreko urteetan gertatu den moduan, gastuaren gehiengoa, % 82,9, hiru sektore hauetako programak eta zerbitzuak ordaintzeko baliatu da: adineko pertsonak (% 33,8), gizarte-bazterketa (% 32,1) eta ezintasunak dituzten pertsonak (% 17).

Adineko pertsonei emandako arretaren sektoreak jarraitzen du izaten gastu handieneko sektorea, eta horren arrazoi nagusia da mendetasun-egoeretarako diru-laguntzak abiarazi direla.

Gizarte-bazterketaren sektoreak indartzen egin du 2002an hasitako protagonismoa, eta gastu erlatibo handieneko bigarren sektore gisa finkatu da. Adineko pertsonen sektorearen egiten den gastuarekiko aldeak txikia izaten jarraitzen du, 1,7 ehuneko-puntu eskasera baitago, haren atzetik.

Hirugarren postua finkatu du ezintasunak dituzten pertsonei emandako arretak, gastu osoaren % 17arekin.

Familia, haur eta gazteen sektoreak gizarte-zerbitzuetako gastu osoaren % 11,9 metatzen du, eta proportzio horrek bere posizioa sendotzen du aurreko ekitaldiekin alderatuta.

Zehaztasunez aztertuko ditugu orain sektorez sektore egindako gastuen xedeetan ikusten diren diferentziak; hala, sektore hauetan egin diren programak eta eman diren zerbitzuak aztertuko ditugu:

Adineko pertsonak: egoitza-zerbitzuak, eguneko zentroak, etxeko arreta, telelaguntza eta zahar-etxeak.
Ezintasunak dituzten pertsonak: egoitza-zerbitzuak, eguneko zentroak, okupazio-zentroak eta enplegu-zentro bereziak.
Familia, haurrak eta gazteak: egoitza-zerbitzuak eta "seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko plana".
Gizarte-bazterketa: laguntza ekonomikoak eta gizarteratze-ekintzak.
Oinarrizko gizarte zerbitzuak eta langile espezializatuak arreta sektorearen arabera.

### *2.1 Adineko pertsonak*

Adineko pertsonen arretaren sektoreko hiru programa nabarmendu behar dira: egoitza-zerbitzuak, etxeko laguntza eta eguneko zentroak. Hiru zerbitzu horietan 397.523.522 euro gastatu ziren 2011. urtean, sektorean egindako gastuaren % 72,8 eta guztirako gastu publiko arruntaren % 24,6. Gizarte-bazterketako sektorean egindako gastuak soilik gainditzen du gastu-ehuneko hori, % 32,1ekoa izan baita urte horretan.

Lurraldeen araberako aldeak bereziki nabarmenak dira zerbitzu horietan egiten den per capita gastuari erreparatuta. Alde horretatik, Arabako gastua (1.481,87 euro 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko) Bizkaikoa halako 1,9 gehiago da (775,27 euro), eta Gipuzkoakoa baino 1,5 aldiz handiagoa (985,92 euro). Lurralde horrek, bestalde, % 27,2an gainditzen du Bizkaiaren maila.

Finantza-iturriak aztertzean ikusiko dugu alde horren sorburu nagusia Arabako Foru Aldundiaren gastu handiagoa dela, beste bi aldundiek baino gastu handiagoa egiten duen aldetik adinekoentzako zerbitzu eta programetan. Arabako udalek gastu-ildo homogeneoagoak adierazten dituzte, baina gastu-maila handiagoa da Gasteizen.

**Gastua baliabide-motaren eta lurraldearen arabera (Gastu osoa eta per capita gastua) 2011**

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
|---|---|---|---|---|
| Egoitza-zerbitzuak | 59.572.598 | 130.346.842 | 96.968.863 | 286.888.303 |
| Eguneko zentroak | 6.739.240 | 9.332.020 | 17.185.477 | 33.256.737 |
| Etxeko laguntza | 17.228.592 | 39.775.131 | 20.374.759 | 77.378.482 |
| Gastua, guztira | 83.540.430 | 179.453.993 | 134.529.099 | 397.523.522 |
| Egoitza-zerbitzuak | 1056,72 | 563,12 | 710,65 | 676,15 |
| Eguneko zentroak | 119,54 | 40,32 | 125,95 | 78,38 |
| Etxeko laguntza | 305,61 | 171,84 | 149,32 | 182,37 |
| Per capita gastua* | 1.481,87 | 775,27 | 985,92 | 936,90 |

* € per capita, 65 urtetik gorako pertsonako

Programa eta zerbitzu horietan egindako gastuak % 6,6 egin du gora 2010 eta 2011 urteen bitartean. Gipuzkoan eta Bizkaian egin dira igoera nabarmenenak (% 10,7 eta % 6), eta Araban, berriz, % 1,4koa izan da igoera.

Datu kuantitatiboek adierazten dute egoitza-zerbitzuen bilakaerak handitu dituela, batik bat, 2010-2011 epean egindako gastuak; izan ere, zerbitzu horiei dagokien aurrekontu-saila % 11,7 igo da Gipuzkoa eta % 7,4 Bizkaian. Gipuzkoan, nabarmen igo da eguneko zentroetan egindako gastua (% 23,3), baina % 1,8 murriztu egin da etxeko laguntza-zerbitzuarengatik egindako gastua. Egoera kontrakoa izan da Bizkaia (+% 13,3 etxeko laguntzan eta -% 27 eguneko zentroetan). Araban, bestalde, igoera-indize apalagoaren arrazoia topatzeko, etxeko laguntzaren gastuak izan duen hazkunde negatiboari erreparatu behar diogu, gastua nabarmen murriztu baita 2010. urtearekiko (-% 19,1). Beheraka horrek konpentsatu egiten du, neurri handian, eguneko zentroen gastuak izan duen goranzko joera (% 4,1) eta, batik bat, egoitza-zerbitzuen gastu-igoera (% 9,1).

Datuek adierazten dute, beraz, eguneko zentroetan eta etxeko laguntza-zerbitzuan egindako gastuak behera egin duela gutxienez lurralde batean. Horrek azaltzen du zergatik aztertutako zerbitzu

guztietan hauteman den igoera orokorra egoitza-zerbitzuek izandako egoerarekin lotzen den, % 9,2 igo baita zerbitzu horietan egindako gastua; izan ere, hura da Euskadiko hiru herrialdeetan igoera-joera handia erakusten duen gastu-modalitate bakarra. Bestalde, 2010ean izandako datuen antzekoak dira eguneko zentroetan eta etxeko laguntza-zerbitzuan jasotako gastu-datuak, % 0,2 eta % 0,3 igo baita horietan egindako gastua.

Gastuak gehiago egin du gorantz Bizkaian eta Gipuzkoan, baina kostaldeko bi probintzia horiek Arabarekiko duten gastu-aldeak bere horretan dirau, aurreko urteetako zenbatekoen parean. Hori horrela, Bizkaian baino 1,9 aldiz handiagoa da 65 urteko pertsona bat zaintzeko egoitza gastua Araban, eta Gipuzkoan baino 1,5 aldiz handiagoa. Etxeko laguntza-zerbitzuan, gastua Gipuzkoakoa baino bi aldiz handiagoa da Araban eta Bizkaikoa baino 1,8 aldiz handiagoa.

**Lurralde historikoetan egoitza-zerbitzuetan, eguneko zentroetan eta adineko pertsonen etxeko laguntzan egindako gastua. 2010 eta 2011**

| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastua 2010ean, guztira | Egoitza-zerbitzuak | 54.610.631 | 121.347.277 | 86.803.502 | 262.761.411 |
| | Eguneko zentroak | 6.474.528 | 12.778.517 | 13.934.576 | 33.187.622 |
| | Etxeko arreta | 21.283.751 | 35.093.925 | 20.753.688 | 77.131.364 |
| | Guztira | 82.368.911 | 169.219.720 | 121.491.766 | 373.080.397 |
| Gastua 2011n, guztira | Egoitza-zerbitzuak | 59.572.598 | 130.346.842 | 96.968.863 | 286.888.303 |
| | Eguneko zentroak | 6.739.240 | 9.332.020 | 17.185.477 | 33.256.737 |
| | Etxeko arreta | 17.228.592 | 39.775.131 | 20.374.759 | 77.378.482 |
| | Guztira | 83.540.430 | 179.453.993 | 134.529.099 | 397.523.522 |
| Per capita gastua 2011n* | Egoitza-zerbitzuak | 1056,72 | 563,12 | 710,65 | 676,15 |
| | Eguneko zentroak | 119,54 | 40,32 | 125,95 | 78,38 |
| | Etxeko arreta | 305,61 | 171,84 | 149,32 | 182,37 |
| | Guztira | 1.481,87 | 775,27 | 985,92 | 936,90 |
| 2010arekiko hazkundea | Egoitza-zerbitzuak | 9,1 | 7,4 | 11,7 | 9,2 |
| | Eguneko zentroak | 4,1 | -27,0 | 23,3 | 0,2 |
| | Etxeko arreta | -19,1 | 13,3 | -1,8 | 0,3 |
| | Guztira | 1,4 | 6,0 | 10,7 | 6,6 |

* € per capita, 65 urtetik gorako pertsonako

Adineko pertsonentzat diren hiru zerbitzu horietatik, egoitza zerbitzuetan egiten da gastuaren % 72,2. Etxeko zerbitzuetan egiten da gastuaren % 19,5, eta gainerako % 8,4a, azkenik, eguneko zentroetan. Gastuaren portzentaje-egitura hori antzekoa da hiru lurraldeetan, eta, bereziki, egoitza-zerbitzuen alorrean. Etxeko laguntzaren gastu-ehunekoa zertxobait handiagoa da Araban eta Bizkaian (% 20,6 eta % 22,2 bi horietan, eta % 15,1 Gipuzkoan). Eguneko zentroetan egindako gastuak ehuneko handiagoa erakusten du Gipuzkoan (% 12,8 probintzia horretan eta % 10etik behera beste bietan).

**Adinekoentzako egoitza-zerbitzuen, eguneko zentroen eta etxeko arretaren per capita gastua eta banaketa % finantziazio-iturrien eta Lurralde Historikoaren arabera 2011**[6]

| | | Per capita gastua | | | | % Bertikalak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
| Egoitza-zerbitzuak | Udalak | 185,17 | 59,30 | 65,29 | 77,95 | 12,5 | 7,6 | 6,6 | 8,3 |
| | Foru Aldundiak | 723,25 | 412,60 | 507,03 | 484,24 | 48,8 | 53,2 | 51,4 | 51,7 |
| | Eusko Jaurlaritza. | 51,45 | 16,42 | 48,60 | 31,42 | 3,5 | 2,1 | 4,9 | 3,4 |
| | SAAD(1) | 96,86 | 74,80 | 89,73 | 82,54 | 6,5 | 9,6 | 9,1 | 8,8 |
| | Guztira | 1.056,72 | 563,12 | 710,65 | 676,15 | 71,3 | 72,6 | 72,1 | 72,2 |
| Etxeko laguntza | Udalak | 42,56 | 137,82 | 36,83 | 92,69 | 2,9 | 17,8 | 3,7 | 9,9 |
| | Foru Aldundiak | 224,96 | 17,57 | 91,35 | 68,85 | 15,2 | 2,3 | 9,3 | 7,3 |
| | Eusko Jaurlaritza. | 9,99 | 13,39 | 6,42 | 10,69 | 0,7 | 1,7 | 0,7 | 1,1 |
| | SAAD(1) | 28,09 | 3,06 | 14,72 | 10,14 | 1,9 | 0,4 | 1,5 | 1,1 |
| | Guztira | 305,61 | 171,84 | 149,32 | 182,37 | 20,6 | 22,2 | 15,1 | 19,5 |
| Eguneko zentroak | Udalak | 10,61 | 9,35 | 5,61 | 8,31 | 0,7 | 1,2 | 0,6 | 0,9 |
| | Foru Aldundiak | 96,83 | 26,37 | 103,64 | 60,58 | 6,5 | 3,4 | 10,5 | 6,5 |
| | SAAD(1) | 12,11 | 4,60 | 16,70 | 9,49 | 0,8 | 0,6 | 1,7 | 1,0 |
| | Guztira | 119,54 | 40,32 | 125,95 | 78,38 | 8,1 | 5,2 | 12,8 | 8,4 |
| Guztira | Udalak | 238,34 | 206,46 | 107,74 | 178,95 | 16,1 | 26,6 | 10,9 | 19,1 |
| | Foru Aldundiak | 1.045,04 | 456,54 | 702,02 | 613,67 | 70,5 | 58,9 | 71,2 | 65,5 |
| | Eusko Jaurlaritza. | 61,44 | 29,81 | 55,01 | 42,12 | 4,1 | 3,8 | 5,6 | 4,5 |
| | SAAD(1) | 137,05 | 82,47 | 121,15 | 102,16 | 9,2 | 10,6 | 12,3 | 10,9 |
| | Guztira | 1.481,87 | 775,27 | 985,92 | 936,90 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

* € per capita, 65 urtetik gorako pertsonako

(1) IMSERSO. Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistema

Udalek hartzen dute Bizkaian etxeko arreta-zerbitzua finantzatzeko ardura nagusia, baina zerbitzu horiek foru-aldundiek finantzatu ohi dituzte nagusiki beste bi probintzietan. Euskal Autonomia Erkidego osoari erreparatuta, foru-aldundien finantza-partaidetza % 65,5ekoa da batez beste, eta % 70etik gorakoa da Araban eta Gipuzkoan (% 70,5 eta % 71,2 hurrenez hurren).

Udalek gastuaren % 19,1 ordaintzen dute. Bizkaian da ehunekoa handiena (% 26,6 probintzia horretan, % 16,1 Araban eta % 10,9 Gipuzkoan) udalek finantzatzen baitute etxeko laguntza-zerbitzuko gastuaren % 80,2 (% 24,7 Gipuzkoan eta % 13,9 Araban).

Mendetasunari buruzko Legea martxan jartzearen ondorioz, finantziazio-iturri indartsu bat agertu zen: Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistema (SAAD), IMSERSOren mendekoa. Sistema hori baliatu zen 2011. urtean adineko pertsonentzako zerbitzu-multzo horren % 10,9 finantzatzeko. Lurraldez lurralde begiratuta, zerbitzuen % 12,3 finantzatu da bide horretatik Gipuzkoan, % 10,6 Bizkaian eta % 9,2 Araban.

6 Zifra horiek interpretatzeko, bi alderdi hartu behar dira kontuan. Lehen alderdia da egoitza-gastuen barruan sartzen direla egoitza-zentroetako gastu asko eta adineko pertsonak zaintzen dituzten familientzat zuzendutako egoitza-programetan egiten diren gastu asko, egonaldi laburrei dagozkienak. Kontuan izan beharreko bigarren alderdia da Bizkaian etxeko laguntzaren finantzazioa udalek soilik egiten badute ere, Araba eta Gipuzkoan udalek zein aldundiek hartzen dutela parte.

Eusko Jaurlaritzak egoitza-zerbitzuak, etxeko laguntzak eta eguneko zentroak finantzatzeko egiten duen ekarpena gastuaren % 4,5ekoa da.

### Egoitza-zerbitzuak

Xehetasun handiagoz aztertzen baditugu adineko pertsonei ematen zaizkien zerbitzuen modalitateak, ikusten dugu egoitza-zerbitzuetan 286.888.303 euro gastatu direla 2011. urtean, hau da, gastu publiko arrunt osoaren % 17,8. Gastu horren garrantzia argi eta garbi ikus daiteke hainbat sektoretan egindako guztizko gastua baino handiagoa dela egiaztatzean; hala nola ezintasunak dituzten pertsonen sektorean (% 17) edo Familia, Haur eta Gazteen sektorean (% 11,9).

Zerbitzu horien finantziazioaren % 71,6 hartzen dute beren gain foru-aldundiek. Udalek % 11,5 finantzatzen dute, SAAD sistemak % 12,2 eta Eusko Jaurlaritzak hartzen du bere gain gainerako % 4,6a.

Bada alderik lurraldetik lurraldera gastu horien ehuneko-banaketan. Izan ere, udalen ekarpena zertxobait apalagoa da Gipuzkoan eta Bizkaian, egoitza-zerbitzuetan egindako gastuaren % 9,2 eta % 10,5 ordaintzen baitute lurralde horietako udalek. Proportzioa % 17,5ekoa da Araban, Gasteizko Udalak bere gain hartzen duen gastu-zatiarengatik batik bat. SAAD sistemaren ekarpena, bestalde, zertxobait handiagoa da ehunekotan Bizkaian (% 13,3) eta Gipuzkoan (% 12,6), Araban baino (% 9,2). Eusko Jaurlaritzak zerbitzu horiek finantzatzen laguntzen du Gipuzkoan (% 6,8), Araban (% 4,9) eta Bizkaian (% 2,9).

Per capita gastuari begiratuta nabartu behar dira datuak. Izan ere, Gasteizko Udalak udal-eremuan egiten duen ekarpen diferentzial handia duela nabarmendu behar da lehenik eta behin. Horrez gainera, datuek diote Arabako Foru Aldundiak 723,25 euro gastatzen dituela 65 urtetik gorako biztanle bakoitzeko egoitza-zerbitzuetan, Bizkaiko Foru Aldundiak gastatzen duena baino 1,8 aldiz gehiago (412,60 euro gastatzen du azken horrek) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak baino 1,4 aldiz gehiago (507,03 euro). Per capita egiten diren ekarpenen diferentzia ez da izugarri handia, baina, horren harian, gogoratu behar da Eusko Jaurlaritzak eta SAAD sistemak egiten duten ekarpena handiagoa dela Araban (biek batera, 148,31 euro 65 urtetik gorako pertsonako, 138,33 Gipuzkoan eta 91,22 Bizkaian).

Datu guztien irakurketa eginda, nabarmentzen da adineko pertsonentzat ematen diren egoitza-zerbitzuen per capita gastua nabarmen handiagoa dela Araban: 1.056,72 euro gastatzen dira 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko probintzia horretan, eta Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, 710,65 euro eta 563,12 euro, hurrenez hurren.

**Adinekoentzako egoitza-zerbitzuen per capita gastua eta % banaketa, finantziazio-iturrien eta Lurralde Historikoaren arabera. 2011**

| | | Udalak | Foru-aldundiak | Eusko Jaurlaritza | SAAD | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Per capita gastua* | Araba | 185,17 | 723,25 | 51,45 | 96,86 | 1.056,72 |
| | Bizkaia | 59,30 | 412,60 | 16,42 | 74,80 | 563,12 |
| | Gipuzkoa | 65,29 | 507,03 | 48,60 | 89,73 | 710,65 |
| | EAE | 77,95 | 484,24 | 31,42 | 82,54 | 676,15 |
| % horizontalak | Araba | 17,5 | 68,4 | 4,9 | 9,2 | 100,0 |
| | Bizkaia | 10,5 | 73,3 | 2,9 | 13,3 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 9,2 | 71,3 | 6,8 | 12,6 | 100,0 |
| | EAE | 11,5 | 71,6 | 4,6 | 12,2 | 100,0 |

* € per capita, 65 urtetik gorako pertsonako

Eskualde bakoitzeko per capita gastuaren mailetan ere berdin ikus daitezke lurraldeen arteko alde horiek. Hala ere, diferentzia horiek ez dira erraz azaltzekoak, horrelako zentroek, zerbitzu espezializatuak ematen badituzte ere, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeko printzipioak bete behar baitituzte: deszentralizazioa, herritarren hurbiltasuna eta berdintasun-printzipioa.

Eskualdeen egoerari erreparatuta, ikusten da gastu per capita handieneko zortzi eskualdeek aise igarotzen dutela EAEko batez bestekoa, 676,15 eurotan finkatua. Zortzi horietatik, bost Arabakoak dira eta hiru Gipuzkoakoak.

Araban, nabarmentzekoa da zer gastu handia egiten den Arabar Errioxan eta Arabako Lautadan (1.202,06 euro eta 1.127,75 euro gastatzen dira, hurrenez hurren, 65 urtetiko gorako pertsona bakoitzeko); haien atzetik daude Gorbeialdea (864,15 euro), Arabako Kantaurialdea (726,31 euro) eta Arabako Mendialdea (718,27 euro). Gipuzkoan, Debabarrenak (935,64 euro), Debagoienak (767,62 euro) eta Donostiak (732,04 euro) gainditzen dute EAEko batez bestekoa. Probintzia horretan, EAEko batez bestekoen parean dago Tolosaldea, 679,79 euro gastatzen baitira eskualde horretan 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko.

Plentzia-Mungia da EAEko batez bestekora gerturatzen den Bizkaiko eskualde bakarra, 645,33 euroko batez bestekoarekin. Bilbo Handia, 580,51 euroko batez bestekoarekin, erdialdetik behera ageri da EAEko batez bestekoarekin alderatuta, baina Bizkaiko batez bestekoa baino zertxobait gorago dago, 563,12 eurokoa baita probintzia horretako batez bestekoa. Bizkaiko gainerako eskualdeak ez dira EAEko batez bestekora gerturatzen; hala ere, Gernika-Bermeo eskualdeak gutxigatik gainditzen du, per capita adierazlean, 600 euroko langa (600,50).

Bizkaian daude, oro har, adineko pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan gastu gutxien egiten duten eskualdeak, 500 euro baino gutxiagoko batez bestekoekin per capita adierazlean. Horien artean daude Markina-Ondarroa (322,21 euro), Arratia-Nerbioi (423,41 euro), Enkarterri (455,29 euro) eta Durangaldea (478,58 euro). Bizkaitik kanpora, Arabako Bailarak soilik sartzen dira talde horretan, 495,74 euroko per capita gastuarekin.

**Per capita gastua adinekoentzako egoitza-zerbitzuetan, eskualdeka. 2011***




* € per capita, 65 urtetik gorako pertsonako

Arabako Bailaren salbuespena alde batera utzita, Arabako datuek erakusten dute zer-nolako garrantzia duten probintzia horretan Gasteizko Udalaren ekarpenak eta Arabako Foru Aldundiak egiten duen lurralde-konpentsazioko politikaren emaitzek. Gipuzkoan bi errealitate berezitu ikusten dira; alde batetik, Debako bi eskualdeak eta Donostialdea daude 732 eta 935 euro bitarteko zenbatekoak gastatzen dituztenak 65 urteko pertsona bakoitzeko, eta, bestetik, gainerako eskualdeak, Bidasoa Behereko 542 euroen eta Tolosaldeako 679,79 euroen bitartean kokatzen direnak. Bizkaian, azken eskualde-multzo horren antzeko batez bestekoak erakusten dituzte Plentzia-Mungia, Gernika-Bermeo eta Bilbo Handia eskualdeek, eta 500 eurotik beherako gastua egiten dute 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko Enkarterri, Arratia-Nerbioi, Durangaldea eta Markina-Ondarroa eskualdeek.

## Eguneko Zentroak

Adinekoentzako eguneko zentroen gastua 33.256.737 eurokoa izan da guztira 2011. urtean, hots, gastu publiko oso arruntaren % 2,1. Egoitza-zerbitzuetan egindakoa baino askoz ere apalagoa da gastua, baina droga-mendekotasunen edo emakumeen sektoreetan egindakoa baino handiagoa da.

Hala ere, ez da ahaztu behar egoitza-zentroetan izaten direla eguneko zentro gehienak, eta, hortaz, zaila izaten dela hari dagozkion gastuak eta diru-sarrerak eta egoitza-zentroarenak banakatzea. Horren ondorioz, egiaz dena baino apalagoak izan ohi da zerbitzu-modalitate horren kostu ekonomikoaren balorazioa.

**Adinekoentzako eguneko zentroen per capita gastua eta % banaketa, finantziazio-iturrien eta Lurralde Historikoaren arabera. 2011**

| | | Udalak | Foru-aldundiak | SAAD | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Per capita gastua* | Araba | 10,61 | 96,83 | 12,11 | 119,54 |
| | Bizkaia | 9,35 | 26,37 | 4,60 | 40,32 |
| | Gipuzkoa | 5,61 | 103,64 | 16,70 | 125,95 |
| | EAE | 8,31 | 60,58 | 9,49 | 78,38 |
| % horizontalak | Araba | 8,9 | 81,0 | 10,1 | 100,0 |
| | Bizkaia | 23,2 | 65,4 | 11,4 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 4,5 | 82,3 | 13,3 | 100,0 |
| | EAE | 10,6 | 77,3 | 12,1 | 100,0 |

* € per capita, 65 urtetik gorako pertsonako

## Etxeko laguntza

Etxez etxeko laguntzaren gastua 77.378.482 euro izan da guztira 2011. urtean, hots, gastu publiko oso arruntaren % 4,8. Sektore horretan egiten da etxeko laguntzaren gastu-zatirik handiena, % 92,4, eta gainerako % 7,6, 6.400.075 euro, ezintasunak dituzten pertsonen sektorean gastatzen da..

**Etxeko arretako gastua sektorearen eta lurralde historikoaren arabera 2011**

| | | Adineko pertsonak | Ezintasunak dituzten pertsonak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 17.228.592 | 1.717.297 | 18.945.889 |
| | Bizkaia | 39.775.131 | 3.174.018 | 42.949.149 |
| | Gipuzkoa | 20.374.759 | 1.508.760 | 21.883.519 |
| | EAE | 77.378.482 | 6.400.075 | 83.778.557 |

Egungo eskumen-banaketaren arabera, foru-aldundiek hartzen dute beren gain lagundutako Adinekoen etxeko laguntzaren eta biztanle ezinduen gastua. Udalek kudeatutako zerbitzua den arren, foru-erakundeek finantzatzen dute gastuaren zatirik handiena Araban (% 73,6) eta, neurri txikiagoan, Gipuzkoan (% 61,2). Bizkaian, aitzitik, gastu osoaren % 80,2 finantzatzen dute udalek, egoitza-zentroetarako itxaro-zerrendan adinekoren bat duten udalak soilik finantzatu baititu Bizkaiko Foru Aldundiak. Hala ere, 2011. urtean, Bizkaiko Foru Aldundiak funtsak eman dizkie udalei etxeko laguntzan egindako gastua finantzatzeko.

Etxeko arretaren eredu antzekoa dute Arabak eta Gipuzkoak, baina laguntza-sektorearen egoerak alde nabarmenak erakusten ditu 65 urteko eta gehiagoko pertsona bakoitzeko egiten den gastuari erreparatuz gero. Foru-aldundiek per capita egiten duten finantzazioa nabarmen aldatzen da Arabatik Gipuzkoara; izan ere, 224,96 euro jartzen ditu Arabako Foru Aldundiak 65 urte edo gehiago dituen pertsonako eta Gipuzkoakoak, berriz, 91,35 euro. Udalen eta aldundien gastua batera aztertuta, ikusten da Gipuzkoak baino diru gehiago jartzen duela Bizkaiak zerbitzu horiek ordaintzeko (155,39 euro Bizkaiak eta 128,18 Gipuzkoak). Bi probintzia horiek toki-erakundeen ekarpena Arabakoena baino apalagoa da, probintzia horretako udalek eta aldundiak 267,52 euro jartzen baitituzte 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko.

Etxeko laguntzako sektorearen % 5,9 finantzatzen du Eusko Jaurlaritzak, telelaguntza-zerbitzua ordaintzeko egiten duen gastuaren bidez. Proportzioa zertxobait handiagoa da Bizkaian (% 7,8 probintzia horretan, % 4,3 Gipuzkoan eta % 3,3 Araban). SAAD sistemak zerbitzuaren % 5,6 finantzatzen du, eta proportzio hori askoz handiagoa da Gipuzkoan eta Araban (% 9,9 eta % 9,2, hurrenez hurren), Bizkaian

baino (% 1,8). Erreparatuz gero 65 urtetik gorakoengan egiten den gastuari, SAAD sistemaren ekarpena handiagoa da Araban (28,09 euro probintzia horretan, 14,72 Gipuzkoan eta 3,06 Bizkaian).

Oro har begiratuta, diferentzia handiak ikusten dira lurraldetik lurraldera etxeko laguntzaren sektorean per capita egiten den gastuan. Araban 305,61 euro gastatzen dira 65 urte edo gehiagoko pertsona bakoitzeko, eta gastu hori 1,8 aldiz handiagoa da Bizkaikoa baino (171,84 euro), eta Gipuzkoan baino bi aldiz handiagoa (149,32 euro).

Aurkezten diren datuak ikusita, nabarmendu beharreko datua da Araba eta bi euskal probintzien arteko aldearen arrazoia ez dela udalek gastu handiagoa egiten dutela Araban; aitzitik, Arabako Foru Aldundiaren ekarpen handia da aldearen arrazoia.

**Adinekoentzako etxeko arretako gastua lurralde historikoaren arabera. 2011**

| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Udalak | 2.399.491 | 31.901.471 | 5.026.021 | 39.326.983 |
| | Aldundiak | 12.682.251 | 4.066.214 | 12.465.233 | 29.213.698 |
| | Eusko Jaurlaritza | 563.353 | 3.098.456 | 875.373 | 4.537.181 |
| | SAAD | 1.583.497 | 708.990 | 2.008.132 | 4.300.620 |
| | Gastua, guztira | 17.228.592 | 39.775.131 | 20.374.759 | 77.378.482 |
| Per capita gastua | Udalak | 42,56 | 137,82 | 36,83 | 92,69 |
| | Aldundiak | 224,96 | 17,57 | 91,35 | 68,85 |
| | Eusko Jaurlaritza | 9,99 | 13,39 | 6,42 | 10,69 |
| | SAAD | 28,09 | 3,06 | 14,72 | 10,14 |
| | Guztira | 305,61 | 171,84 | 149,32 | 182,37 |
| % bertikalak | Udalak | 13,9 | 80,2 | 24,7 | 50,8 |
| | Aldundiak | 73,6 | 10,2 | 61,2 | 37,8 |
| | Eusko Jaurlaritza | 3,3 | 7,8 | 4,3 | 5,9 |
| | SAAD | 9,2 | 1,8 | 9,9 | 5,6 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

* € per capita, 65 urtetik gorako pertsonako

Per capita gastuak eskualdez eskualde aztertuz gero, ikusten da lurraldearen faktoreak eta Arabako Aldundiaren konpentsazio-politikak eragin handiagoa dutela etxeko laguntzaren sektorean. Hori horrela, eta egiazta daitekeenez, gastu-maila handiagoa da Arabako eskualde guztietan, eta landa-eskualdeak edo gutxiago urbanizaturiko eskualdeak ere hiriburu-eskualdearen, Arabako Lautadaren, gainetik daude. Hau da per capita gastua Arabako landa-eskualdeetan: Arabako Bailarak (498,02 euro), Gorbeialdea (480,69), Errioxa (464,03 euro), Arabako Kantaurialdea (393,41 euro) eta Arabako Mendialdea (386,96 euro). Bestalde, probintziako batez bestekotik (305,61 eurotik) behera dago Arabako Lautada, 271,66 euroko batez bestekoarekin.

Landatarragoak diren Arabako eskualdeen kasuan, Arabako foru-aldundiak oso-osorik finantzatzen ditu eskualdeetako etxeko arretako zerbitzuak, eta erkidegoaren batez bestekoa nabarmen gainditzen duten gastu-mailak dauzkate. Egia esan, Arabako foru-erakundeek etxeko laguntzari eusteko egiten duten ekarpena hain handia izatearen arrazoietako bat arreta-kostu handiagoarekin dago lotua, biztanleria oso sakabanatua duen izaki, zerbitzu horiek zuzenean kudeatzeko ahalmen nahikoa duten udalerri gutxi dituen lurralde batean esku hartzearen ondorioz.

Arabako landa-eskualdeen kontrako muturrean daude Bizkaiko sei eskualde eta Gipuzkoako lau, ez baitute beren probintziako batez besteko per capita gastua gainditzen. Bizkaian daude, izan ere, Plentzia-Mungia (115,81 euro), Gernika-Bermeo (132,18 euro), Durangaldea (132,42 euro), Arratia-Nerbioi (143,54 euro), Markina-Ondarroa (153,13 euro) eta Enkarterri (164.49 euro) eskualdeak. Bilbo Handiak soilik gainditzen du, 181,71 eurorekin, probintzia horretako batez bestekoa.

Gipuzkoan, ez dute probintzia horretako batez bestekoa gainditzen Debabarrenak (88,15 euro), Bidasoa Behereak (96,06 euro), Urola Kostak (144,90 euro) eta Debagoienak (146,37 euro). Probintzia horretako batez bestekotik gorako zenbatekoak erakusten dituzten arren, 160 euroren inguruan edo behera dabiltza Debagoiena (146,37 euro), Goierri (154,80 euro) eta Donostia (169,57). Tolosaldea soilik gerturatzen da Bilbo Handiko zenbatekora, 170,29 eurokoa, nahiz eta, horiek guztiak Arabako eskualdekoetatik urrun izan.

Bizkaiko eta Gipuzkoako datuek adierazten dute hiriburu-eskualdeek per capita gastu handia izateko joera dutela, eta Arabako datuek, berriz, justu kontrakoa diote, gastua nabarmen handiagoa baita landa-eskualdeetan. Kostaldeko bi probintzietan ez da ikusten, alde horretatik, eskualdeen landa-izaerak handitu egiten duenik gastu-maila. Horren harian, per capita gastu handieneko zein txikieneko eskualdeen artean kokatzen dira demografia apaleko eskualdeak, batez ere Bizkaian.

Bestalde, urbanizazio-maila handiko eskualdeak per capita gastuaren erdiko posizioetan izaten dira Euskal Autonomia Erkidegoan, baina urbanizazio-maila ertaina duten zenbait eskualdetan bereziki txikia da etxeko laguntzaren per capita gastua (Plentzia-Mungia, Debabarrena eta Bidasoa Beherean, esaterako).

**Etxeko arretako per capita gastua eskualdeka. 2011***




* € per capita, 65 urtetik gorako pertsonako

## Erretirodunen etxeak

Adinekoen sektorea aztertzen hastean, nabarmentzekoa da erretirodunen etxe eta elkarteek garrantzi oso mugatua dutela 2011. urtean, batez ere egoitza-zerbitzuetan eginiko gastuarekin alderatzen badugu. Oro har, eta gastu publikoaren ikuspegitik begiratuta, zerbitzu horiek mantentzeak 8.717.003 euroko diru-kopurua eskatzen du, hots, adinekoei zuzendutako guztizko gastuaren % 1,6 eta gizarte-zerbitzuetako guztizko gastu publikoaren % 0,5. Udalek hartzen dute beren gain, 2009az geroztik, zerbitzu horien finantziazio osoa.

Ez da alde handirik hautematen lurraldetik lurraldera. Hala ere, beste bi probintziek baino gastu handiagoa egiten da Araban adineko pertsona bakoitzeko: 57,24 euro probintzia horretan, 16,13 euro Gipuzkoan eta 14,21 euro Bizkaian.

**Erretirodunen etxeetan egindako gastu publikoa, lurralde historikoen arabera. 2011**

| | Gastua, guztira | Per capita gastua |
|---|---|---|
| Araba | 3.226.657 | 57,24 |
| Bizkaia | 3.289.492 | 14,21 |
| Gipuzkoa | 2.200.854 | 16,13 |
| EAE | 8.717.003 | 20,54 |

* € per capita, 65 urtetik gorako pertsonako

## 2.2. Gaixotasunak, ezintasunak eta minusbaliotasunak dituzten pertsonak

Ezintasunak dituzten pertsonen sektorean, zerbitzu hauek ematen dira nagusiki: egoitza-zentroak, eguneko laguntza-zentroak eta enpleguko eta okupazioko zentro bereziak.

Orotara, zerbitzu-mota horiek ordaintzeko baliatu den gastu publiko arrunta 183.792.644 eurokoa izan da 2011n. Zenbateko hori ezintasunak dituzten pertsonen sektorearen egindako gastuaren % 67 da, eta gizarte-zerbitzuetan egindako gastu osoaren % 11,4.

**Ezintasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan, eguneko zentroetan, enpleguko eta okupazioko zentro berezietan egindako gastua, lurralde historikoen eta finantzazio-iturrien arabera. 2011**

| | | Udalak | Aldundiak | SAAD | Eusko Jaurlaritza | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 0 | 25.871.900 | 2.144.401 | 5.099.816 | 33.116.117 |
| | Bizkaia | 832.084 | 54.757.959 | 8.714.236 | 17.485.765 | 81.790.044 |
| | Gipuzkoa | 35.225 | 42.145.965 | 5.920.949 | 20.784.344 | 68.886.483 |
| | EAE | 867.309 | 122.775.824 | 16.779.586 | 43.369.925 | 183.792.644 |
| Per capita gastua | Araba | 0,00 | 81,05 | 6,72 | 15,98 | 103,74 |
| | Bizkaia | 0,72 | 47,38 | 7,54 | 15,13 | 70,77 |
| | Gipuzkoa | 0,05 | 59,39 | 8,34 | 29,29 | 97,08 |
| | EAE | 0,40 | 56,20 | 7,68 | 19,85 | 84,13 |

### Egoitza-zerbitzuak.

Ezintasunak dituzten pertsonen sektorearen baitan, 91.166.237 euro gastatu dira 2011n egoitza-zerbitzuetan, sektore horretan egin den gastu osoaren % 33,2. Zerbitzu horien faktura ordaintzeko, adineko pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan gastatzen den diruaren % 31,8 baliatzen da bakarrik, baina interbentzio sozialeko eremu garrantzitsua da. Gizarte-zerbitzuetan egiten den gastu osoaren % 5,6 da kopuru hori. Zenbateko horrek gainditu egiten du, esaterako, biztanleria osoaren sektoreari zuzendutako gastua.

Foru-aldundiek finantzatu dute aztertu den gastu horren % 86,1, eta udalek oso partaidetza txikia izan dute finantzaketa horretan. Bizkaiko udalek soilik egiten dute ekarpen txiki bat, baina oso gutxigatik gainditzen du ekarpen horrek probintzia horretan egoitza-zerbitzuetan egiten den gastuaren % 0,04. SAAD sistemak ordaintzen du gainerako % 13,9a.

Foru-aldundiek finantzazioaren zama handiena daramaten interbentzio-eremu askotan gertatzen den moduan, Araba da, kasu honetan ere, per capita gastu handiena egiten duen lurralde historikoa: 50,10 euro. Bizkaiak egindakoa baino 1,3 aldiz handiagoa da kopuru hori (38,36 euro probintzia horretan) eta Gipuzkoan egindakoa baino 1,2 aldiz handiagoa (43,46 euro azken horretan).

**Ezintasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan egiten den gastua, lurralde historikoen eta finantzazio-iturrien arabera. 2011**

| | | Udalak | Aldundiak | SAAD | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 0 | 14.215.125 | 1.777.277 | 15.992.402 |
| | Bizkaia | 16.847 | 37.737.942 | 6.580.032 | 44.334.821 |
| | Gipuzkoa | 0 | 26.560.203 | 4.278.811 | 30.839.014 |
| | EAE | 16.847 | 78.513.270 | 12.636.120 | 91.166.237 |
| Per capita gastua | Araba | 0,00 | 44,53 | 5,57 | 50,10 |
| | Bizkaia | 0,01 | 32,65 | 5,69 | 38,36 |
| | Gipuzkoa | 0,00 | 37,43 | 6,03 | 43,46 |
| | EAE | 0,01 | 35,94 | 5,78 | 41,73 |

## Eguneko laguntza-zentroak

Guztira, 28.761.585 euro behar izan dira ezintasunak dituzten pertsonentzako eguneko zentroak finantzatzeko; hau da, gizarte-zerbitzuetan egin den gastu osoaren % 1,8, eta ezintasunak dituzten pertsonen sektorean gastatu den diruaren % 10,5.

Gastuaren ikuspegitik ez da kontu-sail handia, eguneko arreta-zerbitzu horrek garrantzi handia duen arren interbentzio-sektore horretan. Adinekoen kasuan gertatzen den moduan, gastuari dagokionez gutxietsitako zerbitzu bat da, arreta asko egoitza-zerbitzuetan eta bestelako zentro motetan ematen delako, eta, beraz, oso zaila da eguneko arretako gastua banakatzea. Hala ere, ikusi behar da ezintasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan egindako gastua % 31,8koa dela adineko pertsonentzako zerbitzu guztien gastu osoarekiko, eta ezintasunak dituzten pertsonentzako eguneko zentroetan egindako gastua, berriz, zentro horietan adineko pertsonen esparruan egindako gastuaren % 86,5 izan dela.

Kasu honetan ere, foru-aldundiek finantzatzen dute zentro horien gastuaren zatirik handiena, gastu osoaren % 85,2. Bizkaiko udalek probintzia horretan dauden eguneko zentroek egindako gastuaren % 0,9 soilik ordaintzen dute. Zentro horien fakturaren % 14,4 ordaintzen du SAAD sistemak.

Egoitza-zerbitzuetan ez bezala, ezintasunak dituzten pertsonentzako eguneko zentroetan egiten den per capita gastua gainditzen dute Gipuzkoak eta Bizkaiak. Gipuzkoak egiten du gastu handiena, 15,44 euro pertsonako, eta haren atzetik Bizkaiak, 12,55 euro pertsonako. Gastu-maila hori Arabakoa baino 1,5 eta 1,2 aldiz handiagoa da (10,35 euro).

**Ezintasunak dituzten pertsonentzako eguneko zentroetan egiten den gastua, lurralde historikoen eta finantzazio-iturrien arabera. 2011**

| | | Udalak | Aldundiak | SAAD | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 0 | 2.936.359 | 367.124 | 3.303.483 |
| | Bizkaia | 125.037 | 12.240.128 | 2.134.203 | 14.499.368 |
| | Gipuzkoa | 0 | 9.316.595 | 1.642.138 | 10.958.733 |
| | EAE | 125.037 | 24.493.082 | 4.143.466 | 28.761.585 |
| Per capita gastua | Araba | 0,00 | 9,20 | 1,15 | 10,35 |
| | Bizkaia | 0,11 | 10,59 | 1,85 | 12,55 |
| | Gipuzkoa | 0,00 | 13,13 | 2,31 | 15,44 |
| | EAE | 0,06 | 11,21 | 1,90 | 13,17 |
| % horizontalak | Araba | 0,0 | 88,9 | 11,1 | 100,0 |
| | Bizkaia | 0,9 | 84,4 | 14,7 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 0,0 | 85,0 | 15,0 | 100,0 |
| | EAE | 0,4 | 85,2 | 14,4 | 100,0 |

Egoitza-zerbitzuek eta eguneko laguntza-zentroek gainjarri egiten dituzte laguntzak edo ematen duten arreta, eta, ondorioz, interesgarria da EAEko lurralde historikoek zentro horietan per capita egiten duten gastua alderatzea. Alderaketa hori eginda, ikusten da Araba eta Gipuzkoa gertu daudela per capita gastuan (60,45 eta 58,90 euro, hurrenez hurren), eta Bizkaia zertxobait beherago geratzen dela (50,91 euro per capita).

## Enplegu-zentro bereziak eta okupazio-zentroak.

Enplegu-zentro berezietan eta okupazio-zentroetan egiten diren gastuak aztertzeko, zentro-mota bakoitza modu berezituan aztertzea komeni da. Hala ere, bada kontabilitate bakarra daraman zentro mistorik ere, eta horrek zaildu egiten du bi zentro-mota horiek bereiztea. Ondorioz, gizarte-zerbitzuen arlo horren azterketa orokorra egin daiteke soil-soilik.

Zentro horietako gastua 63.864.822 eurokoa izan zen 2011n; gizarte-zerbitzuetan egiten den gastu publiko arruntaren % 4 eta ezintasunak dituzten pertsonen sektorean egiten den gastuaren % 23,3.

Zentro horien finantza-egitura aztertzen badugu Euskal Autonomia Erkidego osoan, ikusiko dugu Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duela haien gastuaren zati handi bat, % 67.9. Gastuaren zati handiena Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SPEE) ordaintzen zuen 2010. urtera arte. 2011. urtean, ordea, arlo horretako eskumenak transferitu zitzaizkion Lanbideri, eta, geroztik, Eusko Jaurlaritzak hartzen du bere gain zentro horien finantzazioaren zati handiena gastu publikoari dagokionez. Foru-aldundiek gastu osoaren % 31 finantzatzen dute, eta udalek gainerako % 1,1a.

Alde handiak topatzen dira, ordea, lurraldez lurralde aztertzen baditugu enplegu-zentro berezietan eta okupazio-zentroetan egindako gastuak. Araban nabarmentzen da, batik bat, alde handi hori; izan ere, gastuaren % 63,1 ordaintzen du Arabako Foru Aldundiak, eta Eusko Jaurlaritzak ordaintzen du gainerako % 36,9a. Eusko Jaurlaritzak egiten duen ekarpena, aldiz, normalean egiten duena baino handiagoa da Gipuzkoan eta Bizkaian, hark finantzatzen baitu enplegu-zentro berezien gastuaren % 76,7 eta % 76,2 hurrenez hurren.

Bizkaiko zenbait udalek finantzazio-ekintzetan parte hartzen dute, eta lurralde historiko horretako gastuaren % 3 hartzen dute beren gain. Egoera hori, ordea, salbuespenezkoa da, horiek baitira EAEko udal bakarrak baliabide horiek finantzatzen dituztenak (Gipuzkoan bada, hala ere, finantzazio-jarduera puntualen bat udalen aldetik).

**Gastua okupazio-zentro eta enplegu-zentroetan, lurraldeen eta finantziazio-iturrien arabera. 2011**

| | | Udalak | Aldundiak | Eusko Jaurlaritza | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 0 | 8.720.416 | 5.099.816 | 13.820.232 |
| | Bizkaia | 690.200 | 4.779.889 | 17.485.765 | 22.955.854 |
| | Gipuzkoa | 35.225 | 6.269.167 | 20.784.344 | 27.088.736 |
| | EAE | 725.425 | 19.769.472 | 43.369.925 | 63.864.822 |
| Per capita gastua | Araba | 0,00 | 27,32 | 15,98 | 43,29 |
| | Bizkaia | 0,60 | 4,14 | 15,13 | 19,86 |
| | Gipuzkoa | 0,05 | 8,83 | 29,29 | 38,17 |
| | EAE | 0,33 | 9,05 | 19,85 | 29,23 |
| % horizontalak | Araba | 0,0 | 63,1 | 36,9 | 100,0 |
| | Bizkaia | 3,0 | 20,8 | 76,2 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 0,1 | 23,1 | 76,7 | 100,0 |
| | EAE | 1,1 | 31,0 | 67,9 | 100,0 |

Arabak egiten du per capita gastu handiena sektorean. Arabak 43,29 euro gastatzen ditu pertsonako, zertxobait gutxiago Gipuzkoak (38,17 euro) eta nabarmen gutxiago Bizkaiak (19,86 euro per capita).

Araban argi ikusten da Foru Aldundiak finantza-ekarpen handia egiten duela (27,32 euro pertsonako herrialde horretan, 8,83 euro Gipuzkoan eta 4,14 euro Bizkaian); bestalde, Lanbidek ekarpen

nabarmen handiagoak egiten ditu Gipuzkoan (29,29 euro gastatzen ditu pertsonako probintzia horretan eta 15 eta 16 euro bitartean pertsonako Araban eta Bizkaian).

Datu horiek adierazten dute arreta-ikuspegia aldatu egiten dela probintziatik probintziara; hala, zentro publikoen sare handia dago Araban, baina sektore publikoaren interbentzioa nahiko txikia da beste bi probintzietan. Gipuzkoako zentroek beste bi probintzietako zentroek baino enpresa-gaitasun handiagoa dute, eta, ondorioz, Bizkaiko zentroekin alderatuta, sektoreko enpresei laguntzeko politiketatik eratorriko baliabide gehiago jasotzen dituzte Lanbidetik probintzia horretako zentroek.

## 2.3. Familia, haurrak eta gazteak

Familien, haurren eta gazteen sektorean 192.832.962 euro gastatu dira 2011. urtean, guztizko gastu publiko arruntaren % 11,9. Hauek dira sektore horretako gastu-alorrak:

- Egoitza-zerbitzuak finantzatzeko erabili dira 65.805.139 euro, hots, sektoreko gastuaren % 34,1 eta gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren % 4,1.

- Familia-arloko sustapenean, promozioan eta interbentzioan erabili dira 40.739.840 euro; hau da, sektorean egindako gastuaren % 21,2 eta gizarte-zerbitzuetan egindako gastuaren % 2,5. Funtsean, udalek kudeatzen dituzte programa horiek (kaleko hezitzaileak eta familiako esku-hartzea, oro har).

- Lana eta familia-bizitza bateratzeko programaren finantziazioa. Eusko Jaurlaritzaren Familia Zuzendaritzak kudeatzen du programa hori. Guztira, 32.969.553 euro baliatzen dira programa hori egiteko, sektorean egiten den gastuaren % 17,1 eta gizarte-zerbitzuetan guztira egindako gastuaren % 2.

- Azkenik, “Familiei laguntzeko erakunde arteko Planean” jasotako prestazioak nabarmendu behar dira, seme-alaben jaiotzagatik ematen direnak. Laguntza horiek 29.526.800 euroko zenbatekoa osatu zuten 2011n, sektorean egindako gastu osoaren % 15,3 eta gizarte-zerbitzuetan egindako gastu osoaren % 1,8.

**Familia, haur eta gazteen sektoreko gastua. 2011**

| | Gastua, guztira | % Bertikalak | € per capita |
|---|---|---|---|
| Lantalde Teknikoa | 14.932.389 | 7,7 | 6,84 |
| Egoitza-zerbitzuak | 65.805.139 | 34,1 | 30,12 |
| Seme-alabengatiko laguntza ekonomikoak | 29.526.800 | 15,3 | 13,52 |
| Lana eta familia-bizitza bateratzea | 32.969.553 | 17,1 | 15,09 |
| Familia-interbentzioa | 31.352.290 | 16,3 | 14,35 |
| Promozioa eta prebentzioa | 9.387.550 | 4,9 | 4,30 |
| Bestelako diru-laguntzak | 4.364.811 | 2,3 | 2,00 |
| Harrera eta adopzioa | 4.494.430 | 2,3 | 2,06 |
| Guztira | 192.832.962 | 100,0 | 88,27 |

Gizarte-zerbitzuek artatutako sektore honetan ere aldeak ikusten dira probintziatik probintziara per capita egindako gastuan. Izan ere, Araban egiten da gastu handiena (105,69 euro per capita), eta haren atzetik datoz Gipuzkoa (94,20 euro), eta, nabarmen atzerago, Bizkaia (79,81 euro).

**Familia, haur eta gazteen sektoreko gastua lurralde historikoaren eta finantziazio-iturriaren arabera. 2011**

| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Udalak | 8.011.967 | 12.827.303 | 4.499.711 | 25.338.981 |
| | Aldundiak | 12.627.287 | 47.050.027 | 39.714.194 | 99.391.508 |
| | Eusko Jaurlaritza | 13.101.434 | 32.369.804 | 22.631.235 | 68.102.473 |
| | Guztira | 33.740.688 | 92.247.134 | 66.845.140 | 192.832.962 |
| Per capita gastua | Udalak | 25,10 | 11,10 | 6,34 | 11,60 |
| | Aldundiak | 39,56 | 40,71 | 55,97 | 45,50 |
| | Eusko Jaurlaritza | 41,04 | 28,01 | 31,89 | 31,17 |
| | Guztira | 105,69 | 79,81 | 94,20 | 88,27 |
| % Bertikalak | Udalak | 23,7 | 13,9 | 6,7 | 13,1 |
| | Aldundiak | 37,4 | 51,0 | 59,4 | 51,5 |
| | Eusko Jaurlaritza | 38,8 | 35,1 | 33,9 | 35,3 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Familia, haur eta gazteen sektorea finantzatzeko erabiltzen da foru-aldundiek gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastuaren % 13. Aldundien ekarpen hori sektorearen finantzazio beharren % 51,5 da. Eusko Jaurlaritzak ordaintzen du sektore-gastuaren % 35,3, eta erakunde horrek gizarte-zerbitzuetara bideratzen duen diru guztiaren % 11,9 bideratzen du familia, haur eta gazteen sektorera. Udalek egiten dute finantzazio-proportzio orekatuena, sektore horretara bideratzen baitute gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastuaren % 12,7, eta sektore horrek egindako gastuaren % 13,1 finantzatzen dute.

## Egoitza-zerbitzuak

Bi arrazoi hauek izaten dituzte herri-administrazioek adingabeko haurrak beren familietatik bereizteko: adingabea egoera babesgabe batean izatea, bere familiak ez diolako gutxieneko laguntza moral eta materialik ematen; eta adingabeak Zigor Kodean delitu gisa tipifikatutako ekintza bat egin ostean, hura erregimen itxiko zentro batean sartzeko erabaki judiziala jasotzea.

Zenbait kasutan, udalek parte har dezakete kasuen kudeaketan eta finantzaketan, baina, lehen kasuan, foru-aldundiak arduratzen dira adingabekoak laguntzeaz eta laguntza hori zertzeko finantzazio-neurriak hartzen dituzte, bai familia-harreraren bidez, bai adingabekoak zentroetan sartuz. Adierazitako bi neurri horiek egoitza-zerbitzuen atalean aztertzen dira txosten honetan. Bigarren kasuan, lege-urraketak egiten dituzten adingabekoen kasuan, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak hartzen du bere gain epaileak agindutako barneratze-neurrien gastua. Dimentsio hori azterlanetik kanpo geratu da, argi eta garbi bilduta baitago justiziaren jardun-eremuan. Hori dela-eta, atal honetan, adingabeentzako

egoitza-zerbitzuak aztertzean, familiaren babesik ez duten adingabeen kasuak bakarrik aztertuko ditugu, baina, berariaz, justiziarekin arazorik ez duten adingabeenak.

Aurrez adierazi dugun moduan, adingabekoei ematen zaizkien egoitza-zerbitzuen gastu publiko osoa 65.805.139 eurokoa da, familien, haurren eta gazteen sektorean egiten den gastuaren % 34,1, eta Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuetan egiten den gastu osoaren % 4,1. Gastu handia da hori, biztanleria osorako sektorean egiten den gastua baino handiagoa.

Foru-aldundiek finantzatzen dituzte, ia osorik, jardun-sektore horretako gastu guztiak, gastu osoaren % 97,1 ordaintzen baitute. Hala ere, praktikan, Arabako adingabeak artatzeko historiak baldintzatu egiten du egoitza-zerbitzu horien finantza-egitura. Izan ere, foru-aldundiek osorik finantzatzen dituzte zerbitzu horiek Bizkaian eta Gipuzkoan, baina Araban, Gasteizko Udalak Arabako Foru Aldundiarekin konpartitzen du adingabekoentzako zentroen finantzazioa, gastuaren % 19,9 ordaintzen baitu.

Gipuzkoan egiten da per capita gasturik handiena haur eta gazteentzako egoitza zerbitzuetan, 34,74 euroko gastuarekin. Araba dator haren atzetik, 29,30 eurorekin pertsonako, eta nahiko gertu du Bizkaia, 27,51 eurorekin.

**Haur eta gazteen egoitza-zerbitzuetako gastua lurralde historikoen eta finantziazio-iturrien arabera. 2011**

| | | Udalak | Aldundiak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 1.859.102 | 7.492.707 | 9.351.809 |
| | Bizkaia | 32.275 | 31.766.924 | 31.799.199 |
| | Gipuzkoa | 0 | 24.654.131 | 24.654.131 |
| | EAE | 1.891.377 | 63.913.762 | 65.805.139 |
| Per capita gastua | Araba | 5,82 | 23,47 | 29,30 |
| | Bizkaia | 0,03 | 27,49 | 27,51 |
| | Gipuzkoa | 0,00 | 34,74 | 34,74 |
| | EAE | 0,87 | 29,26 | 30,12 |
| % horizontalak | Araba | 19,9 | 80,1 | 100,0 |
| | Bizkaia | 0,1 | 99,9 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 0,0 | 100,0 | 100,0 |
| | EAE | 2,9 | 97,1 | 100,0 |

## Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Plana.

Familiei laguntzeko erakunde-arteko plana 2002. urtean sortu zen, eta indartzen joan da geroztik. Planeko jarduerak betetzeko, hau da, bateratze-neurriak hartu eta seme-alabengatiko laguntza ekonomiak emateko, 62.496.353 euro gastatu dira 2011n; hau da, sektorearen egiten den gastuaren % 32,4 eta gizarte-zerbitzuetan egiten den orotariko gastuaren % 3,9.

Programaren zati handi bat, % 52,8, lana eta familia-bizitza bateratzeko neurriak aurrera eramateko baliatzen da, eta gainerako % 47,2a seme-alaben jaiotzarengatiko eta 3 urtetik beherako haurrengatiko prestazio ekonomikoak ordaintzeko erabiltzen da.

Gastu hori, kontzeptu arruntetan, % 6,3 igo da 2010 eta 2011 urteen bitartean. Igoera hori lana eta familia-bizitza bateratzeko Programari dagokio soil-soilik; izan ere, programa horren gastua % 22,9 igo da eta seme-alabengatiko prestazioek, berriz, % 7,6 egin dute behera.

Izatez, programa oso orokorrak dira eta zaila da diferentzia handiak erakustea lurraldetik lurraldera, baina, per capita zenbatekoei erreparatuz gero, ikus daiteke alde adierazgarririk. Hori horrela, gastua Gipuzkoan, eta, batik bat, Bizkaian baino nabarmen handiagoa da Araban. Joera hori bera ikusten da, baita ere, seme-alabengatiko laguntza ekonomikoetan (15,55 euro per capita Araban, 13,90 euro Gipuzkoan eta 12,72 euro Bizkaian). Hala ere, lana eta familia-bizitza bateratzeko laguntzetan dira handienak probintziatik probintziarako aldeak. Arabak 22,99 euroko gastua egiten du buruko, Gipuzkoan gastatzen diren 15,55 euroak baino 1,5 aldiz gehiago eta Bizkaiko 12,63 euroak baino 1,8 aldiz gehiago.

**Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Planaren gastua lurralde historikoen arabera. 2011**

| | | Lana eta familia uztartzea | Seme-alabengatiko laguntza ekonomikoak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 7.338.350 | 4.964.300 | 12.302.650 |
| | Bizkaia | 14.599.748 | 14.698.200 | 29.297.948 |
| | Gipuzkoa | 11.031.454 | 9.864.300 | 20.895.754 |
| | EAE | 32.969.553 | 29.526.800 | 62.496.353 |
| Per capita gastua | Araba | 22,99 | 15,55 | 38,54 |
| | Bizkaia | 12,63 | 12,72 | 25,35 |
| | Gipuzkoa | 15,55 | 13,90 | 29,45 |
| | EAE | 15,09 | 13,52 | 28,61 |
| % horizontalak | Araba | 59,6 | 40,4 | 100,0 |
| | Bizkaia | 49,8 | 50,2 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 52,8 | 47,2 | 100,0 |
| | EAE | 52,8 | 47,2 | 100,0 |

## 2.4. Gizarte-bazterketa

Gizarte-bazterketaren sektorean 519.023.516 euro gastatu dira 2011. urtean, gizarte-zerbitzuetan egiten den gastu publiko arruntaren % 32,1. Sektoreak gero eta leku handiagoa du gizarte-zerbitzu eta -prestazioen alorrean, eta adineko pertsonentzako sektorearen dimentsiora gerturatzen ari da. Baina gastua zer programa eta zerbitzutan egiten den aztertu behar da, egoera horren berri zehatza izateko. Gastu-modalitateen kontzentrazio handia da horren arrazoia, Bazterketaren aurka borrokatzeko planaren prestazioek (DBE, EPO eta gizarte-larrialdiko laguntzak) sektore horretako gastuaren % 79 osatzen baitute. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak hartzen du, berak bakarrik, gastu horren % 63,1.

### Gizarte-prestazioak

Orotara, gizarte-zerbitzuetan egiten den gastu osoaren % 25,4 baliatzen da DBE, EPO eta GLL prestazioak ordaintzeko, eta proportzio horrek nabarmen gainditzen du ezintasunen pertsonen sektoreko gastua (% 17) eta adinentzako pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan edo eguneko zentroetan eta etxeko laguntzako gastu-ehunekoa (% 24,6). Gizarte-zerbitzu eta -prestazioen artean, DBE/EPO sisteman egiten da gastu handiena, % 24,3, eta % 1,1 gastatzen da gizarte-larrialdietarako laguntzetan.

Finantzazioari erreparatuta, Eusko Jaurlaritzak ordaintzen du haien % 99,6, eta beste erakunde batzuek ordaintzen dute gainerako % 0,4a.

Per capita gastuaren datuek argi erakusten dute DEB/EPO prestazioen multzoa dela gastu-joera orokorrak hausten dituen gizarte-programetako bat; gainera, kontuan izan behar da haien ezarpenak alde adierazgarriak erakusten dituela lurraldetik lurraldera. Alde horretatik, pertsona bakoitzeko gastuari erreparatuta, Bizkaia da gehien nabarmentzen den probintzia, 237,58 euroko zenbatekoarekin. Kopuru hori Arabako 171,86 euroak baino 1,4 aldiz handiagoa da eta Gipuzkoako 88,06 euroak baino 2,7 aldiz handiagoa. Bizkaian gastatzen da DEB/EPO gastuaren % 70,1.

Alde horien eragile nagusia Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta da, hari dagokion per capita gastua Araban baino 1,5 handiagoa eta Gipuzkoan baino 2,8 handiagoa baita Bizkaian. EPO prestazioari dagokionez, antzeko per capita gastua egiten dute Bizkaiak eta Arabak (35,42 eta 36,33 euro, hurrenez hurren), eta nabarmen gastu txikiagoa egiten du Gipuzkoak (17 euro pertsona bakoitzeko).

**Aldizkako prestazioetan egindako gastua: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitza Prestazio Osagarria, lurralde historikoaren eta finantzazio-iturriaren arabera. 2011**

| | | Diru-sarrerak bermatzeko errenta | Etxebizitza-prestazio osagarria | Aldizkako prestazioak, guztira |
|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 43.265.677 | 11.597.257 | 54.862.934 |
| | Bizkaia | 233.653.453 | 40.934.509 | 274.587.962 |
| | Gipuzkoa | 50.424.791 | 12.064.444 | 62.489.235 |
| | EAE | 327.343.921 | 64.596.210 | 391.940.131 |
| Per capita gastua | Araba | 135,53 | 36,33 | 171,86 |
| | Bizkaia | 202,16 | 35,42 | 237,58 |
| | Gipuzkoa | 71,06 | 17,00 | 88,06 |
| | EAE | 149,84 | 29,57 | 179,41 |
| % bertikalak | Araba | 13,2 | 18,0 | 14,0 |
| | Bizkaia | 71,4 | 63,4 | 70,1 |
| | Gipuzkoa | 15,4 | 18,7 | 15,9 |
| | EAE | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| % horizontalak | Araba | 78,9 | 21,1 | 100,0 |
| | Bizkaia | 85,1 | 14,9 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 80,7 | 19,3 | 100,0 |
| | EAE | 83,5 | 16,5 | 100,0 |

Gizarte-larrialdietako laguntzen programak ez du DBE/EPO sistemak erakusten dituen adinako alderik adierazten, baina programa horretan egiten den gastuaren % 58,7 gastatzen da Bizkaian. Bizkaia da berriro ere, 9,23 euroko per capita gastuarekin, gastu handiena egiten duena pertsona bakoitzeko, baina zenbateko hori ez dago Arabako 7,84 euroetatik eta Gipuzkoako 7,06 euroetatik oso aparte.

Gizarte-larrialdietako sistemaren % 92,4 finantzatzen du Eusko Jaurlaritzak eta % 7,6 EAEko udalek. Udalek gizarte-larrialdietako laguntzak finantzatzeko egiten duten ekarpen urriaren adierazleetako bat da 0,63 euroko gastua egiten dutela pertsona bakoitzeko. Gipuzkoako udalerriek egiten dute ekarpen handiena (0,92 euro per capita). Bizkaiko udalek 0,61 euro gastatzen dituzte pertsona bakoitzeko eta Arabako udalerriek askoz ere gutxiago oraindik, EAEko batez bestekotik behera (0,08 euro pertsonako). Ehunekoei erreparatzen badiegu, Gipuzkoan soilik ordaintzen dute udalek GLL prestazioan egiten den gastu osoaren % 10 baino gehiago (% 13 hain zuzen), Bizkaiko udalek % 6,6 ordaintzen dute, eta % 1 Arabakoek.

**GLLen gastua lurralde historikoen eta finantziazio-iturrien arabera. 2011**

| | | Udalak | Eusko Jaurlaritza | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 26.140 | 2.476.790 | 2.502.930 |
| | Bizkaia | 705.500 | 9.959.406 | 10.664.906 |
| | Gipuzkoa | 653.096 | 4.353.588 | 5.006.684 |
| | EAE | 1.384.736 | 16.789.784 | 18.174.520 |
| Per capita gastua | Araba | 0,08 | 7,76 | 7,84 |
| | Bizkaia | 0,61 | 8,62 | 9,23 |
| | Gipuzkoa | 0,92 | 6,14 | 7,06 |
| | EAE | 0,63 | 7,69 | 8,32 |
| % horizontalak | Araba | 1,0 | 99,0 | 100,0 |
| | Bizkaia | 6,6 | 93,4 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 13,0 | 87,0 | 100,0 |
| | EAE | 7,6 | 92,4 | 100,0 |

Udalek eta foru-aldundiek osatu egiten dute Gizarte Larrialdietarako Laguntzen estaldura, baina ez da erakunde horiek osatzen duten prestazio bakarra. Izan ere, erakunde horiek beste jarduera-eremu batzuek dituzte gizarte-bazterketa prebenitzeko sektorean. Udalek eta foru-aldundiek diru-laguntzetara gastu-politika nabarmenak dituzte, Eusko Jaurlaritzako prestazio-programei lotu gabeak.

Ildo horretan, gizarte-zerbitzuek kudeatzen dituzten aldiroko zuzenbide-prestazio ekonomikoak alde batera utzita (KGP, GOF, MGL alde batetik, eta DBE/EPO/GLL bestetik), laguntza ekonomiko indibidualen sorta handia dago Euskal Autonomia Ekonomikoan. Foru-aldundiek eta udalek finantzatzen dituzte laguntza ekonomiko orokor eta grazia bidezko horiek, modu puntualean ematen direnak. Eskatzaileak diru-sarrera txikiak izan beharrak baldintzatzen du laguntza horiek guztiak emateko aukera, horietako zenbait biztanleriaren sektore jakinen premia bereziei erantzuteko diseinatuta badaude ere.

Orotara, 15.255.665 euro eman dira 2011. urtean laguntza horien bidez, gizarte-laguntzetan egindako gastu osoaren % 0,9 eta gizarte-bazterketaren sektorean egindako gastuaren % 2,9. Ehunekoa oso esanguratsua ez bada ere, adierazgarria da termino kuantitatiboetan, udalek eta foru-aldundiek baliabiderik gabeko biztanleriaren premiak osatzeko eginiko ahalegin bereziaren erakusgarri baita. Toki-erakunde horiek egiten duten ahalegina GLL programan egiten den gastutik gertu dago, gizarte-zerbitzuetan egiten den gastu osoaren 1,1% eta sektoreko gastuaren % 3,5 baita.

Foru-aldundiek egiten dute finantza-ekarpen handiena, gastuaren % 60,5, eta udalek, berriz, % 39,5. Adierazgarria da udalek egindako finantza-ekarpena; izan ere, programa horietan gastatzen dute udalek gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastu osoaren % 3. Foru-aldundiek, berriz, zerbitzu horietan egiten duten gastuaren % 1,2 bideratzen dute programa horietara.

**Gizarte-bazterketa prebenitzeko bestelako prestazio ekonomikoetan egindako gastua, lurralde historikoen eta finantzazio-iturrien arabera. 2011**

| | | Udalak | Aldundiak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 2.712.111 | 425.127 | 3.137.238 |
| | Bizkaia | 1.701.600 | 2.320.872 | 4.022.472 |
| | Gipuzkoa | 1.619.705 | 6.476.250 | 8.095.955 |
| | EAE | 6.033.416 | 9.222.249 | 15.255.665 |
| Per capita gastua | Araba | 8,50 | 1,33 | 9,83 |
| | Bizkaia | 1,47 | 2,01 | 3,48 |
| | Gipuzkoa | 2,28 | 9,13 | 11,41 |
| | EAE | 2,76 | 4,22 | 6,98 |
| % horizontalak | Araba | 86,4 | 13,6 | 100,0 |
| | Bizkaia | 42,3 | 57,7 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 20,0 | 80,0 | 100,0 |
| | EAE | 39,5 | 60,5 | 100,0 |
| % Bertikalak | Araba | 45,0 | 4,6 | 20,6 |
| | Bizkaia | 28,2 | 25,2 | 26,4 |
| | Gipuzkoa | 26,8 | 70,2 | 53,1 |
| | EAE | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Per capita gastua aztertuz gero, bi ekarpen-eremu nabarmen hautematen dira prestazio-programa horietan. Lehen eremua Arabako udalek konparazioz egiten duten ahalegin handiagoa da, eta, berariaz, Gasteizko Udalak egiten duen finantza-ekarpena. Hori horrela, Araban 8,50 euroko per capita gastua egiten da, eta zenbateko hori Gipuzkoak eta Bizkaiko udalek egindako ekarpen-zenbatekoa baino handiagoa da, probintzia horiek 2,28 eta 1,47 jartzen baitituzte, hurrenez hurren.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera da nabarmendu beharreko bigarren interbentzio-eremua. Probintzia horretako aldundiak egiten du gasturik handiena (9,13 euro per capita), Bizkaiko aldundiak egiten duena baino 4,5 aldiz handiagoa eta Arabako aldundiak egindakoa baino 6,9 aldiz handiagoa.

Finantzazio-egoeraren arrazoiak azaltzen dituzte bi jarduera horiek. Alde batetik, jarduera horiek azaltzen dute zergatik egiten den per capita gastu handiagoa jarduera-mota horietan Gipuzkoan eta Araban (11,41 eta 9,83, hurrenez hurren, eta 3,48 Bizkaian). Bestalde, EAEko erkidegotik beherako administrazio-mailetan kudeatzen diren prestazioen gastuen nolakoak argitzen dituzte jarduerok. Izan ere, udalek eta foru-aldundiek prestazio ekonomikoetan egindako gastua (4.022.472 euro) baino gehiago gastatzen da Bizkaian Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan (10.664.906 euro). Kontrakoa gertatzen da Araban, (3.137.238 euro gastatzen dira prestazio osagarrietan eta 2.502.930 euro Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan) eta, batez ere, Gipuzkoan (8.095.955 eta 5.006.684 euro).

Aztertutako laguntza gehienak autonomia-erkidegoko sistemari dagozkion DBE/EPO/GLL prestazioak osatzeko ematen diren arren, ez dute guztiek lotura zuzen bat gizarte-bazterketaren sektorearekin. Sektore eta laguntza-mota horretara bideratzen da aztertutako gastuaren % 62,5, eta laguntza horien % 28,6 bideratzen da familien, haurren eta gazteen sektorera. Laguntza horien % 91,1 jasotzen dute bi sektore horiek.

Gastua, dena den, desberdin bideratzen da erakundearen arabera. Udalek gizarte-bazterketarako bideratzen duten gastuaren % 70,5 eta % 22,8 familia, haur eta gazteen sektorera. Foru-aldundiek, berriz, ekarpen-banaketa orekatuagoa dute sektoreka: % 57,3 bideratzen dute gizarte-bazterketaren sektorera, % 32,4 familiaren, haurren eta gazteen sektorera eta % 10,3 ezintasunak dituzten pertsonen sektorera.

**Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Planetik kanpoko prestazio ekonomikoen gastua, arreta-sektorearen eta finantza-iturrien arabera. 2011**

| | | udaletxea | Aldundia | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Adineko pertsonak | 97.823 | 0 | 97.823 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 262.317 | 948.488 | 1.210.805 |
| | F., Haurrak eta Gazteak | 1.376.105 | 2.988.706 | 4.364.811 |
| | Emakumea | 42.781 | 0 | 42.781 |
| | Gizarte-bazterketa | 4.254.390 | 5.285.055 | 9.539.445 |
| | Guztira | 6.033.416 | 9.222.249 | 15.255.665 |
| % bertikalak | Adineko pertsonak | 1,6 | 0,0 | 0,6 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 4,3 | 10,3 | 7,9 |
| | F., Haurrak eta Gazteak | 22,8 | 32,4 | 28,6 |
| | Emakumea | 0,7 | 0,0 | 0,3 |
| | Gizarte-bazterketa | 70,5 | 57,3 | 62,5 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| % horizontalak | Adineko pertsonak | 100,0 | 0,0 | 100,0 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 21,7 | 78,3 | 100,0 |
| | F., Haurrak eta Gazteak | 31,5 | 68,5 | 100,0 |
| | Emakumea | 100,0 | 0,0 | 100,0 |
| | Gizarte-bazterketa | 44,6 | 55,4 | 100,0 |
| | Guztira | 39,5 | 60,5 | 100,0 |

## Gizarteratzeko eta laneratzeko ekintzak

EAEko herri-administrazioek egiten dituzten gizarteratze-programak aztertzen dira azterlan honetan, eta honela sailka daitezke haiek xede edo helburutzat duten biztanleria-sektorearen arabera:

- Gaixotasunak eta ezintasunak dituzten pertsonen sektorean, ezaugarri horiek dituzten pertsonekin lan egiten duten erakundeei zuzentzen zaizkien gizarteratze- eta laneratze-programak barne hartzen dira.

- ➔ Familia, haur eta gazteen sektorean, guraso bakarreko familientzako gizarteratze- eta laneratze-programak biltzen dira.

- ➔ Emakumearen jardun-sektorean, laneratzeko zailtasunak dituzten emakumeak eta genero-indarkeria pairatu duten laneratzeko programak aztertzen dira funtsean.

- ➔ Gizarte-bazterketaren sektorean, talde marjinatuak eta/edo prestazio ekonomikoen onuradunak xede dituzten programak aztertzen dira, bai eta laneratzeko zailtasun handiena dute kolektibo bereziei zuzendutako prestakuntza- eta enplegu-programak. Orobat, sektore horretan sartzen dira etorkinen nahiz presoen eta preso ohien laneratzea finantzatzeko programak, droga-mendetasuna duten pertsonak sendatu eta gizarteratzeko elkarteen jarduerak finantzatzeko programak, eta droga-mendeko ohien lan-kontratatziorako programak.

Gizarte-eremuan eta lan-eremuan egiten diren jarduera horietan 69.030.475 euro gastatu dira 2011. urtean, gizarte-zerbitzuetan egin den gastu osoaren % 4,3. Foru-aldundiek hartzen dute beren gain gastu-zatirik handiena (% 57,4), eta haren atzetik datoz Eusko Jaurlaritza, % 31,9rekin, eta udalak, % 10,5ekin. Europako gizarte-funtsek jartzen dute gainerako % 0,2, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen programen osagarri.

Bizkaiak eta Arabak jartzen dute diru gehien biztanleko, 34,31 eta 34,02 euro hurrenez hurren. Gastu apalagoa egiten da Gipuzkoan (26,09 euro per capita).

Udalek egiten duten ekarpen handiagatik da handiagoa Araban per capita gastua, eta, bereziki, Gasteizko Udalak egiten duen ekarpenarengatik. Udal horrek finantzatzen ditu Arabako gizarteratze- eta laneratze-programen herena. Udalek finantzatutako ehunekoak nabarmen apalagoak dira Bizkaian (% 6,9) eta Gipuzkoan (% 4,4) baino. Udalek diru gehiago gastatzen duten laneratze- eta gizarteratze-programetan Arabako Foru Aldundiak baino, % 34,5 gastatzen baitute haiek eta % 29,1 azken horrek.

Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, laneratzeko eta gizarteratzeko programen gastuaren % 60 baino gehiago finantzatzen dute foru-aldundiek (% 62,6 eta % 62,7), eta per capita egiten duten ekarpena nabarmen handiagoa da Arabako Foru Aldundiak egindakoa baino (21,47 eta 16,36 euro Bizkaian eta Gipuzkoan, eta 9,91 euro Araban). Arabako per capita gastuaren mailara gerturatzen da Bizkaia, lurralde horretako foru-aldundiak egiten duen ekarpenaren ondorioz.

Eusko Jaurlaritzak partaidetza orekatua du hiru probintzietan, Arabako gastu osoaren % 36,3, Bizkaiko gastuaren % 30,6 eta Gipuzkoakoaren % 32,2 finantzatzen baitu.

**Gizarteratze- eta laneratze-jardueren gastua, lurralde historikoen eta finantziazio-iturrien arabera 2011**

| | | Udalak | Aldundiak | Eusko Jaurlaritza | Europako GF | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 3.750.502 | 3.163.918 | 3.945.477 | 0 | 10.859.897 |
| | Bizkaia | 2.722.585 | 24.815.541 | 12.117.205 | 0 | 39.655.331 |
| | Gipuzkoa | 807.685 | 11.612.550 | 5.956.612 | 138.400 | 18.515.247 |
| | EAE | 7.280.772 | 39.592.009 | 22.019.294 | 138.400 | 69.030.475 |
| Per capita gastua | Araba | 11,75 | 9,91 | 12,36 | 0,00 | 34,02 |
| | Bizkaia | 2,36 | 21,47 | 10,48 | 0,00 | 34,31 |
| | Gipuzkoa | 1,14 | 16,36 | 8,39 | 0,20 | 26,09 |
| | EAE | 3,33 | 18,12 | 10,08 | 0,06 | 31,60 |
| % horizontalak | Araba | 34,5 | 29,1 | 36,3 | 0,0 | 100,0 |
| | Bizkaia | 6,9 | 62,6 | 30,6 | 0,0 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 4,4 | 62,7 | 32,2 | 0,7 | 100,0 |
| | EAE | 10,5 | 57,4 | 31,9 | 0,2 | 100,0 |

Gizarteratzeko eta laneratzeko ekintza ia guztiak, % 99,4, gizarte-bazterketaren sektorean egin dira, eta gainerako % 0,6a soilik gastatu da ezintasunak dituzten pertsonen sektorean.

**Gizarteratze- eta laneratze-jardueretako gastua lurralde historikoaren eta arreta-sektorearen arabera. 2011**

| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Ezintasunak dituzten pertsonak | 276.034 | 0 | 103.998 | 380.032 |
| | Familia, haurrak eta gazteak | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | Gizarte-bazterketa | 10.583.863 | 39.655.331 | 18.411.249 | 68.650.443 |
| | Guztira | 10.859.897 | 39.655.331 | 18.515.247 | 69.030.475 |
| Per capita gastua | Ezintasunak dituzten pertsonak | 0,86 | 0,00 | 0,15 | 0,17 |
| | Familia, haurrak eta gazteak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| | Gizarte-bazterketa | 33,15 | 34,31 | 25,95 | 31,42 |
| | Guztira | 34,02 | 34,31 | 26,09 | 31,60 |
| % Bertikalak | Ezintasunak dituzten pertsonak | 2,5 | 0,0 | 0,6 | 0,6 |
| | Familia, haurrak eta gazteak | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| | Gizarte-bazterketa | 97,5 | 100,0 | 99,4 | 99,4 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

## 2.5.- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta laguntzako lantalde teknikoak

Funtsean, bi zerbitzu-egitura baliatzen dira Euskadin gizarte-zerbitzuen kudeaketa orokorra egiteko. Oinarrizko gizarte-zerbitzuen egitura da lehen egitura, eta udalen eta foru-aldundien gizarte-ongizateko sailetako laguntza-teknikariek eta teknikari buruek osatzen dute bigarrena. Biztanleria Guztia deritzon sektorearen ardatza dira egitura horiek.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuek osatzen dute gizarte-zerbitzuen sektoreak ematen duen arretaren lehen mailako sarea, eta aniztasun handiko errealitatea baino zerbait gehiago da gaur egun. Errealitate heterogeneoa dela esan daiteke. Udal bakoitzak, bere eskumenen barruan, eta EAEn indarrean dagoen legedi orokorraren gutxieneko arau-ezarpenetatik abiatuta, egoki iritzitako moduan garatu, egituratu eta antolatzen ditu zerbitzu horiek.

Oro har, esan daiteke udalerri txiki guziek dutela gutxienez astean ordu batzuetan jendearentzako irekita dagoen oinarrizko unitate bat, eta udalerri handiagoetan departamentutan antolatzen direla, zenbait kasutan atal espezializatuekin, eta bertatik koordinatzen da auzoetan banaturiko zenbait oinarrizko unitateren jarduna.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta lantalde teknikoak mantentzeko guztizko gastua 123.752.222 eurora iristen da, gizarte-zerbitzuetako gastu publiko arruntaren % 7,7.

Foru-aldundiei dagokie, neurri handi batean, azpiegitura horri eustea, haiek finantzatzen baitituzte gastu handiko sektoreetako lantalde tekniko espezializatuak. Horren adibide dira adinekoen sektorea, ezintasunak dituzten pertsonen sektorea, gizarte-bazterketarena eta haurren sektorea. Eusko Jaurlaritzaren ekarpena gero eta handiagoa da Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Planaren programak finkatu egin direlako, eta, berariaz, oinarrizko gizarte-zerbitzuen indartze-programa irmotu egin delako.

Datu zehatzetara joz, foru-erakundeek finantzatzen dute Biztanleria Guztia sektoreko gastuaren % 47, eta udalek gastuaren % 44,3 ordaintzen dute. Eusko Jaurlaritzak ordaintzen du gainerako % 8,7a. Datu erlatiboek esaten digute udalek ahalegin handia egiten dutela sektore horretan, udalek sektore horretan egiten baitute beren gizarte-gastuaren % 27,5. Foru-aldundiek beren gizarte-gastuaren % 7,6 gastatzen dute sektore horretan.

Azter-eremu honetan, nabarmena da udalek Araban eta Gipuzkoan duten partaidetza handia, sektorean egiten den gastuaren erdia inguru finantzatzen baitute, foru-aldundien ekarpena gaindituz. Gailentasun hori, Arabaren kasuan, Gasteizko Udalera mugatzen da ia-ia. Bi probintzia horietan ez bezala, Bizkaiko Foru Aldundiak probintzia horretako udalek baino ekarpen handiagoa egiten du, sektoreko gastuaren % 51,9 finantzatzen baitu. Araba eta Gipuzkoa % 41 eta % 42 finantzatzen dute, hurrenez hurren.

Beste sektore askotan bezala, Arabak nabarmen gainditzen du gainerako lurraldeen gastu-maila, pertsona bakoitzeko 68,96 euroko per capita gastuarekin, 1,2 aldiz handiagoa Bizkaian izandako gastua baino eta 1,4 aldiz handiagoa Gipuzkoan izandakoa baino (56,92 euro eta 50,67 euro, hurrenez hurren).

Arabako udalen aldeko diferentzia hori Vitoria-Gasteizko Udalak egiten duen gastuaren ondoriozkoa da; izan ere, ekarpen horri esker, 34,54 euroko ekarpena egiten dute pertsona bakoitzeko probintzia horretako udalek. Gipuzkoako udalek 25,25 euro gastatzen dituzte per capita eta Bizkaikoek, berriz, 22,37 euro.

Gipuzkoan, oro har, per capita gastu apalagoa egiten da, eta horren arrazoia da Gipuzkoako Foru Aldundiak per capita gastu apalagoa egiten duela sektore horretan (20,88 euro, 28,83 Araban eta 29,54 Bizkaian).

**Oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta lantalde teknikoetan egindako gastua, lurralde historikoen eta finantzazio-iturrien arabera. 2011**

| | | Udalak | Aldundiak | Eusko Jaurlaritza | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 11.026.181 | 9.204.728 | 1.783.692 | 22.014.601 |
| | Bizkaia | 25.853.819 | 34.143.200 | 5.786.952 | 65.783.971 |
| | Gipuzkoa | 17.920.303 | 14.819.364 | 3.213.983 | 35.953.650 |
| | EAE | 54.800.303 | 58.167.292 | 10.784.627 | 123.752.222 |
| Per capita gastua | Araba | 34,54 | 28,83 | 5,59 | 68,96 |
| | Bizkaia | 22,37 | 29,54 | 5,01 | 56,92 |
| | Gipuzkoa | 25,25 | 20,88 | 4,53 | 50,67 |
| | EAE | 25,08 | 26,63 | 4,94 | 56,65 |
| % horizontalak | Araba | 50,1 | 41,8 | 8,1 | 100,0 |
| | Bizkaia | 39,3 | 51,9 | 8,8 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 49,8 | 41,2 | 8,9 | 100,0 |
| | EAE | 44,3 | 47,0 | 8,7 | 100,0 |

Biztanleria Guztiaren sektorera bideratzen diren baliabide gehienak oinarrizko gizarte-zerbitzuak atxikitzeko erabiltzen dira % 42,8), eta interbentzio espezializatuko arloetako lantalde teknikoak atxikitzeko: gizarte-bazterketa (% 16,7), ezintasunak dituzten pertsonak (% 12,5), adineko pertsonak (% 12,2), Familia, haurrak eta gazteak (% 12,1) eta emakumeak (% 3,7).

Eskumen-banaketarekin gertatzen den moduan, erakunde bakoitzaren gastu-politikak ere eragin handia du baliabideen banaketan. Ildo horretatik, oinarrizko gizarte-zerbitzuak atxikitzen gastatzen dute udalek gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastuaren zatirik handiena (% 80,4), eta, neurri txikiagoan, Emakumearen eta Gizarte-bazterketaren sektoreetako lantalde teknikoak finantzatzen gastatzen dute diru hori (% 7,4 eta % 6, hurrenez hurren).

Foru-aldundiek sektore gehiagotan egiten dute gastua, baina haien lehentasuna sektore hauetako arlo teknikoak ordaintzea izaten da: ezintasunak dituzten pertsonak (% 26,5), gizarte-bazterketa (% 24), adineko pertsonak (% 23,3) eta familiak, haurrak eta gazteak (% 21,5). Hori horrela, foru-erakundeen finantzazio-jarduna ez da mugatzen legezko eskumen-banaketa esleitzen dizkien sektoreetan (adineko pertsonak eta ezintasunak dituzten pertsonak). Horiez gainera, gizarte-bazterketaren sektoreko prestazioak kudeatzen dituzte (Diru-sarrerak bermatzeko errenta ere bai, harik eta prestazio hori osorik Lanbideri eskualdatzen zaion arte, eta, Araban, gizarte-larrialdietarako laguntzak), eta familien, haurren eta gazteen sektoreko lurralde-lantaldeak finantzatzen dituzte, ia osorik finantzatzen baitituzte adopzioetako, familia-harrerako eta adingabekoen zaintzako programak.

Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, oinarrizko gizarte-zerbitzuak finantzatzen laguntzen du "Oinarrizko gizarte-zerbitzuak indartzea" programaren bidez; izan ere, sektore horretan gastatzen du bere gizarte-aurrekontuaren % 69,5. Era berean, gizarte-bazterketaren alorreko lantalde teknikoak finantzatzen ditu, bere baliabideen % 25,1ekin.

**Oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta lantalde teknikoetan egindako gastua, arreta-sektorearen eta finantzazio-iturrien arabera. 2011**

| | | Udalak | Aldundiak | Eusko Jaurlaritza | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Adinekoak | 1.576.023 | 13.525.552 | 0 | 15.101.575 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 0 | 15.442.101 | 0 | 15.442.101 |
| | Familia/haurrak/gazteak | 1.836.906 | 12.511.640 | 583.843 | 14.932.389 |
| | Emakumea | 3.295.717 | 1.292.596 | 0 | 4.588.313 |
| | Gizarte-bazterketa | 4.028.801 | 13.984.475 | 2.705.820 | 20.719.096 |
| | Biztanleria guztia | 44.062.856 | 1.410.928 | 7.494.964 | 52.968.748 |
| | Guztira | 54.800.303 | 58.167.292 | 10.784.627 | 123.752.222 |
| % bertikalak | Adinekoak | 2,9 | 23,3 | 0,0 | 12,2 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 0,0 | 26,5 | 0,0 | 12,5 |
| | Familia/haurrak/gazteak | 3,4 | 21,5 | 5,4 | 12,1 |
| | Emakumea | 6,0 | 2,2 | 0,0 | 3,7 |
| | Gizarte-bazterketa | 7,4 | 24,0 | 25,1 | 16,7 |
| | Biztanleria guztia | 80,4 | 2,4 | 69,5 | 42,8 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| % horizontalak | Adinekoak | 10,4 | 89,6 | 0,0 | 100,0 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 0,0 | 100,0 | 0,0 | 100,0 |
| | Familia/haurrak/gazteak | 12,3 | 83,8 | 3,9 | 100,0 |
| | Emakumea | 71,8 | 28,2 | 0,0 | 100,0 |
| | Gizarte-bazterketa | 19,4 | 67,5 | 13,1 | 100,0 |
| | Biztanleria guztia | 83,2 | 2,7 | 14,1 | 100,0 |
| | Guztira | 44,3 | 47,0 | 8,7 | 100,0 |

Nabarmentzekoa da Arabak ekarpen orokor handiagoa egiten duela oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta laguntzako lantalde teknikoetan (68,96 euro per capita, 56,92 Bizkaian eta 50,67 euro Gipuzkoan). Adierazi behar da, Arabaren kasuan, bi toki-erakundeek egiten dutela ekarpen handia, bai udalek, bai Foru Aldundiak. Bi erakundeek, batera, 63,37 euroko per capita ekarpena egiten dute zerbitzu horietan, Bizkaian baino 1,2 aldiz gehiago (51,91 euro) eta Gipuzkoan baino 1,4 aldiz gehiago (46,14 euro).

Probintziaren araberako eta arreta-sektorearen araberako azterketak konbinatu ondoren, hauek dira EAEn diru-ekarpenen proportzio handiena jasotzen duten lantalde teknikoak:

- Biztanleria guztiarentzako oinarrizko gizarte-zerbitzuetako lantaldeak eta gizarte-bazterketaren sektoreko lantalde teknikoak. Berariaz, nabarmentzekoa da Arabaren gailentasuna, baterako per capita gastua 44,40 eurokoa baita probintzia horretan, Gipuzkoako 34,03 euroetatik gora eta Bizkaiko 30,60 euroetatik gora.

- Adinekoen arloaren ardura duten lantalde teknikoak, 7,90 euroko per capita gastu-mailarekin Araban, 6,15 eurokoarekin Bizkaian eta 5,65 eurokoarekin Gipuzkoan.

- Arabako familia, haur eta gazteen arloko lantaldea, 10,86 euro per capitarekin, Bizkaikoaren eta Gipuzkoaren oso gainetik dago (6,42 euro eta 5,70 euro, hurrenez hurren).

- Ezintasunak dituzten pertsonen arloko lantaldeek 9,15 euroko gastu-maila dute Bizkaian, 6,04 euroko gastua Araban eta 4,14 euroko gastua Gipuzkoan.

Sektore askotako oinarrizko zerbitzuetan eta zerbitzu espezializatuetan ikusten da Arabak azpiegitura tekniko handiagoa duela. Probintzia horrek Bizkaia eta Gipuzkoarekiko duen aldea nahiko handia da Biztanleria guztiaren, gizarte-bazterketaren eta familien, haurren eta gazteen sektoreetan, Araban hornidura hoberena duten arlo teknikoak diren aldetik (haien per capita gastua 29,65, 14,75 eta 10,86 eurokoa da, hurrenez hurren). Familien, haurren eta gazteen arreta-sektorean, diferentzia horren arrazoia da Arabako udalek, eta, bereziki, Gasteizko Udalak, gastu handia egiten dutela sektore horretan.

Probintzien gastua askoz ere orekatuagoa da adineko pertsonen eta ezintasunak dituzten pertsonen sektoreetan. Sektore horietan, gainera, Bizkaia da gastu handiena egiten duen probintzia. Bi sektore horien artean egindako per capita gastu bateratua 17,05 eurokoa da Bizkaian, 12,19 eurokoa Araban eta 9,79 eurokoa Gipuzkoan. Alde edo diferentzia horien arrazoi nagusia da foru-aldundiek ez dutela gastu-maila bera egiten alor horietan.

**Oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta lantalde teknikoetan egindako per capita gastua, lurralde historikoen, finantzazio-iturrien eta arreta-sektoreen arabera. 2011**

| | | Udalak | Aldundiak | Eusko Jaurlaritza | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Araba | Adinekoak | 1,96 | 4,19 | 0,00 | 6,15 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 0,00 | 6,04 | 0,00 | 6,04 |
| | Familia, haurrak eta gazteak | 4,92 | 5,67 | 0,27 | 10,86 |
| | Emakumea | 1,11 | 0,40 | 0,00 | 1,52 |
| | Gizarte-bazterketa | 3,69 | 10,04 | 1,03 | 14,75 |
| | Biztanleria guztia | 22,85 | 2,50 | 4,30 | 29,65 |
| | Araba, guztira | 34,54 | 28,83 | 5,59 | 68,96 |
| Bizkaia | Adinekoak | 0,77 | 7,13 | 0,00 | 7,90 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 0,00 | 9,15 | 0,00 | 9,15 |
| | Familia, haurrak eta gazteak | 0,23 | 5,92 | 0,27 | 6,42 |
| | Emakumea | 1,84 | 1,01 | 0,00 | 2,85 |
| | Gizarte-bazterketa | 1,87 | 6,33 | 1,26 | 9,45 |
| | Biztanleria guztia | 17,67 | 0,00 | 3,48 | 21,14 |
| | Bizkaia, guztira | 22,37 | 29,54 | 5,01 | 56,92 |
| Gipuzkoa | Adinekoak | 0,09 | 5,56 | 0,00 | 5,65 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 0,00 | 4,14 | 0,00 | 4,14 |
| | Familia, haurrak eta gazteak | 0,00 | 5,43 | 0,27 | 5,70 |
| | Emakumea | 1,15 | 0,00 | 0,00 | 1,15 |
| | Gizarte-bazterketa | 0,98 | 4,89 | 1,30 | 7,16 |
| | Biztanleria guztia | 23,04 | 0,86 | 2,97 | 26,87 |
| | Gipuzkoa, guztira | 25,25 | 20,88 | 4,53 | 50,67 |

## 3.- Finantziazio-iturriak

Dinamika historikoaren eta Gizarte-zerbitzuei buruzko Legean ezarritako printzipioen aplikazio praktikoaren elkarreraginaren emaitza da EAEko gizarte-zerbitzuak finantzatzeko egungo egitura publikoa. Era berean, funtsezkoa izan da egitura hori sortzeko erakundeek 2000. urtean lortu zuten akordioa, eskumen-banaketaren eredu berria ezarri zuena. Azken urte hauetako egoera ulertzen laguntzen digute indarrean diren zenbait printzipiok: sistemari eusteko ardura edo erantzukizun publikoaren printzipioa, arlo publikoaren eta arlo pribatuaren arteko lankidetza, deszentralizazioa, eta erakunde publikoen arteko lankidetza.

Finantziazioaren alorrean, funtsezkoa da nabarmentzea foru-aldundiak direla oraindik ere gizarte-zerbitzuen finantzazio-egituraren ardatza. Hala, 2011. urtean, sistemara finantzatzeko ekarpen guztiaren % 47,5 ordaindu zuten hiru lurralde historikoetako erakunde kudeatzaileek.

Foru-aldundiekin batera, gero eta ekarpen handiagoa egiten du Eusko Jaurlaritzak, guztizko gastuaren % 35,5 finantzatzen baitu. Gero eta diru gehiago bideratzen da gizarte-bazterketako sektorera eta familien, haurren eta gazteen sektorera, eta, ondorioz, EAEko Jaurlaritza da gizarte-zerbitzuen sistema finantzatzeko bigarren ekarpen handiena egiten duen erakundea. Lehen, 2001. urtea bitartean, udalak ziren bigarren finantzazio-erakundea, baina, gaur egun, sistemaren % 12,3 soilik finantzatzen dute toki-erakunde horiek. Azkenik, Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistemak (SAAD) eta Europako Gizarte Funtsek ordaintzen dute Euskadin gizarte-zerbitzu eta -prestazioetan egiten den gastuaren gainerako % 4,7a.

**Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoa, finantziazio-iturrien arabera. 2011**

| | Gastua, guztira | % Bertikalak |
|---|---|---|
| Udalak | 199.403.835 | 12,3 |
| Aldundiak | 766.643.996 | 47,5 |
| Eusko Jaurlaritza | 573.601.863 | 35,5 |
| Europar F.-SAAD | 75.591.433 | 4,7 |
| Guztira | 1.615.241.127 | 100,0 |

**Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoa, finantziazio-iturrien arabera (% ). 2011**




Finantza-ekarpenak egiten dituzten erakundeek dirua zertan gastatzen duten aztertuz gero, ikusten da diru-ekarpen handiena egiten duten erakundeek, foru-aldundiek, gizarte-zerbitzuetako bi sektore tradizionaletan egiten dutela haien gastu osoaren % 76,3: adineko pertsonen sektorean eta ezintasunak dituzten pertsonen sektorean, aldundiek egindako gastuaren % 49,8 eta % 26,5 biltzen baitute, hurrenez hurren. Era berean, gastu-ehuneko nabarmen bat biltzen du familia, haur eta gazteen sektoreak, gastuaren % 13.

Foru-aldundiek funtsezko diru-ekarpena egiten dute hiru sektore horietan, baina zenbateko-banaketa aldatu egiten da sektoretik sektorera. Ezintasunak dituzten pertsonen sektorean egiten dute foru-aldundiek gastu-proportzio handiena, gastuaren % 74,2 egiten baitute. Eusko Jaurlaritzak ekarpen guztiaren % 16,6 egiten du, enplegu-zentro bereziak finantzatzeko batik bat, eta % 7,1 finantzatzen dute SAAD sistemak eta Europako Gizarte Funtsek. Azken erakunde horien ekarpenaren garrantzia alde batera utzi gabe, esan daiteke batik bat foru-aldundien eskumena dela ezintasunak dituzten pertsonen bizi-baldintzak hobetzea.

Era berean, foru-aldundiek egiten dute gastu handiena adineko pertsonen sektorean, gastuaren % 69,9 ordaintzen baitute erakunde horiek. Kasu honetan, ordea, nabarmentzekoa da udalen ekarpen kualitatiboa. Udalen ekarpenak ez du gainditzen % 16,5eko langa adineko pertsonei ematen zaizkien zerbitzuak finantzatzeko garaian, baina kontuan izan behar da sektore hori dela udalek gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastuaren xede handiena, sektore horretan gastatzen baitute gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastuaren % 45,2. Gainerako % 10,3 SAAD sistemak finantzatzen du, mendetasun-egoeretarako laguntza ekonomikoen bitartez.

2002. urteaz geroztik, Familia, erabakigarria izan da Eusko Jaurlaritzaren partaidetza haur eta gazteen sektorea finantzatzeko, eta, batik bat, garrantzi handikoa izan da “Familiei laguntzeko erakunde arteko plana”, seme-alaben jaiotzagatiko laguntzak arautzen dituelako; hala ere, 2008. urteaz geroztik, foru-aldundiak dira berriro ere nagusi sektorean, adingabeentzako egoitza-zerbitzuak finantzatzeko egiten duten gastu handiarengatik; hala, gastu osoaren % 51,5 finantzatzen dute foru-aldundiek. Eusko Jaurlaritzak, 2011. urtean, familien, haurren eta gazteen sektorean egindako gastuaren % 35,3 finantzatu zuen, gizarte-prestazio eta -zerbitzuen sistemara egiten duen ekarpenaren % 11,9. Gizarte-zerbitzuetara bideratzen duten diru guztiaren % 12,7 bideratzen dute udalek sektore horretara, eta, zehazki, sektore horretan egiten den gastuaren % 13,1 hartzen dute beren gain.

Droga-mendetasunen prebentzioaren jardun-alorrean, foru-aldundiek hartzen dute beren gain egiten den gastuaren zatirik handiena, eta gastu hori, sektorean egiten den gastu osoaren % 51,2, udalei eta mankomunitateei diru-laguntzak emateko erabiltzen da, lantalde teknikoak eta prebentzio-programak ordain ditzaten. Hala ere, diru-ekarpen hori foru-aldundiek egiten duten gastu-ahaleginaren ehuneko txiki bat baino ez da (0,7). Udalak dira arlo horretara diru gehien bideratzen duten bigarren erakundeak udalak dira, droga-mendetasunen alorretan egiten den gastu osoaren % 45,6 ordaintzen baitute; hala ere, gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastu osoaren % 2,4 da kopuru hori.

Era berean, antzeko ekarpenak egiten dituzte udalek eta foru-aldundiek emakumearen arreta-sektorean; izan ere, gastuaren % 44,7 finantzatzen dute udalek eta % 48,9 foru-aldundiek. Hala ere, gastu apaleko sektorea da, baita udalen kasuan ere, gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastu osoaren % 4,4, gastatzen dute udalek sektore horretan (foru-aldundiek % 1,2 gastatzen dute sektore horretan).

Beste sektore batzuetan ez bezala, Eusko Jaurlaritzak jartzen du gastu-ehuneko handiena gizarte-bazterketaren sektorean, gastu osoaren % 83,4 finantzatzen baitu. Foru-aldundiek sektoreko gastuaren % 12,6 finantzatzen dute, eta % 3,9 udalek. Gizarte-bazterketaren sektorean gastatzen du Eusko Jaurlaritzak gizarte-prestazio eta -zerbitzuetarako jartzen duen diruaren % 75,5.

Ez da hori gizarte-interbentzioko lehen sektorea udalentzat, gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastuaren % 22,1 egiten baitute sektore horretan eta % 45,2 adineko pertsonen sektorean, baina, hala ere, udalak dira finantzazio-bide nagusia Biztanleria Guztiaren sektorean, sektore horretan oinarrizko gizarte-zerbitzuak gailentzen diren aldetik. Udalek finantzatzen dute sektore horretako gastuaren % 83,2, Eusko Jaurlaritzak % 14,1 finantzatzen du eta % 2,7 foru-aldundiek.

**Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoa, sektoreen eta finantziazio-iturrien arabera. 2011**

| | | Udalak | Foru-aldundiak | Eusko Jaurlaritza | Europa-SAAD | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Adinekoak | 90.184.719 | 381.880.996 | 17.887.296 | 56.102.300 | 546.055.311 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 5.996.379 | 203.474.134 | 45.429.902 | 19.350.733 | 274.251.148 |
| | Familia, haur, gazte | 25.338.981 | 99.391.508 | 68.102.473 | 0 | 192.832.962 |
| | Emakumea | 8.710.232 | 9.525.468 | 1.232.199 | 0 | 19.467.899 |
| | Gizarte-bazterketa | 20.260.900 | 65.516.039 | 433.108.177 | 138.400 | 519.023.516 |
| | Droga-mendetasunak | 4.849.768 | 5.444.923 | 346.852 | 0 | 10.641.543 |
| | Biztanleria guztia | 44.062.856 | 1.410.928 | 7.494.964 | 0 | 52.968.748 |
| | Guztira | 199.403.835 | 766.643.996 | 573.601.863 | 75.591.433 | 1.615.241.127 |
| % Bertikalak | Adinekoak | 45,2 | 49,8 | 3,1 | 74,2 | 33,8 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 3,0 | 26,5 | 7,9 | 25,6 | 17,0 |
| | Familia, haur, gazte | 12,7 | 13,0 | 11,9 | 0,0 | 11,9 |
| | Emakumea | 4,4 | 1,2 | 0,2 | 0,0 | 1,2 |
| | Gizarte-bazterketa | 10,2 | 8,5 | 75,5 | 0,2 | 32,1 |
| | Droga-mendetasunak | 2,4 | 0,7 | 0,1 | 0,0 | 0,7 |
| | Biztanleria guztia | 22,1 | 0,2 | 1,3 | 0,0 | 3,3 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| % horizontalak | Adinekoak | 16,5 | 69,9 | 3,3 | 10,3 | 100,0 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 2,2 | 74,2 | 16,6 | 7,1 | 100,0 |
| | Familia, haur, gazte | 13,1 | 51,5 | 35,3 | 0,0 | 100,0 |
| | Emakumea | 44,7 | 48,9 | 6,3 | 0,0 | 100,0 |
| | Gizarte-bazterketa | 3,9 | 12,6 | 83,4 | 0,0 | 100,0 |
| | Droga-mendetasunak | 45,6 | 51,2 | 3,3 | 0,0 | 100,0 |
| | Biztanleria guztia | 83,2 | 2,7 | 14,1 | 0,0 | 100,0 |
| | Guztira | 12,3 | 47,5 | 35,5 | 4,7 | 100,0 |
| Per capita gastua | Adinekoak | 41,28 | 174,81 | 8,19 | 25,68 | 249,96 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 2,74 | 93,14 | 20,80 | 8,86 | 125,54 |
| | Familia, haur, gazte | 11,60 | 45,50 | 31,17 | 0,00 | 88,27 |
| | Emakumea | 3,99 | 4,36 | 0,56 | 0,00 | 8,91 |
| | Gizarte-bazterketa | 9,27 | 29,99 | 198,25 | 0,06 | 237,58 |
| | Droga-mendetasunak | 2,22 | 2,49 | 0,16 | 0,00 | 4,87 |
| | Biztanleria guztia | 20,17 | 0,65 | 3,43 | 0,00 | 24,25 |
| | Guztira | 91,28 | 350,93 | 262,57 | 34,60 | 739,37 |

Finean, funtsezko ezaugarri hauek ditu EAEko gizarte-zerbitzuen sistema finantzatzeko ereduak:

➔ Foru-aldundiek finantzatzen dute gizarte-zerbitzu espezializatu handien gastu-ehunekorik handiena, eta, bereziki, alor horretan gastu handienekoak izan diren sektoreetan, nola diren, adineko pertsonen sektorea, ezintasunak dituzten pertsonena eta familia, haur eta gazteena.

- ➔ Udalek finantzatzen dute oinarrizko gizarte-zerbitzuen gastu-proportziorik handiena. Horrez gainera, udalek gastu handia egiten dute adineko pertsonen sektorean, sektore horretan gastatzen baitute udalek gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastuaren % 45,2.

- ➔ Eusko Jaurlaritzak, bestalde, gizarte-bazterketaren esparruko finantzazio zatirik handiena hartzen du bere gain, gehienbat diru-laguntzekin lotuta.

- ➔ Udalek eta foru aldundiek ordaintzen dituzte, ehuneko paretsutan, gastu gutxien biltzen dituzten sektoreak, nola diren emakumeen sektorea eta droga-mendekotasunen sektorea.

- ➔ Europako Gizarte Funtsek eta SAAD sistemak egiten duten diru-ekarpena ezintasunak dituzten pertsonen sektorean eta adineko pertsonen sektorean gastatzen da, eta, zehazki, gastu horren % 74,2 egiten da azken sektore horretan.

### 3.1 Finantzazioaren egoera lurralde historikoetan

Sistemaren finantziazio-iturrien datuak aztertu ondoren, behar bezala azter daiteke zergatik dauden ageriko diferentziak lurralde historikoek gizarte-zerbitzuetan egiten duten per capita gastuetan.

Probintzia guztiek duten elementu komunetako bat da udalek eta foru-aldundiek egiten dituztela finantza-ekarpen handienak. Hala ere, bada alde nabarmenik erakunde horiek finantzatutako gastu-ehunekotan; izan ere, gastuaren % 66,8 finantzatzen dute Gipuzkoan, % 65,1 Araban, eta, proportzio nabarmen apalagoan, % 54,2 Bizkaian.

Hala ere, per capita datuak alderatuta ikusten da garbien zer-nolako aldeak dauden foru-aldundiek eta udalek gastuetan duten partaidetzan. Gastu-estrategiek azaltzen dituzten diferentziak, estrategia horiek aldatu egiten baitira aldunditik aldundira eta udaletik udalera.

Alde horretatik, datuek egiaztatzen dute Araban per capita gastu handiagoa egiten dela probintzia horretako aldundiak eta udalek gastu erlatibo handiagoak egiten dituztelako. Hori horrela, Arabako Foru Aldundiak 433,07 euroko per capita gastua egiten du gizarte-zerbitzuetan, Gipuzkoako Foru aldundiak 378,54 euro gastatzen ditu pertsonako eta Bizkaikoak, azkenik, 311,29 euro. Udalei dagokienez ere nabarmenak dira aldeak, kasu horretan batez ere Gasteizko Udalaren jardunaren ondorioz. Hori horrela izanik, Arabako udalerriek biztanle bakoitzeko 135,41 euro gastatzen dituzte urtean gizarte-zerbitzuetan, eta Bizkaiko udalerriek eta Gipuzkoako udalerriek, aldiz, 92,61 euro eta 69,25 euro, hurrenez hurren. Datuek adierazten dute, orotara, udalek eta aldundiak egindako per capita gastua 568,48 eurokoa dela Araban, 447,79 eurokoa Gipuzkoan, eta 403,90 eurokoa Bizkaian.

Hala ere, kontuan izan behar da foru-aldundiek egiten dutela gastu handiena gizarte-zerbitzuetan; beraz, Arabako Foru Aldundiak egiten duen gastu-maila handiak azaltzen du zergatik dagoen alde edo diferentzia hori probintzia horretako gizarte-zerbitzuetan egiten den per capita gastuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuetan batez beste egiten den per capita gastuan (diferentzia horren % 61,2 dagokio Aldundiari, % 32,9 udalei eta % 5,9 gainerako erakundeei).

Per capita egiten den gastu orokorrean ikusten diren aldeak murriztu egiten dira, ordea, probintziaz gaindiko erakundeen, eta, batez ere, Eusko Jaurlaritzaren eraginagatik. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzaren gastuan murriztu egiten dute udalen eta foru-aldundien gastuen artean dauden diferentzia handiak; izan ere, probintzia horretan egiten du Jaurlaritzak bere gastu guztiaren % 62,8. Bizkaiko pobrezia-tasa handiagoekin lotuta dago fenomeno hori, eta horren ondorioz, gastuaren zati handi bat prestazio ekonomikoetara bideratzen da (batez ere Diru-sarrerak Bermatzeko Errentatik eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzetatik datozenak) Lurralde Historiko horretan. Gastu-mota horrek berebiziko garrantzia du Bizkaian, eta horren adierazgarri nabarmena da Eusko Jaurlaritzaren finantziazioak gastuaren % 41,8 ordaintzen duela Bizkaian. Proportzio hori % 27koa da Gipuzkoan eta % 30,6koa Araban.

Eragina nabarmen txikiagoa den arren, adieraztekoa da Europako Gizarte Funtsek eta SAAD sistemak Gipuzkoan egiten duten ekarpena (41,10 euroko per capita gastua probintzia horretan, 38,14 eurokoa Araban eta 29,64 eurokoa Bizkaian).

**Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoa, lurralde historikoen eta finantziazio-iturrien arabera. 2011**

| | | Udalak | Aldundiak | Eusko Jaurlaritza | Europa-SAAD | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 43.225.173 | 138.246.337 | 85.214.497 | 12.175.845 | 278.861.852 |
| | Bizkaia | 107.038.689 | 359.780.614 | 360.255.904 | 34.252.345 | 861.327.552 |
| | Gipuzkoa | 49.139.973 | 268.617.045 | 128.131.462 | 29.163.243 | 475.051.723 |
| | EAE | 199.403.835 | 766.643.996 | 573.601.863 | 75.591.433 | 1.615.241.127 |
| Per capita gastua | Araba | 135,41 | 433,07 | 266,94 | 38,14 | 873,55 |
| | Bizkaia | 92,61 | 311,29 | 311,70 | 29,64 | 745,24 |
| | Gipuzkoa | 69,25 | 378,54 | 180,57 | 41,10 | 669,46 |
| | EAE | 91,28 | 350,93 | 262,57 | 34,60 | 739,37 |
| % horizontalak | Araba | 15,5 | 49,6 | 30,6 | 4,4 | 100,0 |
| | Bizkaia | 12,4 | 41,8 | 41,8 | 4,0 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 10,3 | 56,5 | 27,0 | 6,1 | 100,0 |
| | EAE | 12,3 | 47,5 | 35,5 | 4,7 | 100,0 |
| % Bertikalak | Araba | 21,7 | 18,0 | 14,9 | 16,1 | 17,3 |
| | Bizkaia | 53,7 | 46,9 | 62,8 | 45,3 | 53,3 |
| | Gipuzkoa | 24,6 | 35,0 | 22,3 | 38,6 | 29,4 |
| | EAE | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

**Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoa, lurralde historikoen eta finantziazio-iturrien arabera (% ). 2011**




## *3.2. Foru Aldundiak*

Foru-aldundiak dira egungo gizarte-zerbitzuen sistema programatu eta antolatzeaz arduratzen diren erakunde publikoak. Autonomia politiko eta finantzario handia dute foru-erakundeek, eta, ondorioz, antolatzeko eta kudeatzeko hiru sistema ditugu, praktikan, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Honako datu hauek adierazten dituzte foru-aldundiek egiten dituzten gastuen ezaugarriak:

- Erakunde horiek egiten dute gizarte-zerbitzuetarako finantza-ekarpenaren gastu handiena, haiek ordaintzen baitute gizarte-zerbitzuak, prestazioak eta programak atxikitzeko diren baliabide publikoen % 47,5.

- Foru-aldundien gastuaren % 76,4 adineko pertsonen eta ezintasunak dituzten pertsonen arloetara bideratzen da (% 49,8 eta % 26,5, hurrenez hurren). Beste % 13 familia, haur eta gazteen sektorera bideratzen da, eta % 8,5 gizarte-bazterketaren sektorera.

- Foru-erakundeek finantzatzen dute ezintasunak dituzten pertsonen eta adineko pertsonen sektoreetako gastu gehiena, gastu osoaren % 74,2 eta % 69,9 finantzatzen baitute, hurrenez hurren. Halaber, % 50etik gertuko portzentajean finantzatzen dituzte familia, haur eta gazteen sektorea, emakumeen sektorea eta droga-mendekotasunen sektorea.

➔ Alde handiak ikus daitezke gastu-mailari dagokionez Arabako Foru Aldundiaren eta Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien artean. Per capita datuei erreparatuz gero, Bizkaiko Foru Aldundiak baino % 39,1 gehiago gastatzen du Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak baino % 14,4 gehiago. Adierazitako aldea Adinekoen eta ezintasunak dituzten pertsonen arloetan Arabak duen per capita gastu handiagoarekin lotuta dago, eta, are garbiago, adinekoen arloan egiten duen gastu handiagoarekin.

Azken datu hori zehazteko, adierazi behar da aldundien artean ikusten den gastu-aldearen arrazoi nagusia Arabako aurrekontu handiagoa dela. Ildo horretan, hiru foru-aldundien guztizko per capita gastua aztertuta, eta betiere 2010. urteari gagozkiola, Araba nabarmentzen da, bere gastuak % 17,2an gainditzen baitu Bizkaikoa eta % 19,1ean Gipuzkoakoa. Dena dela, adieraztekoa da, era berean, Araban gizarte-zerbitzuen alorrera bideratutako baliabideen ehunekoa zertxobait handiagoa dela. Alde horretatik, gizarte-zerbitzuetan egiten den gastua aldundiak egindako gastu osoaren % 6 da Araban, % 5,9 Gipuzkoan eta % 4,8 Bizkaian.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiak baliabide gehiago jartzen ditu, eta, halaber, bere gastuaren ehuneko handiagoa baliatzen du gizarte-zerbitzuetarako. Beraz, finantza-ekarpenen zenbatekoak eta gastuaren xedea dira EAEko probintzietako gizarte-zerbitzuen politiketan ikusten diren aldeen arrazoiak.

**Foru-aldundiek gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastua eta gastu orokorra (mila € eta gastu % ). 2010**

| | Obligazio likidatuak 2010 | Gizarte-zerbitzuek 2010 | Gastuaren % -a gizarte-zerbitzuetan |
|---|---|---|---|
| Araba | 2.271.118 | 136.774 | 6,0 |
| Bizkaia | 7.013.798 | 333.169 | 4,8 |
| Gipuzkoa | 4.240.184 | 250.310 | 5,9 |
| EAE | 13.525.100 | 720.252 | 5,3 |

Iturria: Estatistikari buruzko Euskal Urtekaria 2010

Gizarte-zerbitzuetan per capita egiten den gastuan ikusten diren aldeak errepikatu egiten dira arreta-sektoreetan, eta, bereziki, gastu-atal handienetan. Horren harian, nabarmentzekoa da hiru aldundien lehentasun direla adineko pertsonen sektorea, ezintasunak dituzten pertsonen sektorea eta familia, haur eta gazteen sektorea; baina, hala ere, sektore horietako batzuetan ikusten dira alde handienak guztizko gastuaren alorrean.

Adineko pertsonen sektoreari dagokionez, Arabak 235,66 euro gastatzen ditu, eta Gipuzkoak eta Bizkaiak, aldiz, 197,47 euro eta 144,08 euro, hurrenez hurren, hots, Gipuzkoakoa baino 1,2 aldiz eta Bizkaikoa baino 1,6 aldiz gehiago. Antzeko zerbait gertatzen da ezintasunak dituzten pertsonen sektorean; izan ere, Araban egiten den gastua (128,06 euro) 1,5 handiagoa da Bizkaian egiten dena baino (85,99) eta Gipuzkoan egiten dena baino 1,4 aldiz handiagoa (89,07). Familien, haurren eta gazteen sektorean, berriz, Gipuzkoak egiten du gasturik handiena (55,97 euro), Bizkaiak (40,71) eta Arabak (39,56) egindako gastua baino 1,4 aldiz handiagoa.

Gizarte-bazterketaren sektorean, Bizkaian egiten da per capita gasturik handiena (31,89 euro), Gipuzkoaren (30,93 euro) eta Arabaren (21,04 euro) gainetik. Errepikatu egiten da egoera emakumeen sektorean (5,72 euro per capita gastatzen ditu Bizkaiko Foru Aldundiak, 5,19 Arabakoak eta 1,77 Gipuzkoakoak) eta droga-mendekotasunen sektorean (2,90 euro per capita Bizkaian, 2,48 Gipuzkoan eta 1,05 Araban).

Kostaldeko bi probintziak konparatuz gero, ikusten da Bizkaiko Foru Aldundiak baino per capita gastua handiagoa egiten duela Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta alde horren arrazoia da Gipuzkoak diru gehiago gastatzen duela adineko pertsonen sektorean, eta, neurri apalago batean, familien, haurren eta gazteen sektorean.

**Foru-aldundien per capita gastuaren sektore-banaketa. 2011**

| | Per capita gastua | | | % bertikalak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
| Adinekoak | 235,66 | 144,08 | 197,47 | 54,4 | 46,3 | 52,2 | 49,8 |
| Ezintasunak dituzten pertsonak | 128,06 | 85,99 | 89,07 | 29,6 | 27,6 | 23,5 | 26,5 |
| Familia | 39,56 | 40,71 | 55,97 | 9,1 | 13,1 | 14,8 | 13 |
| Emakumea | 5,19 | 5,72 | 1,77 | 1,2 | 1,8 | 0,5 | 1,2 |
| Gizarte-bazterketa | 21,04 | 31,89 | 30,93 | 4,9 | 10,2 | 8,2 | 8,5 |
| Droga-mendetasunak | 1,05 | 2,9 | 2,48 | 0,2 | 0,9 | 0,7 | 0,7 |
| Biztanleria guztira | 2,5 | 0 | 0,86 | 0,6 | 0 | 0,2 | 0,2 |
| Guztira | 433,07 | 311,29 | 378,54 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Hori horrela, per capita gastuan probintziatik probintziara dauden aldeen arrazoi nagusia da gizarte-zerbitzuetarako per capita baliabideak ez direla berdinak hiru aldundietan. Izan ere, hiru foru-aldundiek egiten duten sektore-gastuen xedea antzekoa da, gastuaren % 90 inguru jasotzen baitute hiru probintzietan adinekoen sektoreak, ezintasunak dituzten pertsonen sektoreak eta familien, haurren eta gazteen sektoreak. Horrenbestez, gastuaren eredu kuantitatiboak aldatu egiten dira, bai, probintziatik probintziara, baina diferentzia horiek ez dute adierazten gastu-estrategiak aldatu egiten direnik.

Probintziatik probintziara baliabide erlatibo gehiago edo gutxiago dagoela adierazten digu, batik bat, datu horrek.

**Foru-aldundien gastuaren ehuneko banaketa, sektoreen arabera. 2011**




Adieraztekoa da, dena den, alor handien araberako sektore-banaketaren azterketak beste alde garrantzitsu batzuk ere ezkuta ditzakeela. Ildo horretan, foru-aldundiek finantzatzen dituzten zerbitzu, programa eta prestazioen azterketak ikuspegi argiagoa ematen du erakunde horiek gizarte-zerbitzuen alorrean egiten duten ekarpenari buruz, eta hiru foru-aldundien jardunean dauden aldeak gehiago zehaztea ahalbidetzen du.

Azterketa hori adineko pertsonen sektoretik abiatzea komeni da; izan ere, sektore horretan gastatzen da diru gehien eta sektore horretan ikusten dira per capita gastuaren alde handienak probintziatik probintziara. Adinekoen sektorean egiten dute foru-aldundiek interbentzio handiena, hor gastatzen baitute gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastu arruntaren % 49,8.

Adineko pertsonei ematen zaizkien zerbitzu eta prestazio guztien % 69,9 finantzatzen dute foru-aldundiek. Kontribuzio-mailakoak ez diren pentsioen % 100 ordaintzen dute, lantalde teknikoen gastuaren % 89,6 finantzatzen dute, eta familientzako laguntza ekonomikoen eta pertsonen laguntzarako nahiz autonomia pertsonalerako laguntza ekonomikoen % 86,1 ordaintzen dute. Foru-aldundiek finantzatzen dute, halaber, eguneko zentroetan egiten den gastuaren % 77,3 eta egoitza-zerbitzuetan egiten den gastuaren % 71,6. Foru-aldundiek ez dute finantzazio-nagusitasunik etxeko laguntzaren sektorean (sektore horretako gastuaren % 37,8 finantzatzen dute), eta horren arrazoia da egoitzetan sartzeko

itxarote-zerrendan dauden adineko pertsonei soilik ordaintzen diela etxeko laguntza Bizkaiko Foru Aldundiak. Hala ere, etxeko arreta da bigarren gastu-programa handiena Araban eta laugarrena Gipuzkoan.

Sektore-interbentzioen alor espezifikoetan egindako gastu-datuak aztertuz gero, azpimarratu beharreko lehen alderdia zera da, hiru foru-aldundien kasuan, gastua Adinekoen sektorean biltzen dela, bi zerbitzu- edo prestazio-motatan: egoitza-zerbitzuak eta familientzako laguntza ekonomikoak. Orotara, sektorean egiten den gastuaren % 67-78 bi baliabide horietan: % 67 Gipuzkoan, % 69,6 Araban eta % 78,2 Bizkaian. Orotara, 276.447.601 euro gastatzen dituzte foru-aldundiek egoitza-zerbitzuetan eta familientzako laguntza ekonomikoetan; hau da, gizarte-zerbitzuetan egiten den gastu osoaren % 17,1, foru-aldundien gastu osoaren % 36,1 eta adineko pertsonengan aldundiek egiten duten gastu osoaren % 72,4.

Egoitza-zerbitzuetan egiten dute gasturik handiena hiru foru-aldundiek, baina, berariaz, sektore horretan ikusten da foru-aldundien arteko lehen diferentzia nabarmena. Bizkaiak egiten du gastu-ehunekorik handiena sektore horretan (% 57,4 probintzia horrek, % 54,2 Arabak eta % 49,4 Gipuzkoak), baina Arabako Foru Aldundiak egiten du per capita gasturik handiena egoitza-zerbitzuetan[7]: 723,25 euro 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko, eta Gipuzkoak eta Bizkaiak, aldiz, 507,03 euro eta 412,60 euro, hurrenez hurren. Horrenbestez, eta egoitza-zerbitzuei dagokienez, Arabako Foru Aldundiaren gastua 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko Bizkaikoa baino 1,8 aldiz eta Gipuzkoakoa baino 1,4 aldiz handiagoa da.

Familiei emandako laguntza ekonomikoak dira bigarren gastu-xede handiena Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundientzat, eta hirugarrena Arabako Foru Aldundiarentzat. Hala ere, Araban egiten da, berriro ere, foru-gasturik handiena 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko: 205,21 euro probintzia horretan, 180,69 euro Gipuzkoan eta 150,17 euro Bizkaian. Adierazi beharrekoa da, hala ere, Gipuzkoak gailentzen zaiola Arabari pertsonen laguntzagatiko diru-laguntzak kontuan hartzen badira (238,62 euro Gipuzkoan, 205,21 euro Araban eta 150,28 euro Bizkaian).

Etxeko arreta da, Araban, adineko pertsonen sektorean egiten den bigarren gastu-alor handiena. Izan ere, alor horretan, 224,96 euro gastatzen dira per capita Araban, Gipuzkoan baino 2,5 aldiz gehiago (91,35 euro gastatzen dira pertsonako probintzia horretan, eta laugarren gastu-alorrik handiena da). Gipuzkoan, hirugarren gastu-alorra eguneko zentroena da. Guztira, 103,64 euro gastatzen dira probintzia

---

[7] Gastu-zifretan dauden alde edo diferentzia zuzen zehazteko, 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko egiten den per capita gastua aztertzen da atal honetan. Gastuak arretaren onura jasoko duen biztanleengan zer eragin duen neurtzea da azterketa-modu horren helburua.

horretan 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko, eta gainditu egiten da Arabako per capita gastua alor horretan, 96,83 eurokoa.

Beste bi probintzietako aldundiek baino nabarmen diru gutxiago gastatzen du Bizkaiko Foru Aldundiak adineko pertsonentzako etxeko laguntzan eta (17,57 euro 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko) eta eguneko zentroetan (26,37 euro). Bizkaian, aldizkako prestazio ekonomikoak dira hirugarren gastu-alorra adineko pertsonen sektorean; Kotizaziorik Gabeko Prestazioak (KGP) eta Gizarte Ongizateko Funtsak (GOF) osatzen dituzte prestazio horiek. Gastu-sail hori Bizkaian adineko pertsonen sektorean egiten den gastu guztiaren % 7,4 da, Gipuzkoan egiten den gastu osoaren % 4,7 eta Arabakoaren % 4. Bizkaian 53,03 euro gastatzen dira 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko, Gipuzkoan gastatzen diren 48,40 euroak baino gehiago; hala ere, Araban egiten da per capita gasturik handiena, 53,83 eurorekin.

Bizkaian, hala ere, nabarmentzekoa da promozioko eta prebentzioko ekintzetan egiten den gastua, 65 urtetiko gorako pertsona bakoitzeko: 23,97 euro gastatzen dira probintzia horretan, 8,96 Gipuzkoan eta 6,66 Araban. Era berean, gastu handia egiten da Bizkaian langile edo lantalde espezializatuen azpiegiturak finantzatzeko: 35,61 euro per capita probintzia horretan, 23,70 Araban eta 28,93 euro Gipuzkoan.

Sistema osoari begiratuta, Araban gastu handiagoa egiten da 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko, beste bi probintzietan baino diru gehiago gastatzen duelako probintzia horrek gizarte-zerbitzuak mantentzeko eta etxeko laguntzaren sektorea finantzatzeko. Bizkaian handiagoa da per capita gastua eguneko zentroen alorrean, familiei emandako laguntza ekonomikoetan eta laguntza pertsonalaren alorrean. Alor horietan, baterako foru-ekarpen handiena egiten du Gipuzkoak 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko, Arabaren aurretik.

**Foru-aldundiek adineko pertsonen sektorean egiten duten gastua, programa, zerbitzu eta prestazioen arabera. 2011**

| | Per capita gastua* | | | | % Bertikalak | | | | Foru-finantziazioaren % -a |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | |
| Lantalde Teknikoa | 23,70 | 35,61 | 28,93 | 31,88 | 1,8 | 4,9 | 2,8 | 3,5 | 89,6 |
| Egoitzak | 723,25 | 412,60 | 507,03 | 484,24 | 54,2 | 57,4 | 49,4 | 53,8 | 71,6 |
| Etxeko laguntza | 224,96 | 17,57 | 91,35 | 68,85 | 16,9 | 2,4 | 8,9 | 7,6 | 37,8 |
| Eguneko zentroak | 96,83 | 26,37 | 103,64 | 60,58 | 7,3 | 3,7 | 10,1 | 6,7 | 77,3 |
| Sustapena | 6,66 | 23,97 | 8,96 | 16,84 | 0,5 | 3,3 | 0,9 | 1,9 | 64,8 |
| GOF-KGP | 53,83 | 53,03 | 48,40 | 51,65 | 4 | 7,4 | 4,7 | 5,7 | 100 |
| Familientzako Lag. Ek. | 205,21 | 150,17 | 180,69 | 167,30 | 15,4 | 20,9 | 17,6 | 18,6 | 86,1 |
| Laguntza Perts. Lag. Ek. | 0,00 | 0,11 | 57,93 | 18,69 | 0 | 0 | 5,6 | 2,1 | 86,1 |
| Guztira | 1334,43 | 719,42 | 1026,93 | 900,03 | 100 | 100 | 100 | 100 | 69,9 |

* € per capita, 65 urtetik gorako pertsonako

Ezintasunak dituzten pertsonen sektorea da foru-aldundien bigarren gastu-sektorea, gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastuaren % 26,5 biltzen baitu.

Gastu-ehunekoei erreparatuta, foru-aldundiek sektore horretan egiten duten gastu-ekarpena adinekoen pertsonen sektorean egiten dutena baino handiagoa da, sektorearen gastu osoaren % 74,2 finantzatzen baitute. Lantalde tekniko ia guztiak finantzatzen dituzte, aldizkako prestazio ekonomiko ia guztiak eta gizarteratzeko eta laneratzeko programa ia guztiak. Era berean, egoitza-zerbitzuen gastuaren % 86,1 finantzatzen dute, eguneko zentroen % 85,2, mendetasunaren alorreko prestazio ekonomikoen % 86/87 eta bestelako laguntza ekonomikoen % 78,3 (garraiorako laguntza, etab.). Halaber, promozio eta prebentzioko jardueren % 81,2 ordaintzen dute foru-aldundiek. Mendetasunaren sektorean, bi zerbitzutan soilik esan daiteke foru-aldundien finantzazio-ekarpena ez dela handiena: etxeko laguntzaren zerbitzua, batetik, gastuaren % 45,1 ordaintzen baitute Bizkaiko udalek berebiziko garrantzia dutelako zerbitzu horren finantzazioan, eta, bestetik, enplegurako zentro berezien eta okupazio-zentroen alorra, % 31n finantzatzen baitira foru-aldundiek egindako ekarpenekin.

Ezintasunak dituzten pertsonen sektorean, egoitza-zerbitzuetan gastatzen dute diru gehien hiru foru-aldundiek. Sektoreko gastu osoaren % 34,8 bideratzen du Arabak alor horretara, % 38 Bizkaiak eta % 42 Gipuzkoak. Laguntza ekonomikoak dira bigarren gastu-xedea Gipuzkoan eta Bizkaian (% 25,8 eta % 20,8 hurrenez hurren, eta % 20,7 Araban). Araban, berriz, enplegu-zentro bereziak eta okupazio-zentroak dira bigarren gastu-xedea, gastuaren % 21,3rekin (% 9,9 Gipuzkoan eta % 4,8 Bizkaian). Bizkaian, kontribuzio-mailakoak ez diren prestazioak, KGP, GOF, MGL prestazioak, dira bigarren gastu-xedea (% 19), eta hirugarrena Gipuzkoan (% 13,1). Bi probintzia horietan, eguneko zentroek gastu-zati handia eramaten dute, % 12,3 Bizkaian eta % 14,7 Gipuzkoan. Aitzitik, % 7,2 finantzatzen du Arabako aldundiak, probintzia horretan kontribuzio-mailakoak ez diren prestazioak ordaintzeko baliatzen den proportzio berdina.

Per capita edo pertsonako gastuari erreparatuta, egoitza-zerbitzuetako eta okupazio-zentro nahiz enpleguko zentro berezietako per capita gastu handiagoagatik nabarmentzen da Araba. Egoitza-zerbitzuei dagokienez, Arabak 44,53 euro gastatzen ditu, Gipuzkoak 37,43 eta Bizkaiak 32,65. Diferentzia askoz ere nabarmenagoa da okupazio-zentro eta enplegu-zentro berezien alorrean, Araban 27,32 euro gastatzen diren bitartean, 8,83 eta 4,14 euro gastatzen baitira Gipuzkoan eta Bizkaian. Zerbitzuen eskaintza-egituran dauden aldeek azaltzen dute diferentzia hori: Bizkaiak eta Gipuzkoak ez dituzte aldundietako gizarte-zerbitzuen bidez finantzatzen enplegu-zentro bereziak, eta Araban nabarmena da Aldundiak ematen duen finantzazioa.

Arabako Foru Aldundiak egiten du gastu handiena familientzako laguntza ekonomikoen alorrean, 16 euro per capita gastua egiten baitu, Gipuzkoako 9,50 euroen eta, batik bat, Bizkaiko 0,63 euroen nabarmen gainetik.

Eguneko zentroetan egindako gastuak aztertzen baditugu probintzia bakoitzean, ikusten da gastu handiagoa egiten dela Gipuzkoan eta Bizkaian, Araban baino: 13,13 eta 10,59 euro hurrenez hurren lehen bietan eta 9,20 euro Araban. Araban zerbitzu hori okupazio-zentroen sare publikotik eskaintzen delako da aldea horren nabarmena.

Bizkaiko Foru Aldundiak egiten du per capita gastu handiena aldizkako prestazio ekonomikoetan; izan ere, Bizkaiak 16,31 euroko per capita gastua egiten du, Gipuzkoak 11,71 eurokoa eta Arabak 9,18 eurokoa. Kasu honetan, egiaztatu egiten da, itxura batean, laguntzen eta pobrezia-mailaren arteko korrelazioa, handiagoa baita hura Bizkaian. Hori horrela, babes-sistemako prestazio orokorren bestelako sarrera-iturri bat dira prestazio horiek, ezintasunak dituzten pertsonen kolektiboentzat.

Adineko pertsonen sektorean gertatzen den moduan, Bizkaiko Foru Aldundiak egiten du gastu handiena promozio eta prebentzioko politiketan eta lantalde teknikoetan. Bizkaiak 11,23 euro per capita gastatzen ditu promozio eta prebentzioko politiketan, Arabako 8,86 euroak eta Gipuzkoako euroa baino gehiago. Lantalde tekniko espezializatuen kasuan, Bizkaiak 9,15 euro gastatzen ditu pertsonako, Arabak 6,04 euro eta Gipuzkoak 4,14 euro.

**Foru-aldundiek gaixotasunen, ezintasunen eta minusbaliotasunen sektorean egiten duten gastua, programa, zerbitzu eta prestazioen arabera. 2011**

| | Per capita gastua* | | | | % Bertikalak | | | | Foru-finantziazioaren % -a |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | |
| Lantalde Teknikoa | 6,04 | 9,15 | 4,14 | 7,07 | 4,7 | 10,6 | 4,6 | 7,6 | 99,9 |
| Egoitza-zerbitzuak | 44,53 | 32,65 | 37,43 | 35,94 | 34,8 | 38,0 | 42,0 | 38,6 | 86,1 |
| Etxeko laguntza | 4,78 | 0,32 | 1,40 | 1,32 | 3,7 | 0,4 | 1,6 | 1,4 | 45,1 |
| Eguneko zentroak | 9,20 | 10,59 | 13,13 | 11,21 | 7,2 | 12,3 | 14,7 | 12,0 | 85,2 |
| OZ-EZB | 27,32 | 4,14 | 8,83 | 9,05 | 21,3 | 4,8 | 9,9 | 9,7 | 31,0 |
| MGL-GOF-KGP | 9,18 | 16,31 | 11,71 | 13,77 | 7,2 | 19,0 | 13,1 | 14,8 | 100,0 |
| Familientzako Lag. Eko. | 16,00 | 0,63 | 9,50 | 5,76 | 12,5 | 0,7 | 10,7 | 6,2 | 87,2 |
| Laguntza Perts. Lag. Ek. | 0,74 | 0,96 | 0,72 | 0,85 | 0,6 | 1,1 | 0,8 | 0,9 | 85,9 |
| Lag. ekonomikoak | 0,55 | 0,01 | 1,07 | 0,43 | 0,4 | 0,0 | 1,2 | 0,5 | 78,3 |
| Promozioa eta prebentzioa | 8,86 | 11,23 | 1,00 | 7,56 | 6,9 | 13,1 | 1,1 | 8,1 | 81,2 |
| Gizarteratzea eta laneratzea | 0,86 | 0,00 | 0,15 | 0,17 | 0,7 | 0,0 | 0,2 | 0,2 | 100,0 |
| Guztira | 128,06 | 85,99 | 89,07 | 93,14 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 74,2 |

Gastuaren muntari erreparatuta, foru-aldundien hirugarren gastu-xedea familien, haurren eta gastuen sektorea da, gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastu arruntaren % 13 gastatzen baitute sektore horretan.

Sektore horretan egiten den gastu publikoaren % 51,5 finantzatzen dute foru-erakundeek. Osorik finantzatzen dituzte harrera eta adopzioko programak, egoitza-zerbitzuen % 97,1 eta lantalde teknikoen gastuaren % 83,8. Nabarmena da, era berean, sektoreko laguntza ekonomikoen sistemara egiten duten ekarpena, haren % 68,5 finantzatzen baitute. Sektoreko alor gutxitan ez dute egiten foru-aldundiek finantza-ekarpen handiena. Horien artean daude promozioaren eta prebentzioaren alorrak, foru-aldundietatik jasotzen dutenak diruaren % 43,9 eta % 18,2.

Adineko pertsonen eta ezintasunak dituzten pertsonen sektoreetan ez bezala, parekotasun handiagoa dago foru-aldundiek familien, haurren eta gazteen sektorean egiten duten gastuan. Sektore horretan, gainera, Arabak diru-ekarpen apalagoa egiten du. Kasu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak 53,97 euro per capita gastatzen ditu sektorean, Gipuzkoan eta Bizkaian baino gehiago (43,92 euro eta 39,10 euro, hurrenez hurren).

Egoitza-zerbitzuek jasotzen dute diru gehien foru-aldundietatik hiru probintzietan, % 60tiko gorako proportzioetan. Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten du per capita gastu handiena alor horretan, 41,87 euro, Arabako eta Bizkaiko gastua baino 1,5 aldiz handiagoa (27,56 eta 27,63 euro, hurrenez hurren).

Araban, familia-interbentzioaren alorra da sektoreko bigarren gastu-xedea, foru-gastuaren % 18,3rekin. Gastuaren xede horren ondorioz, beste bi probintzietan baino gastu nabarmen handiagoa egiten da Araban: 8,02 euro probintzia horretan, 4,23 euro Bizkaian eta 2,88 euro Gipuzkoan. Beste bi probintziek baino gastu handiagoa egiten du Arabak harrera eta adopzioko programetan (2,47 euro per capita probintzia horrek, 2,28 Gipuzkoak eta 1,44 Bizkaiak).

Gipuzkoan, prestazio ekonomikoak dira bigarren gastu-xedea; hala, 3,53 euro per capita jartzen ditu probintzia horretako foru-aldundiak. Beste bi probintziek ez dute ia ezertxo ere jartzen. Promozio eta prebentzioko programetan ere beste bi probintziek baino gastu handiagoa egiten du Gipuzkoak, baina per capita gastu oso apalarekin, euro batetik beherako zenbatekoan. Bizkaian, lantalde teknikoak finantzatzea da gastuaren bigarren xedea, haren aurrekontuaren % 13,4 eta pertsonako 5,24 euroko gastua bideratzen baitu alor horretara. Gipuzkoan baino diru gehixeago jartzen du pertsonako (2,63 euro probintzia horretan), baina Araban baino zertxobait gutxiago (5,59 euro probintzia horretan).

Finean, beste bi probintziek baino per capita gastu handiagoa egiten du Gipuzkoako Foru Aldundiak egoitza-zerbitzuetan eta prestazio ekonomikoetan, eta sektorean egiten duen gastu orokor handiagoa azaltzen du lehen gastuak. Arabak, berriz, beste bi probintziek baino per capita gastu handiagoa egiten du familia-interbentzioan, harrera eta adopzioan eta lantalde teknikoetan. Azkenik, lantalde teknikoen finantzazioan soilik gerturatzen da gastu-maila gorenetara.

**Foru-aldundiek familien, haurren eta gazteen sektorean egiten duten gastua, programa, zerbitzu eta prestazioen arabera. 2011**

| | Per capita gastua* | | | | % Bertikalak | | | | Foru-finantziazioaren % -a |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | |
| Lantalde Teknikoa | 5,59 | 5,24 | 2,63 | 4,45 | 12,7 | 13,4 | 4,9 | 10,0 | 83,8 |
| Egoitza-zerbitzuak | 27,56 | 27,63 | 41,87 | 32,25 | 62,8 | 70,7 | 77,6 | 72,2 | 97,1 |
| Harrera/Adopzioa | 2,47 | 1,44 | 2,28 | 1,86 | 5,6 | 3,7 | 4,2 | 4,2 | 100,0 |
| Familia-interbentzioa | 8,02 | 4,23 | 2,88 | 4,34 | 18,3 | 10,8 | 5,3 | 9,7 | 43,9 |
| Lag. ekonomikoak | 0,28 | 0,00 | 3,53 | 1,19 | 0,6 | 0,0 | 6,5 | 2,7 | 68,5 |
| Sustap. eta preb. | 0,00 | 0,55 | 0,78 | 0,55 | 0,0 | 1,4 | 1,4 | 1,2 | 18,2 |
| Guztira | 43,92 | 39,10 | 53,97 | 44,64 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 51,5 |

Foru-aldundiek ez dute hain zeregin nabarmenik –bigarren mailakoa dela ere esan daiteke– Gizarte-bazterketaren eta droga-mendekotasunen aurkako programa eta prestazioen finantziazio publikoan, sektorera guztizko gastuaren % 9,3 bideratuz. Gizarte-bazterketaren eta droga-mendekotasunaren arloan erakunde publikoek eginiko gastuaren % 13,4 baino ez da gastu hori.

Hala ere, foru-aldundiek finantza-ekarpen handia egiten dute zenbait arlotan. Esaterako, foru-aldundiek finantzatzen dute bazterketa-egoeran dauden pertsonak laneratu eta gizarteratzeko ekintzen % 95,8, alojamendu-zerbitzuen % 67,1 eta lantalde espezializatuen % 67,5. Aldundiek egiten dute gasturik handiena, halaber, laguntza ekonomikoak finantzatzeko (% 55,4).

Gastuaren zenbatekoari erreparatuta, ikusten da Gipuzkoa eta Bizkaikoak baino gastu apalagoa egiten duela Arabako Foru Aldundiak. Per capita gastuari erreparatuta ere, Bizkaiak eta Gipuzkoak egiten dute gastu handiena: 34,79 eta 33,40 euro, hurrenez hurren, Arabak baino 1,6 eta 1,5 aldiz gehiago (22,09 euro gastatzen ditu probintzia horrek pertsonako).

Bizkaiaren egoerari erreparatuta, ikusten da Arabarekiko duen gastu-aldea laneratze- eta gizarteratze-programak finantzatzeko egiten duen ekarpenean datzala, sektorean egiten duen gastuaren % 60,6 gastatzen baitu alor horretan. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak 21,08 euro jartzen ditu biztanleko laneratze- eta gizarteratze-programetarako. Diru-zenbateko handia da hori, baldin eta Gipuzkoako Aldundiak xede horretarako jartzen dituen 8,39 euroekin eta Arabako Aldundiak jartzen dituen 5,66 euroekin konparatzen badugu.

Gipuzkoak alojamendu-prestazioetan egiten duen gastu handiak azaltzen du probintzia horrek sektore horretan Arabarekiko duen aldea. Alor horretara bideratzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak sektorean egiten duen gastuaren % 25. Arabak % 10 bideratzen du eta Bizkaiak % 14,4. Datuak per capita gastatzen diren eurotara ekarriz, 8,35 euro gastatzen dira Gipuzkoan, 4,99 Bizkaian eta 2,22 Araban. Gipuzkoak gastu nabarmen bat egiten du, era berean, laguntza ekonomiko osagarriak finantzatzeko (3,94 euro per capita probintzia horretan, 2 euro Bizkaian eta zenbateko baliogabea Araban).

Arabak egiten du gastu handiena lantalde teknikoetan; izan ere, alor horretara bideratzen du sektorean egiten duen gastuaren % 45,4, hau da, 10,04 euro biztanleko (Bizkaian 6,33 euro, eta 4,89 euro Gipuzkoan).

**Foru-aldundiek gizarte-bazterketaren sektorean egiten duten gastua, programa, zerbitzu eta prestazioen arabera. 2011**

| | Per capita gastua | | | | % Bertikalak | | | | Foru-finantziazioaren % -a |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | |
| Lantalde Teknikoa | 10,04 | 6,33 | 4,89 | 6,40 | 45,4 | 18,2 | 14,6 | 19,7 | 67,5 |
| Ostatua | 2,22 | 4,99 | 8,35 | 5,68 | 10,0 | 14,4 | 25,0 | 17,5 | 67,1 |
| BMLP | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Lag. ekonomikoak | 0,56 | 2,00 | 3,94 | 2,42 | 2,5 | 5,7 | 11,8 | 7,4 | 55,4 |
| Gizarteratzea | 5,66 | 21,08 | 8,39 | 14,71 | 25,6 | 60,6 | 25,1 | 45,3 | 50,7 |
| Gizart. eta laneratzea | 3,61 | 0,39 | 7,83 | 3,28 | 16,4 | 1,1 | 23,4 | 10,1 | 95,8 |
| Guztira | 22,09 | 34,79 | 33,40 | 32,48 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 13,4 |

## 3.3. Udalak

Foru-aldundien oso atzetik bada ere, udalek ekarpen adierazgarri bat egiten dute Euskal Autonomia Erkidegoaren gizarte-zerbitzuen egitura finantzatzeko. Erakunde publikoek 2011. urtean egin duten gastu osoaren % 12,3 finantzatu dute udalek; hala, hirugarren finantzazio-eragilea dira, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren atzetik.

Gizarte-zerbitzuek, gainera, udalek egiten duten gastuaren ehuneko adierazgarri bat biltzen dute. Hala, udalek beren aurrekontu orokorraren % 8,3 gastatu zuten 2011. urtean gizarte-zerbitzuen alorrean.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek beren gastuaren % 45,2 bideratzen dute adineko pertsonen sektorera, % 22,1 oinarrizko gizarte-zerbitzuak finantzatzera, % 12,7 familia, haur eta gazteen sektoreko programetara, eta beste % 10,2 gizarte-bazterketaren sektorera. Udalak bat datoz foru-aldundiekin adineko pertsonen sektorea eta familien, haurren eta gazteen sektorea diruz laguntzeko joeran, baina,

horrez gain, udalek esku-hartze sendoak egiten dituzte biztanleria guztiaren sektorean (oinarrizko gizarte-zerbitzuak), emakumeen sektorean eta droga-mendekotasunen sektorean. Hiru sektore horietako lehenengoan egiten den gastuaren % 83,2 finantzatzen dute udalek, eta emakumeen eta droga-mendekotasunen sektoreetako gastuaren % 45 inguru ordaintzen dute.

Gastuaren lurralde-alderdia funtsezkoa da puntu horretan; hala, per capita gastuan alde are handiagoak ikusten dira foru-aldundien kasuetan ikusitakoak baino. Hori horrela, Arabako udalek 135,41 euro gastatzen ditu biztanle bakoitzeko, Gipuzkoakoek gastatzen dutenaren bikoitza ia (69,25 euro) eta Bizkaiko udalek baino 1,5 aldiz gehiago (92,61 euro). Alde hori, funtsean, hiriburuko udalak, Gasteizkoak, bere gain harturiko gastu-maila handiari zor zaio; izan ere, Araba guztiko biztanleriaren hiru laurden baino gehiago (% 75) biltzen du udal-mugape horrek.

Faktore anitz daude Arabako udalek gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastu handiagoa azaltzeko. Lehenik, foru-erakundeekin gertatzen zen bezala, guztizko aurrekontu erabilgarria handiagoa da Erkidegoko probintzia horretan. Alde horretatik, Arabako udalen guztizko per capita gastuak biztanle bakoitzeko 42,80 eurotan gainditzen du Bizkaiarena, eta 66,16 eurotan Gipuzkoarena.

Bigarrenik, gastu-xedeen aniztasuna aipatu behar da, eta, berariaz, gizarte-ekintzak Araban duen protagonismo nabarmena. Hori horrela, aurrekontuaren % 10,4 gizarte-zerbitzuetara bideratzen dute Arabako udalerriek, eta Bizkaia eta Gipuzkoakoek, aldiz, % 8,7 eta % 6,7, hurrenez hurren. Horrenbestez, udal-erakundeei buruzko datuek esaten digute Arabako udalerriek beste bi probintzietako udalerriek baino aurrekontu-ehuneko handiago bat erabiltzen dutela gizarte-zerbitzuak finantzatzeko.

Horren ondorioz, Arabako Udalek protagonismo zertxobait handiagoa dute gizarte-zerbitzuetako guztizko gastuaren finantziazioan. Udalek finantzatzen dute Arabako gizarte-zerbitzuetako guztizko gastuaren % 15,5, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, % 12,4 eta % 10,3, hurrenez hurren.

**Udalen guztizko gastu arrunta eta gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta. 2011**

| | Per capita gastu arrunta | | G. Zer. gastuaren % -a aurrek. ar. 2011 | Udalek 2011n gizarte-zerbitzuetako gastura egindako ekarpenaren % -a |
|---|---|---|---|---|
| | Gizarte-zerbitzuek 2011 | Gastu arrunterako aurrekontua 2011n | | |
| Araba | 135,41 | 1.305,23 | 10,4 | 15,5 |
| Bizkaia | 92,61 | 1.071,94 | 8,7 | 12,4 |
| Gipuzkoa | 69,25 | 1.090,66 | 6,7 | 10,3 |
| EAE | 91,28 | 1.112,11 | 8,3 | 12,3 |

Dena dela, Araban, beti nabarmendu behar da Gasteizko Udalak duen protagonismo izugarria. Udal horren eragina erabakigarria da, bai biztanle bakoitzeko edo per capita gastuan, bai gastuaren lehentasunak ezartzeko garaian. Gasteizko udalerrian egiten da Araban ematen diren gizarte-zerbitzu

guztien gastuaren % 78,5, eta horri dagokionez, hiriburuko Udala dugu Arabako udal-gastuaren % 95en arduraduna.

Nabarmen ikusten da Gasteizen berezitasuna Arabako Lautadako datuak beste euskal eskualde batzuetako datuekin konparatzen badira. Errealitate horren adierazgarri dira, alde batetik, gizarte-zerbitzuetara bideratutako aurrekontuaren ehuneko askoz ere handiagoak (% 11,9), eta, bestetik, lurraldeari dagokion guztizko gastuari eginiko ekarpen erabakigarria (% 17,8).

Diferentziak oso agerikoak dira Arabako Lautadako datuak konparatzen badira euskal hiriburuetako gainerako eskualdeetakoekin. Eskualde horretako udalek haien aurrekontu osoaren % 11,9 bideratzen dute gizarte-zerbitzuetara, baina portzentaje hori % 9,3koa da Bilbo Handian eta % 7,2koa Donostialdean. Egoera hori bera ikusten da udalek eskualdeko gizarte-zerbitzuen guztirako gastuari egiten dioten finantza-ekarpena aztertuz gero: % 17,8 Arabako Lautadan, % 12,8 Bilbo Handian eta % 12,9 Donostialdean.

Hiriburuetako eskualdeetatik kanpo, eskualde hauetako udalek bideratzen dute beren aurrekontuetako ehuneko handi bat gizarte-zerbitzuak finantzatzera: Goierri eta Debagoiena Gipuzkoan, Durangaldea, Enkarterriak, Gernika-Bermeo eta Markina-Ondarroa Bizkaian. Eskualde horietako gehienetan, udal-aurrekontuaren % 6 bideratzen dute gizarte-zerbitzuetara; hala ere, Gernika-Bermeo eta Markina-Ondarroa eskualdeetan % 9,5era gerturatzen dira, Bilbo Handiko ehunekotik gertu eta Donostialdeako ekarpen-ehunekotik gora. Bizkaiko eta Gipuzkoako gainerako eskualdeetan, udalek gizarte-zerbitzuetan egiten duten aurrekontu ekarpena bi ehuneko hauen bitartekoa da: % 3,9koa, txikiena, Plentzia-Mungia eskualdean, eta % 5,5ekoa, handiena, Tolosaldean.

Araban, landa-eskualdeetan egiten du gasturik handiena probintzia horretako foru-aldundiak, eta horrek berezitu egiten du probintzia horretako egoera, hiriburuko eskualdekoak ez diren udalek parte-hartze oso txikia baitute gizarte-zerbitzuen gastu-finantzazioan. Izan ere, landa-eskualde horietako udalek haien aurrekontuaren % 2-3 inguru erabiltzen dute gizarte-zerbitzuak finantzatzeko. Arabako Mendialdea da salbuespen bakarra, % 4,8ko partaidetzarekin. Bizkaian eta Gipuzkoan gizarte-zerbitzuak finantzatzeko udal-aurrekontuen ehuneko txikiak baliatzen dituzten eskualdeen pareko gastu-maila da hori. Arabako landa-udalerrien tamaina txikia da horren arrazoi nagusia, baina baita Arabaren foru-tradizioa ere, foru-aldundiaren esku-hartzea lehenetsi duen aldetik.

Biztanleriak bizilekuaren arabera udalaren gastu-mailan izan ditzakeen alde handiak erakusten dute aurkezturiko datuek. Gasteiz eta gainerako udalerrien arteko aldeak nabarmendu ondoren, adierazi behar da lotuta daudela gastu-maila eta herriaren tamaina; izan ere, gastu-mailak gora egiten du demografia-datuek gora egiten duten neurrian. Horrenbestez, deskribaturiko errealitateak kanpo-

kontrapisu bat behar du, logikari jarraiki udalaz gaindiko erakundeei dagokiena. Egiaz, erakunde horien menpe dago gastu-mailen artean funtsezko oreka lortzea, eta, berariaz, foru-aldundien esku-hartzearen mende. Oro har, behar bezala funtzionatzen du orekatze-faktore horrek, baina, hala ere, eskualde batzuetan gastu-mailak ez dira gainerakoen parera iristen, batez ere demografikoki garrantzitsuak diren zenbait zonaldetan.

**Udalek gizarte-zerbitzuetan egindako gastu arrunta eta gastu osoa, eta ahalegin ekonomikoaren adierazleak, eskualdeka. 2011**

| | Per capita gastua | | G. Zer. gastuaren % -a aurrek. ar. 2011 | Udalek 2011n gizarte-zerbitzuetako gastura egindako ekarpenaren % -a |
|---|---|---|---|---|
| | Gizarte-zerbitzuak 2011 | Gastu arrunterako aurrekontua 2011n | | |
| Arabako lautada | 161,70 | 1.354,79 | 11,9 | 17,8 |
| Arabako Bailarak | 35,13 | 1.087,84 | 3,2 | 5,0 |
| Arabako Errioxa | 19,37 | 1.075,65 | 1,8 | 2,4 |
| Arabako Mendialdea | 40,50 | 842,58 | 4,8 | 5,0 |
| Zuia-Gorbeialdea | 21,31 | 1.102,80 | 1,9 | 3,4 |
| Arabako Kantaurialdea | 32,56 | 1.142,78 | 2,8 | 4,5 |
| Bilbo Handia | 101,45 | 1.089,52 | 9,3 | 12,8 |
| Enkarterriak | 58,89 | 975,86 | 6,0 | 9,4 |
| Arratia-Nerbioi | 54,88 | 1.096,84 | 5,0 | 9,1 |
| Durangaldea | 62,29 | 1.033,62 | 6,0 | 11,0 |
| Gernika-Bermeo | 95,19 | 1.027,96 | 9,3 | 13,8 |
| Markina-Ondarroa | 90,91 | 943,78 | 9,6 | 15,4 |
| Plentzia-Mungia | 39,29 | 1.002,80 | 3,9 | 7,2 |
| Donostialdea | 86,73 | 1.212,75 | 7,2 | 12,9 |
| Bidasoa Beherea | 46,11 | 874,88 | 5,3 | 9,2 |
| Tolosaldea | 55,35 | 1.003,35 | 5,5 | 9,0 |
| Goierri | 55,42 | 946,06 | 5,9 | 6,6 |
| Debagoiena | 70,52 | 1.119,81 | 6,3 | 10,8 |
| Debabarrena | 43,89 | 963,46 | 4,6 | 6,7 |
| Urola Kosta | 55,73 | 1.037,25 | 5,4 | 7,6 |

**Gizarte-zerbitzuetan egiten den per capita gastua eskualdeka. 2011**



Udalek gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastua zertan erabiltzen duten aztertuta, nabarmentzekoa da adineko pertsonen sektorean gastatzen dela diru gehien hiru probintzietan: % 37,3 Gipuzkoan, % 40,6 Araban eta % 50,7 Bizkaian. Adineko pertsonen sektorean gastatzen da diru gehien, baina Araba da gastua modu orekatuenean banatzen duena sektoreen artean.

Sektoreka egiten den per capita gastuaren datuek erakusten dute alde handia dagoela Arabako udalek, eta, bereziki, Gasteizko Udalak egiten duen gastuaren eta EAEko gainerako udalek egiten duten gastuaren artean. Adineko pertsonen sektorean ere ikusten da alde edo diferentzia hori. Sektore horretan, Arabako udalek 55,03 euro gastatzen dute biztanle bakoitzeko, Bizkaiko udalek gastatzen dutena baino 1,2 aldiz gehiago (46,93 euro), eta Gipuzkoakoek gastatzen dutenaren bikoitza baino gehiago (25,85 euro).

Dena dela, Familia, haur eta gazteen sektorean eta gizarte-bazterketaren sektorean da handiena alde hori. Lehen kasuan, Gipuzkoako udalerriek baino 4 aldiz gehiago gastatzen dute Gasteizko Udalak eta Arabako gainerako udalek, eta Bizkaikoek baino 2,3 aldiz gehiago (25,10 euro biztanle bakoitzeko Araban, eta Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, 11,10 euro eta 6,34 euro, hurrenez hurren). Gizarte-bazterketaren sektorean, Bizkaia eta Gipuzkoako udalek baino hiru aldiz gehiago gastatzen dute Arabako udalek (24,85 euro Araban, 7,09 euro Gipuzkoan eta 6,31 Bizkaian).

Arabako udalerriek bi sektore horietara bideratutako gastuan ageri duten diferentziak aintzat hartzekoak dira, foru-aldundiek egindako gastuaren azterketak adierazitako datuekin lotuta. Izan ere, Arabako Foru Aldundiak gainerako bi aldundiek baino per capita gastu apalagoa egiten du familien eta gizarte-bazterketaren sektoreetan, baina udalen finantzazio-ekarpenak aise konpentsatzen ditu diferentzia horiek. Hori horrela, indartu egiten da probintzia horretako udalek eta aldundiak eremu horietan duten lidergoa. Araban, udalek eta foru-aldundiak batera egiten duten per capita gastua Familia, haurtzaro eta gazteriaren sektorean 64,66 eurokoa da, 62,31 eurokoa Gipuzkoan eta 51,81 eurokoa Bizkaian. Gizarte-bazterketaren sektorean, per capita gastu hori 45,89 eurokoa da Araban eta 38 euro ingurukoa beste bi probintzietan.

Biztanleria guztiaren sektorean, diferentzia murriztu egiten dira; hala, per capita gastua antzekoa da Gipuzkoan eta Araban, 23,04 euro eta 22,85 euro hurrenez hurren, eta atzerago geratzen da Bizkaia, 17,67 eurorekin. Bizkaian gastua apalagoa den arren, datuek adierazten dute gizarte-zerbitzuen oinarrizko egitura gero eta orekatuagoa dela probintzia guztietan.

Gainerako sektoreetan, udalen per capita gastua apala da probintzia guztietan, eta ez da alde handirik batetik bestera. Hori gertatzen da ezintasunak dituzten pertsonen, emakumeen eta droga-mendekotasunen sektoreetan.

**Udalek egindako gastuaren sektore-banaketa lurralde historikoetan. 2011**

| | Per capita gastua | | | | % Bertikalak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
| Adineko pertsonak | 55,03 | 46,96 | 25,85 | 41,28 | 40,6 | 50,7 | 37,3 | 45,2 |
| Ezintasunak dituzten pertsonak | 1,24 | 3,85 | 1,62 | 2,74 | 0,9 | 4,2 | 2,3 | 3,0 |
| Familia, haurrak eta gazteak | 25,10 | 11,10 | 6,34 | 11,60 | 18,5 | 12,0 | 9,2 | 12,7 |
| Emakumea | 3,41 | 4,67 | 3,14 | 3,99 | 2,5 | 5,0 | 4,5 | 4,4 |
| Gizarte-bazterketa | 24,85 | 6,31 | 7,09 | 9,27 | 18,4 | 6,8 | 10,2 | 10,2 |
| Droga-mendetasunak | 2,92 | 2,06 | 2,16 | 2,22 | 2,2 | 2,2 | 3,1 | 2,4 |
| Biztanleria guztia | 22,85 | 17,67 | 23,04 | 20,17 | 16,9 | 19,1 | 33,3 | 22,1 |
| Guztira | 135,41 | 92,61 | 69,25 | 91,28 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

**Udalen gastuaren sektore-xedea lurralde historikoen arabera (per capita gastua). 2011**




Gastuaren sektore-banaketa programa, zerbitzu eta prestazioen artean nola zehazten den aztertuz gero, ikusten da EAEko udalek adineko pertsonen sektorea finantzatzeko egiten duten ekarpenak baduela portaera-berezitasunik. Bizkaian etxeko laguntzaren alorrean egiten da gastu handiena, egoitza-zerbitzuen alorrean egindako gastua gainditu (% 58,8 etxeko laguntzan eta % 25,3 egoitza-zerbitzuetan). Egoera alderantzizkoa da Araban, % 59,4 gastatzen baitute udalek egoitza-zerbitzuetan eta % 13,7 etxeko laguntzan. Gipuzkoan orekatuagoa da gastu-banaketa, baina Arabako joerari jarraitzen dio; izan ere, udalek % 48,6 gastatzen dute egoitza-zerbitzuetan eta % 27,4 etxeko laguntzan. Udalek egiten duten gastuaren % 70 baino gehiago egiten da hiru probintzietan: % 73,1 Araban, % 84,1 Bizkaian eta % 76 Gipuzkoan.

Hirurogeita bost urtetik gorako pertsona bakoitzeko gastua aztertuz gero, Araba nabarmentzen da, gainerakoek baino gastu askoz ere handiagoa egiten baitu gizarte-zerbitzuetan (185,17 euro probintzia horrek, 65,29 euro Gipuzkoak eta 59,30 euro Bizkaiak), eta alde horiek areagotu egiten dute foru-aldundien gastuan ikusitako alde handia. Orotara, udalek eta foru-aldundiak 908,42 euro gastatzen dituzte Araban 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko egoitza-zerbitzuen alorrean, 572,32 euro gastatzen dira Gipuzkoan eta 471,90 euro Bizkaian.

Etxeko laguntzaren alorrean, Bizkaiko udalek ekarpen handia egiten dute, eta, ondorioz, probintzia horretako udalek eta aldundiak Gipuzkoakoek baino per capita gastu handiagoa egiten dute (155,39 euro Bizkaian eta 128,18 euro Gipuzkoan). Bi probintzia horietako erakundeen guztira jartzen duten per capita zenbatekoa urrun dago, hala ere, Arabako udalek eta aldundiak gastatzen dituzten 267,52 euroetatik.

Eskumen-banaketako eredu berriak udalei eman die erretiro-egoeran dauden pertsonen etxe eta elkarteak finantzatzeko eskumena. Arabako udalek 57,24 euro gastatzen dituzte 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko erretirodunen etxeak finantzatzearen alorrean, Gipuzkoako udalek 16,13 euro jartzen dituzte eta Bizkaikoek 14,21 euro.

Zerbitzuen eta programen gastuak finantzatzeko udalek egiten duten ekarpena aztertzean, ikusten da udalek osorik finantzatzen dituztela erretirodunen etxe eta elkarteak eta adineko pertsonei emandako laguntza ekonomikoak. Era berean, etxeko arretaren % 50,8 finantzatzen dutela adierazi behar da. Bizkaiko udalek egindako gastu nabarmena da ehuneko horren arrazoi nagusia. Bestalde, udalen finantzazio-ekarpena nabarmen apalagoa da sustapeneko eta prebentzioko jardueretan (% 35), egoitza-zerbitzuetan (% 11,5), eguneko zentroetan (% 10,6) eta lantalde teknikoetan (% 10,4).

**Udalek adineko pertsonen sektorean egindako gastua Lurralde Historikoen eta programa, zerbitzu eta prestazioen arabera**

| | Per capita gastua* | | | | % Bertikalak | | | | Udal-finantziazio % -a |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | |
| Lantalde Teknikoa | 11,12 | 3,83 | 0,46 | 3,71 | 3,6 | 1,6 | 0,3 | 1,7 | 10,4 |
| Egoitza-zerbitzuak | 185,17 | 59,30 | 65,29 | 77,95 | 59,4 | 25,3 | 48,6 | 36,7 | 11,5 |
| Etxeko laguntza | 42,56 | 137,82 | 36,83 | 92,69 | 13,7 | 58,8 | 27,4 | 43,6 | 50,8 |
| Eguneko zentroak | 10,61 | 9,35 | 5,61 | 8,31 | 3,4 | 4,0 | 4,2 | 3,9 | 10,6 |
| Etxeak | 57,24 | 14,21 | 16,13 | 20,54 | 18,4 | 6,1 | 12,0 | 9,7 | 100,0 |
| Promozioa | 4,91 | 9,82 | 9,64 | 9,11 | 1,6 | 4,2 | 7,2 | 4,3 | 35,0 |
| Lag. ekonomikoak | 0,00 | 0,14 | 0,48 | 0,23 | 0,0 | 0,1 | 0,4 | 0,1 | 100,0 |
| Guztira | 311,60 | 234,47 | 134,45 | 212,55 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 16,5 |

* 65 urteko eta hortik gorako pertsonentzako per capita gastua

Familia, haur eta gazteen sektoreari buruzko esku-hartze politikak oso orientazio edo ildo desberdinak ageri ditu probintziatik probintziara. Bizkaiko eta Gipuzkoako udalek familia-interbentzioko ekintzetan erabiltzen dituzte baliabide gehienak (gastu osoaren % 86,2 eta % 94,1, hurrenez hurren), eta Araban gastu-banaketa askoz ere orekatuagoa eta anitzagoa da. Familia-interbentzioa da gastu-ildo nagusia (% 28,6), baina sektorean egiten diren gainerako gastuetan zeresan handia dute udalek; izan ere, gastuaren % 23,2 baliatzen dute egoitza-zerbitzuetan, % 19,6 lantalde teknikoen ordainketan, % 14,8 promozio eta prebentzioko jardueretan eta % 13,7 laguntza ekonomikoetan.

Per capita gastuan islatzen da Arabako udalek familia-interbentzioan egiten duten gastu-ehunekoa apalagoa; izan ere, Bizkaikoa baino apalagoa baita per capita gastua probintzia horretan (7,19 euro Araban eta 9,56 euro Bizkaian). Gipuzkoako udalek diru gutxiago bideratzen dute, 5,97 euro pertsonako. Udalen eta aldundien ekarpenak batera aztertuta, Araba da per capita diru gehien bideratzen duena, 15,21 euro baliatzen baititu interbentzio-alor horretan. Bizkaiak 13,79 euro bideratzen ditu eta 8,85 Gipuzkoak.

Gainerako jarduera-alorretan, ordea, nabarmena da Arabako udalek gastu handiagoa egiten dutela. Lurraldeen arteko alde nagusia egoitza-zerbitzuei lotzen zaie, Arabak 5,82 euro bideratzen baitizkie, eta arlo horretan praktikan ez dute esku hartzen Bizkaiko eta Gipuzkoako udalek. Probintziek arreta-sektore horretan egiten duten gastu-aldea handitzen duen beste elementu bat da Arabako udalek 4,92 euroko per capita gastua egiten dutela sektore horretan lantalde tekniko espezializatuak izateko; hala, kontuan izan behar da beste bi probintzietan foru-aldundiek hartzen dutela beren gain gastu hori. Alde edo diferentziak agerikoak dira, era berean, promozioko eta prebentzioko jarduera-alorrean (3,73 euro gastatzen dute pertsonako Arabako udalek, 1,13 euro Bizkaikoek eta 0,23 euro Gipuzkoakoek) laguntza ekonomikoen alorrean (3,44 euro finantzatzen dituzte Arabako udalek eta 0,15 euro beste bi probintzietako udalek).

Sektore honetan, hala ere, familia-interbentzioaren alorreko gastuan soilik dute udalek nagusitasuna (EAEn egiten den gastu osoaren % 56,1 finantzatzen dute), eta adierazgarria da promozio-jardueretan egiten duten ekarpena (% 28,3) eta sektoreko laguntza ekonomikoen alorrean egiten dutena (% 31,5). Sektore horretan, egoitza-zerbitzuetan egiten da gasturik handiena, baina udalek % 2,9ko partaidetza baino ez dute finantziazioan.

**Udalek familien, haurren eta gazteen sektorean egiten duten gastua, programa, zerbitzu eta prestazioen arabera. 2011**

| | Per capita gastua | | | | % Bertikalak | | | | Finantzaketa % -ak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Udalek |
| Lantalde Teknikoa | 4,92 | 0,23 | 0,00 | 0,84 | 19,6 | 2,1 | 0,0 | 7,2 | 12,3 |
| Egoitza-zerbitzuak | 5,82 | 0,03 | 0,00 | 0,87 | 23,2 | 0,3 | 0,0 | 7,5 | 2,9 |
| Familia-interbentzioa | 7,19 | 9,56 | 5,97 | 8,05 | 28,6 | 86,2 | 94,1 | 69,4 | 56,1 |
| Promozioa | 3,73 | 1,13 | 0,23 | 1,22 | 14,8 | 10,2 | 3,6 | 10,5 | 28,3 |
| Laguntza ekonomikoak | 3,44 | 0,15 | 0,15 | 0,63 | 13,7 | 1,4 | 2,3 | 5,4 | 31,5 |
| Guztira | 25,10 | 11,10 | 6,34 | 11,60 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 13,1 |

Gizarte-bazterketaren sektorean, udalek finantzazio lan handia egiten dute gainerako laguntza ekonomikoetan (EAEn egiten den gastu osoaren % 44,6) eta aterpetxe eta alojamenduen alorrean (% 32,9). Udalek, halaber, partaidetza nabarmena dute gizarte-bazterketaren alorreko lantaldeetako langileen ordainketan (% 19,4) eta gizarteratze-programen estalduran (% 14,5). Gizarteratze eta laneratzeko programen udal-finantzazioak oso txikia izaten jarraitzen du, gastu osoaren % 2,4 soilik finantzatzen baitute udalek. Gizarte-larrialdietarako laguntzek eragiten duten gastuaren % 7,6 soilik finantzatzen dute udalek.

Per capita gastuko datuen arabera, Arabako udalen ekarpenak (27,77 euro) hirukoiztu egiten du Gipuzkoako udalek (9,25 euro) eta Bizkaiko udalek (8,37 euro) egindako ekarpena.

Alde handi horien arrazoia da Arabako udalek diru gehiago gastatzen dutela alojamenduen, laguntza ekonomikoen eta gizartearen jardun-alorretan. Alojamenduen alorrean, Arabako udalek 7,50 euroko gastua egiten dute pertsonako, Gipuzkoako udalek gastatzen dituzten 2,99 euroak baino 2,5 aldiz gehiago eta Bizkaiko udalek gastatzen dituzten 1,37 euroak baino 5,5 aldiz gehiago. Laguntza ekonomikoen alorrean, Arabako udalek 4,53 euro gastatzen dituzte, Gipuzkoako udalek gastatzen dituzten 1,94 euroak baino 2,3 aldiz gehiago eta Bizkaiko udalek gastatzen dituzten 1,24 euroak baino 3,7 aldiz gehiago. Azkenik, gizarteratzearen alorrean, Arabako udalek 11,96 euro gastatzen dituzte pertsonako, Bizkaiko udalek baino 3,6 aldiz gehiago (3,28 euro) eta Gipuzkoakoek baino 5,4 aldiz gehiago (2,20 euro).

Nabarmentzekoa da Arabako udalek gizarteratzearen alorrean egiten duten gastua. Izan ere, udal horiek gizarteratze-jardueretan erabiltzen dute gizarte-bazterketaren sektorean egiten duten gastu osoaren % 43,1. Bizkaian sektore-gastuaren % 39,1 baliatzen dute eta % 23,8 Gipuzkoan.

Udalek, ordea, oso ekarpen txikia egiten dute gizarte-larrialdietako gastuaren alorrean; hala, Gipuzkoako udalek egiten duten finantzazio-ekarpen handiena, % 9,9koa. Hala ere, per capita gastua probintzia horretan 0,92 eurokoa da, 0,61 eurokoa Bizkaian eta hutsala Araban (0,08 euro).

**Udalen gastua gizarte-bazterketaren sektorean, programa, zerbitzu eta prestazioen arabera. 2011**

| | Per capita gastua | | | | % Bertikalak | | | | Finantzaketa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | % -ak Udalek |
| Lantalde Teknikoa | 3,69 | 1,87 | 0,98 | 1,84 | 13,3 | 22,3 | 10,6 | 16,0 | 19,4 |
| Alojamendua | 7,50 | 1,37 | 2,99 | 2,79 | 27,0 | 16,3 | 32,3 | 24,3 | 32,9 |
| GLL | 0,08 | 0,61 | 0,92 | 0,63 | 0,3 | 7,3 | 9,9 | 5,5 | 7,6 |
| Lag. ekonomikoak | 4,53 | 1,24 | 1,94 | 1,95 | 16,3 | 14,8 | 21,0 | 16,9 | 44,6 |
| Gizarteratzea | 11,96 | 3,28 | 2,20 | 4,20 | 43,1 | 39,1 | 23,8 | 36,5 | 14,5 |
| Giz. eta laneratzea | 0,00 | 0,02 | 0,22 | 0,08 | 0,0 | 0,2 | 2,4 | 0,7 | 2,4 |
| Guztira | 27,77 | 8,37 | 9,25 | 11,49 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 4,7 |

## 3.4 Eusko Jaurlaritza

Euskal Autonomia Erkidegoan egun dagoen eskumen-egitura kontuan izanez gero, gizarte-zerbitzuen arloko esku-hartzearen ardatz nagusia foru-aldundiei dagokie, eta udalek osatuko dute haien esku-hartzea. Diru-sarrerak bermatzeko politika osagarria abiarazi ondoren, Eusko Jaurlaritzak gero eta garrantzi handiagoa du sektorean, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuetan egiten den gastu publikoaren % 35,5 finantzatzen duen aldetik. Politika hori 2002. urtean abiarazi zen, eta, geroztik, gizarte-prestazioak eta -zerbitzuak finantzatzeko bigarren iturria da. Udalak ziren, urte horretara arte, bigarren finantzazio-iturria.

Eusko Jaurlaritzaren gastuaren dibertsifikazio gero eta handiagoa da aurreko urteekiko bigarren nobedadea; izan ere, 2001. urtera arte, gizarte-bazterketaren sektorera bideratzen zuen gastuaren % 90 baino gehiago, eta, 2002. urtetik aurrera, familien, haurren eta gazteen sektorera zabaldu du lehentasunezko jarduera. Eusko Jaurlaritzak, 2011. urtean, bi sektore horietan erabili du gizarte-prestazio eta -zerbitzuetara bideratu duen gastu osoaren % 87,4.

Dena dela, gizarte-zerbitzuen alorreko aurrekontuaren zati handiena, % 75,5, gizarte-bazterketaren sektorea finantzatzera bideratzen du Jaurlaritzak, eta, berariaz, diru-sarreren bermerako politikaren baitako programak finantzatzera. Eusko Jaurlaritzaren ekarpena funtsezkoa da sektore horretan, erakunde horrek ordaintzen baitu EAEn gizarte-bazterketaren aurka egiteko indarrean diren programek dakarten gastu osoaren % 83,4.

EAEko Jaurlaritzak familien, haurren eta gazteen sektorera bideratzen du gizarte-prestazio eta -zerbitzuetan egiten duen gastuaren % 11,9, eta ekarpen horren bidez finantzatzen da sektore horretan egiten den gastu osoaren % 35,3 del. Laguntza ekonomikoak, eta, bereziki, familiei laguntzeko programa eta lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko programa dira EAEko administrazio orokorrak sektorean esku hartzeko baliatzen dituen bide nagusiak.

Gizarte-zerbitzuetan egiten duen gastuaren % 7,9 bideratzen du Jaurlaritzak ezintasunak dituzten pertsonen arlora, eta, ekarpen horren bidez, sektore horretan egiten den gastu osoaren % 16,6 finantzatzen du. Enplegu-zentro berezien alor zehatzera bideratzen du Jaurlaritzak ezintasunak dituzten pertsonen sektorera bideratzen duen gastuaren % 95.

Horrez gainera, biztanleria guztiari zuzendutako gizarte-zerbitzuetan egiten den gastuaren % 13, finantzatzen du, eta ekarpen sinboliko bat egiten du (% 0,3 orotara) emakumeen eta droga-mendetasunen alorretara. Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzeak alor horretako guztizko gastuaren % 14,1 osatzen du.

Eusko Jaurlaritzaren lehentasunezko interbentzio-sektore dira, lehen adierazi dugun moduan, gizarte-bazterketari eta pobreziari aurre egiteko sektorea, eta, haren baitan, Jaurlaritzak sektore horretara bideratzen duten gastuaren % 94,4 bideratzen da diru-sarrerak bermatzeko laguntzetara eta larrialdi-egoerak babestera. Arlo horietan egiten duen gastuaren baitan, gastuaren % 80,1 Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta finantzatzera bideratzen du, Etxebizitzarako Prestazio Osagarrira % 15,8 eta Gizarte Larrialdiko Laguntzetara % 4,1. Prestazio horietan egiten den gastuaren ehuneko banaketa oso antzekoa da EAEko hiru probintzietan, baina Bizkaian handiagoa da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentara bideratutako ehunekoa (gastu guztiaren % 82,1 Bizkaian, % 75,5 Araban eta % 75,4 Gipuzkoan).

Orotara, Eusko Jaurlaritzak biztanle bakoitzeko 187,10 euro ematen dizkio euskal gizarteari, Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Planaren prestazioen bidez. Esku-hartze edo interbentzio horrek zuzendu egiten ditu, neurri batean, beste erakunde batzuen gastu-politikan ikusitako joerak, batez ere Bizkaiari dagokion ekarpen-maila handiagoarengatik (biztanle bakoitzeko 246,20 euro). Araba da sailkapen horretako bigarren lurraldea, biztanle bakoitzeko 179,62 eurorekin, Gipuzkoara bideratzen den zenbatekoaren oso gainetik (94,20 euro).

Adierazitako aldeak prestazio guztietan errepikatzeko joera ikusten da, baina Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan egiten den gastua da haiek modu nabarmenagoan adierazten dituena: 202,16 euroko per capita gastua bideratzen da Bizkaira,135,53 euro Arabara eta 71,06 Gipuzkoara. Ekarpen horrek Bizkaian duen eragina Araban duena baino 1,5 aldiz handiagoa da eta Gipuzkoan duena baino 2,8 aldiz handiagoa.

Etxebizitzarako Prestazio Osagarrian, gastua orekatu egiten da Araban eta Bizkaian (36,33 eta 35,42 euro, hurrenez hurren), eta nahiko atzera geratzen da Gipuzkoa (17 euro pertsonako).

Azkenik, gizarte-larrialdietarako laguntzetan ikusten dira alderik txikienak probintziatik probintziara. Bizkaira bideratzen da diru gehien (8,62 euro per capita) eta Gipuzkoara gutxien (6,14 euro per capita). Bien artean geratzen da Araba (7,76 euro per capita). Gainerako prestazioetan baino alde txikiagoak ikusten dira, beraz, lurraldeen artean.

**Pobreziaren aurka borrokatzeko planaren prestazio ekonomikoak. 2011**

| | | DBE | EPO | GLL | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 43.265.677 | 11.597.257 | 2.476.790 | 57.339.724 |
| | Bizkaia | 233.653.453 | 40.934.509 | 9.959.406 | 284.547.368 |
| | Gipuzkoa | 50.424.791 | 12.064.444 | 4.353.588 | 66.842.823 |
| | EAE | 327.343.921 | 64.596.210 | 16.789.784 | 408.729.915 |
| Per capita gastua | Araba | 135,53 | 36,33 | 7,76 | 179,62 |
| | Bizkaia | 202,16 | 35,42 | 8,62 | 246,20 |
| | Gipuzkoa | 71,06 | 17,00 | 6,14 | 94,20 |
| | EAE | 149,84 | 29,57 | 7,69 | 187,10 |
| % horizontalak | Araba | 75,5 | 20,2 | 4,3 | 100,0 |
| | Bizkaia | 82,1 | 14,4 | 3,5 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 75,4 | 18,0 | 6,5 | 100,0 |
| | EAE | 80,1 | 15,8 | 4,1 | 100,0 |
| % bertikalak | Araba | 13,2 | 18,0 | 14,8 | 14,0 |
| | Bizkaia | 71,4 | 63,4 | 59,3 | 69,6 |
| | Gipuzkoa | 15,4 | 18,7 | 25,9 | 16,4 |
| | EAE | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Bizkaiko demografia-datuek azaltzen dute zergatik jasotzen duen probintzia horrek Jaurlaritzak diru-sarreren bermerako eta gizarte-larrialdietarako jartzen duen diruaren % 69,6. Arrazoi horretan oinarrituta, % 16,4 bideratzen da Gipuzkoara eta % 14 Arabara. Ildo horri berari jarraituz, Jaurlaritzak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan egiten duen gastuaren % 71,4 jasotzen du Bizkaiak.

Zifrak oso antzekoak dira pobreziarekin loturiko beste laguntza-prestazio batzuetan, kontribuzio-mailakoak ez direnetan –MLG, KGP eta GOF–. Prestazio horietan, Jaurlaritzak ekarpen-ehuneko apalagoa bideratzen du Bizkaira eta zertxobait handiagoa Gipuzkoara (% 59,9 Bizkaira, % 28,7 Gipuzkoara eta % 11,5 Arabara). Diferentzia horrek agerian jar dezake gazteek pobrezia-egoera handiagoa bizi dutela Bizkaian[8], baina baita premia-egoeran dauden gipuzkoarrak ez direla neurri berean sartzen diru-sarrerak bermatzeko euskal sisteman.

---

[8] Ildo horretan, gogoan izan behar da KGP, GOF eta MGL prestazioak adineko pertsonei ematen zaizkiela batez ere, haiek baitira Gizarte Segurantzako Sistemak Euskal Autonomia Erkidegoan bereziki babesten dituen pertsonak.

**Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta beste laguntza-prestazio batzuk lurralde historikoetan. 2011**

| | | DBE | KGP-GOF-MGL | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Araba | 43.265.677 | 5.966.826 | 49.232.503 |
| | Bizkaia | 233.653.453 | 31.126.526 | 264.779.979 |
| | Gipuzkoa | 50.424.791 | 14.913.834 | 65.338.625 |
| | EAE | 327.343.921 | 52.007.186 | 379.351.107 |
| Per capita gastua | Araba | 135,53 | 18,69 | 154,22 |
| | Bizkaia | 202,16 | 26,93 | 229,09 |
| | Gipuzkoa | 71,06 | 21,02 | 92,08 |
| | EAE | 149,84 | 23,81 | 173,65 |
| % horizontalak | Araba | 87,9 | 12,1 | 100,0 |
| | Bizkaia | 88,2 | 11,8 | 100,0 |
| | Gipuzkoa | 77,2 | 22,8 | 100,0 |
| | EAE | 86,3 | 13,7 | 100,0 |
| % bertikalak | Araba | 13,2 | 11,5 | 13,0 |
| | Bizkaia | 71,4 | 59,9 | 69,8 |
| | Gipuzkoa | 15,4 | 28,7 | 17,2 |
| | EAE | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

## *3.5. Autonomia-erkidegoez gaindiko erakundeak*

Adierazi dugun moduan, autonomia-erkidegoez gaindiko erakunde batzuek ere parte hartzen dute Euskal Autonomia Erkidegoaren gizarte-zerbitzuen finantziazioan, eta erakunde horien artean azpimarratzekoak dira Europako Gizarte Funtsa eta Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistema (SAAD). Erakunde horiek, orotara, EAEko gizarte-zerbitzuen % 4,7 finantzatzen dute. Proportzioa zertxobait handiagoa da Gipuzkoan (% 6,1 probintzia horretan, % 4,4 Araban eta % 4 Bizkaian).

Autonomia-erkidegoez gaindiko erakundeetatik datozen funtsez gehiena SAAD sistematik datoz, mendetasunaren alorreko laguntzak kudeatzen dituen erakundea den aldetik. Aztertu diren erakundeek finantzatutako gastuaren % 0,2 soilik finantzatu dute Europako Gizarte Funtsek.

**Erkidegoz gaindiko erakundeen gastua Lurralde Historikoen arabera. 2011**

| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | SAAD | 12.175.845 | 34.252.345 | 29.024.843 | 75.453.033 |
| | EGIF | 0 | 0 | 138.400 | 138.400 |
| | GUZTIRA | 12.175.845 | 34.252.345 | 29.163.243 | 75.591.433 |
| % bertikalak | SAAD | 100,0 | 100,0 | 99,5 | 99,8 |
| | EGIF | 0,0 | 0,0 | 0,5 | 0,2 |
| | GUZTIRA | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Per capita gastua | SAAD | 38,14 | 29,64 | 40,90 | 34,54 |
| | EGIF | 0,00 | 0,00 | 0,20 | 0,06 |
| | GUZTIRA | 38,14 | 29,64 | 41,10 | 34,60 |

Erakunde horien jarduera bi sektoretan oinarritzen da funtsean: adineko pertsonen sektorea eta Ezintasunak dituzten pertsonen sektorea. Adinekoen sektorera beren aurrekontuaren % 74,2 bideratzen dute, baina sektoreko gastu osoaren % 10,3 finantzatzen da zenbateko horrekin. Ezintasunak dituzten pertsonen sektorera bideratzen dute haien gastuaren % 25,6, eta zenbateko horrek sektoreko gastu osoaren % 7,1 finantzatzen du. Beren funtsak oso-osorik bideratzen dira mendetasun-egoeran daudenentzako laguntza ekonomikoak finantzatzera, mendetasunerako prestazioen eta zerbitzuen bitartez.

Kasu batean zein bestean, autonomia-erkidegoez kanpoko erakundeen funtsak mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsonei ematen zaizkien laguntza ekonomikoak finantzatzeko erabiltzen dira, mendetasunerako prestazioen eta zerbitzuen bidez.

Gainerako sektoreetan oso presentzia txikia dute. Alde horretatik, erakunde horiek finantzatzen dute gizarte-bazterketako sektorean egiten den gastuaren % 0,2. Sektorean egiten duten ekarpenaren helburua da gizarteratzeko eta laneratzeko jarduerak finantzatzea lan-merkatuan sartzeko arazo bereziak dituztenei.

**Autonomia-erkidegoez gaindiko erakundeek egindako gastua, gastu-sektoreen arabera. 2011**

| | | SAAD | EGIF | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Gastua, guztira | Adinekoak | 56.102.300 | | 56.102.300 |
| | Ezintasunak dituzten pertsonak | 19.350.733 | | 19.350.733 |
| | Gizarte-bazterkeria | | 138.400 | 138.400 |
| | GUZTIRA | 75.453.033 | 138.400 | 75.591.433 |

# IV.- UDALEN ARTEKO ALDEEN AZTERKETARA HURBILKETA

Lurralde historikoen eta eskualdeen artean dauden gastu-aldeak azaldu ditugu orain arte txosten honetan. Probintzia eta eskualdeen arteko alde edo diferentzia horien atzean, ordea, udal ugariren egoera espezifikoak daude, eta haiek lehen mailako aztergune izan behar dute. Alde horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuek osatzen duten babes-sistemari erreparatuta, herritarren egoera aldatu egiten da herritik herrira, azterlan hau egiteko erabili den ikuspegi ekonomikotik begiratuta behintzat.

## 1. Desberdintasun orokorrak gizarte zerbitzuetako udal-gastuan

Nabarmendu beharreko lehen datua da 2011. urtean txikia izaten jarraitzen duela udalerrien biztanle-kopuruaren eta udalek gizarte-zerbitzuetan egiten duten per capita gastuaren arteko korrelazioa edo lotura. Udalerriek 10.000 biztanle baino gehiago badituzte, korrelazio hori 0,399 puntukoa da EAE osoan, baina oso kontuan izan behar da Araban 0,999 puntukoa dela. Adierazle hori nabarmen apalagoa da Bizkaian eta Gipuzkoan (0,244 eta 0,105, hurrenez hurren).

Korrelazio edo harreman apal horren arrazoiak aztertu ondoren, ikusi da udalerri horietan egiten den gastua, oro har, ez dela 100.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriek egiten dutena baino handiagoa. Araban soilik dute udalerriek aitzindaritza gastu-mota horretan. Gasteizko Udalak 171,43 euro gastatzen ditu pertsonako gizarte-zerbitzuetan, eta zenbateko horrek nabarmen gainditzen ditu Laudio edo Amurrio moduko udalerriek gastatzen dituzten 37 euroak.

Bizkaira joz, ikusten da 20.000 biztanletik gorako hiru udalerrik gainditzen dutela Bilbo eta Barakaldo hiri handietako per capita gastua (109,83 eta 96,42 euro gastatzen dituzte bi horiek). Santurtzi (133,37 euro), Sestao (127,70 euro) eta Basauri (116,89 euro) dira udalerri horiek, eta zenbateko horietatik gertu dabil, tamaina horretako udalerrien artean, Portugalete (94,25 euro). Bi udalerri handi horietako per capita batez bestekoak txikiagoak dira, era berean, 10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko bi udalerriena baino, Bermeo eta Trapagaran udalerriena baino (154,03 eta 126,78 euro, hurrenez hurren).

Gipuzkoan, 79,52 euroko per capita gastua egiten du Donostiak, baina gastu handiagoa egiten du Errenteriak (119,53 euro) eta 20.000 biztanle baino gutxiago duten zenbait udalerrik: Lasarte-Oriak (122,57 euro), Hernanik (103,53 euro), Pasaiak (97,86 euro), Bergarak (83,20 euro) eta Oiartzunek (81,77 euro).

Adierazi beharreko beste faktore bat da gastu-maila apalak hauteman direla 20.000 biztanle baino gehiagoko zenbait udalerritan. Izan ere, 65 eurotik beherako per capita batez bestekoak hauteman dira Bizkaiko Galdakao (62,87 euro) eta Durangon (63,43 euro) eta Gipuzkoako Zarautz (54,64 euro), Eibar (51,09 euro) eta Irunen (47,70 euro). Gastu-maila horiek apalagoak dira 20.000 biztanle baino gutxiago izan eta 66 eurotik 78 eurora bitarteko batez bestekoak ageri dituzten beste udalerri batzuetakoak baino. Azken horien adibide dira, esaterako, Amorebieta-Etxano, Oñati eta Tolosa (era berean, gastu-maila horiek 20.000 biztanle baino gehiago dituzten beste udalerri batzuen antzekoa da; hala nola Getxo, Leioa, Erandio eta Arrasate).

Gasteiz da, Euskal Autonomia Erkidegoan, udal-gastu handiena egiten duen udalerria, Bilbokoa baino 1,6 aldiz handiagoa, Barakaldokoa baino 1,8 aldiz handiagoa eta Donostiakoa baino 2,2 aldiz handiagoa. Gastu-maila handiago hori gastu handiena biltzen duten sektoreetan kontzentratua ageri da: adineko pertsonen sektorean, familia, haur eta gazteen sektorean eta gizarte-bazterketaren sektorean. Adineko pertsonen sektorean, Gasteizko Udalak egiten duen gastua 1,4 aldiz handiagoa da Bilbokoa baino, Barakaldokoa baino 1,9 aldiz handiagoa, eta Donostiakoa baino 2,6 aldiz handiagoa; familia, haur eta gazteen sektorean, Gasteizko Udalaren gastua 1,6 aldiz handiagoa da Barakaldokoa baino, Bilboko Udalaren bikoitza gastatzen du eta Donostiako Udalak baino 5,7 aldiz gastu handiagoa egiten du; azkenik, gizarte-bazterketaren sektorean, Bilbo eta Donostiako udalek egiten duten gastua baino 2,5 aldiz gastu handiagoa egiten du Gasteizko Udalak, eta Barakaldokoak baino 4,1 aldiz handiagoa.

Gasteizko Udala da, gainera, gizarte-zerbitzuak finantzatzeko udal-gastuaren ehuneko handienetako bat egiten duen udalerrietako bat. Udal horrek gizarte-zerbitzuetara bideratzen du bere aurrekontuaren % 12,4, eta ehuneko hori Bilbok eta Barakaldok egiten duten gastu-ehunekoa baino handiagoa da (% 9,3 eta % 9,7), eta Donostiakoa baino nabarmen handiagoa (% 6,3).

Hala ere, bada EAEn Gasteizko Udalaren gastu-ehunekoa gainditzen duen udalerririk. Hala, 20.000 biztanletik gorako udalerrien artean, Bizkaiko Santurtzi (% 13) eta Gipuzkoako Errenteria (% 12,5) nabarmendu behar dira. Halaber, 10.000 eta 20.000 biztanle bitartean dituzten udalerrien kasuan, Bermeo ageri da Gasteizko Udalaren gastu-ehunekoaren gainetik, % 15,3rekin.

Bilbo eta Barakaldoz gain, beren aurrekontuko ehuneko nabarmenak, % 9tik gorakoak, erabiltzen dituzte honako udalerri hauek: Trapagaranek (% 12,4), Sestaok (% 11,9), Basaurik (% 11,6) eta Portugaletek (% 9,9) Bizkaian, eta Lasarte-Oriak (% 10,6), Pasaiak (% 9,3) eta Hernanik (% 9,1) Gipuzkoan.

Azpimarratu beharrekoa da gizarte-arloko gastuaren bideratze selektibo hori erabakigarria dela; izan ere, egiaztatu dugu udal-aurrekontuaren % 9 edo gehiago gizarte-zerbitzuetara bideratzen duten udalek finkatzen dutela Euskadin 100 euro per capita inguruko edo handiagoko udal-gastua.

Udalerriaren tamainaren arabera aztertzen badugu udalen gastu xedea, alderdi hauek nabarmentzen dira 40.000 biztanletik gorako udalerrietan:

➔ Per capita gastu handienetakoa egiten du Gasteizek, eta hori zuzenean dago lotuta udal horrek familien, haurren eta gazteen sektorean eta gizarte-bazterketaren sektorean egiten duen gastu handiagoarekin. Gasteizko Udalak 65,36 euro gastatzen du pertsonako bi sektore horietan. Bilbok eta Barakaldok, esaterako, 29 euro inguru gastatzen dute (28,67 eta 29,15, hurrenez hurren), Donostiak 19,22 euro eta 14 euro baino gutxiago 40.000 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerriek. Bi sektore horietan egiten den gastu erlatiboaren batura gizarte-zerbitzuetan egiten den gastuaren % 38,1 da Gasteizen, eta % 24,2 eta % 29,8 bitartekoa 100.000 biztanletik gorako gainerako udalerrietan.

Gasteizen gastua nabarmen handiagoa den arren (32,62 euro per capita), hiru hiriburuek nabarmen diru gehiago bideratzen dute gizarte-bazterketara 40.000 biztanletik gorako gainerako herriek baino. Per capita gastua 13 eurotik gorakoa da hiru hiriburuetan, baina, esaterako, 7,89 eurokoa da Barakaldon eta 5 eurotik beherakoa 40.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri handienen artean, aldeak ikusten dira 100.000 biztanle baino gehiago eta gutxiago dituzten udalerrien artean familien, haurren eta gazteen sektorean egiten den gastuan, nahiz eta Donostia salbuespena den ildo orokor horretan. Hori horrela, 15 euro per capita baino gehiago gastatzen dute Barakaldok, Gasteizek eta Bilbok, baina 10 eurotik behera gastatzen dira Donostian eta 40.000 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan. Gastu erlatiboari begiratuta, nabarmentzekoa da Barakaldon gizarte-gastuen % 21,6 bideratzen dela familien, haurren eta gazteen sektorera, hura baita proportziorik handiena EAEn 40.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrien artean.

➔ Familien, haurren eta gazteen sektorean eta gizarte-bazterketaren sektorean egiten den gastuak azaltzen du, beraz, Barakaldok, Bilbok eta Gasteizek 100 euro inguruko edo gehiagoko per capita gastua izatea, baina nabarmentzekoa da adineko pertsonen sektorean egindako gastuarengatik

iristen direla gastu-maila horretara Basauri eta Santurtzi. Udalerri horietan per capita egiten den gastua da handiena EAEn 40.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrien artean (91,44 euro per capita gastatzen dira Santurtzin eta 78,84 euro Basaurin); hala, Gasteizen baino diru gehiago gastatzen dute alor horretan (70,11 euro bideratzen dira Arabako hiriburuan).

Basauri eta Santurtzi nabarmendu egiten dira, era berean, per capita gastu handia egiten dutelako udalek gastu-ehuneko txikiak bideratzen dituzten sektoreetan, nola diren ezintasunak dituzten pertsonen sektorea, emakumeen sektorea eta droga-mendetasunen sektorea. Sektore horietan, 18,29 euroko per capita gastua egiten du Santurtzik eta 11,98 eurokoa Basaurik. Hala, Barakaldok soilik egiten du, 100.000 mila biztanletik gorako herrien artean, gastu handiagoa sektore horietan. Horren harian, nabarmentzekoa da Portugaletek 18,11 euro per capita gastatzen dituela eta horixe duela, hain justu, 100 euro inguruko per capita gastua egitearen arrazoia.

➔ Per capita gastu apalagoa egiten dute gizarte-zerbitzuetan Donostiako, Irungo eta Getxoko udalek, 80 euro baino gutxiago gastatzen baitute pertsonako (95 euroren inguruan edo hortik gora gastatzen dute 40.000 biztanle baino gehiago dituzten gainerako udalerriek), eta horren arrazoia da gastu apalagoak egiten dituztela adineko pertsonen sektorean, batik bat Irungo eta Donostiako udalek (15,98 eta 26,50 euro pertsonako). Hiru udalerri handi horiek gainerako udalerri handiekiko —Gasteizen salbuespenarekin— egiten duten gastu nabarmen apalagoa azaltzen duen beste arrazoietako bat da gastu apalagoa egiten dutela, orotara, ezintasunak dituzten pertsonen, emakumeen eta drogramendetasunen sektoreetan.

Bestalde, 10.000 eta 40.000 biztanle bitarteko udalerriak aztertuz gero, ikusten da hauek egiten dutela per capita gastu nabarmena, 80 eurotik gorakoa: Bermeo, Sestao, eta Trapagaranek Bizkaian eta Lasarte-Oria, Errenteria, Hernani, Pasaia, Bergara eta Oiartzunek Gipuzkoan. Udalerri horiei buruzko datu hauek nabarmendu behar dira:

- ➔ Udalerri horiek gastu nabarmena egiten dute biztanleria guztiaren sektorean, 20 eurotik gorako per capita gastua egiten baitute, oro har, jarduera-eremu horretan (oinarrizko gizarte-zerbitzuak dira biztanleria guztiaren sektoreko elementu nagusia).

- ➔ Elementu hori komuna da udalerri horietan, baina kontuan izatekoak dira berezitasunak ere, eta, alde horretatik, nabarmendu beharrekoa da 80 eurotik gorako per capita gastua egiten dutela adineko pertsonen sektorean Bermeok, Sestaok, Trapagaranek eta Lasarte-Oriak. Udalerri horiek, era berean, gastu handia egiten dute, gainerakoekiko konparazioan, ezintasunak dituzten pertsonen sektorean eta/edo familien, haurren eta gazteen sektorean.

  Errenteria, Pasaia eta Oiartzun nabarmentzen dira gizarte-bazterketaren sektorean egiten duten gastuarengatik, 10 eurotik gorako gastua egiten baitute pertsona bakoitzeko. Nabarmenak dira, era berean, Oiartzunek eta Pasaiak familien, haurren eta gazteen sektorean egiten dituzten gastuak.

  Gastu apaleko bi sektore, emakumeena eta drogamendekotasunena, dira gastu-aldea nabarmentzen dutenak Bergaran eta Hernanin.

Adierazi behar da, era berean, badela 40.000 biztanletik beherako udalerririk gastu nabarmena egiten duena gizarte-bazterketaren sektorean; hala nola Etxebarri (14,75 euro), Azpeitia (13,21 euro) eta Arrasate (9,78 euro). Udalerri horiek EAEko batez besteko udal-gastua gainditzen dute sektore horretan, 9,27 eurokoa. Udalerri horiek, gainera, gastu-ehuneko nahiko handiak erabiltzen dituzte emakumeen eta/edo familien, haurren eta gazteen sektoreetan. Gastu orokor apalagoa egiten dute udal horiek, adineko pertsonen sektorean gastu apala egiten dutelako, 20 euro baino gutxiagokoa pertsonako.

Gastuen xedea aztertu ondoren, datu orokor hauek azpimarratu behar dira:

Adinekoen sektorean egiten da gasturik handiena udalerri gehienetan.

Bigarren gastu-kontzeptua biztanleria guztiarentzako gizarte-zerbitzuak ordaintzea izaten da ia udalerri guztietan, oinarrizko gizarte-zerbitzuak ia beti. Kasu horretan, finantziazio-iturri nagusia udal-finantziazioa izaten da.

Udalen hirugarren gastu-kontzeptua gizarte-bazterketaren sektorea edo familien, haurren eta gazteen sektorea izaten da. Kasu batean zein bestean, hala ere, txikiagoa da gastu osoaren udal-finantzazioa.

Udalen partaidetza, aldiz, handiena izan ohi da, edo, gutxienez, oso garrantzitsua, emakumeen sektorea finantzatzeko, EAEko udal gehienetan inpaktu kuantitatibo oso mugatua duen sektorea bada ere.

Nabarmentzekoa da, azkenik, Bizkaiko udalek gastu-maila erlatibo onak izaten dituztela, gainerako probintzietako udalen gastuarekin alderatuta. Horren arrazoia da per capita gastu handiak egiten dituztela, beste probintzietako udalekin konparatuta, biztanleria guztiaren sektorean, eta, bereziki, adineko pertsonentzako zerbitzuetan.

Kontuan izatekoa da, hala ere, Bizkaiko udalen jardunak eragin handia duela, beste bi probintziekin konparatuta, gizarte-zerbitzuetan egiten den gastu osoan, eta erkidegoez gaindiko finantzaketak eragin txikiagoa duela haietan beste probintzietako udaletan baino. Hori bereziki nabaria da adinekoentzako zerbitzuei dagokienez. Esaterako, 40.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, Bizkaiko udalek sektore horren gastu osoari egiten dioten ekarpena % 18tik gorakoa da kasu guztietan, baina % 10etik beherakoa Gipuzkoako udalerrietan. Gasteizko Udalak % 21,8ko ekarpena egiten du, baina ekarpen handiagoak, % 23,1 eta % 36,6 bitartekoak, egiten dituzte Santurtzi, Basauri, Portugalete eta Getxoko udalek.

**Per capita udal-gastua gizarte-zerbitzuetan, arreta-sektoreen eta udalerrien arabera. 2011**

| | Adineko pertsonak | Ezintasunak dituzten pertsonak | Familia, haurrak eta gazteak | Emakumea | Gizarte-bazterketa | Droga-mend. | Biztanleria guztia | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *100.000 biztanle baino gehiago* | | | | | | | | |
| Barakaldo | 37,46 | 5,55 | 20,78 | 5,49 | 7,89 | 2,29 | 16,96 | 96,42 |
| Bilbo | 49,57 | 4,10 | 15,94 | 4,52 | 13,21 | 1,85 | 20,64 | 109,83 |
| Donostia | 26,50 | 1,28 | 5,73 | 3,70 | 13,49 | 3,20 | 25,62 | 79,52 |
| Gasteiz | 70,11 | 1,26 | 32,74 | 3,53 | 32,62 | 3,47 | 27,71 | 171,43 |
| *40.000 biztanletik 100.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Basauri | 78,84 | 0,35 | 9,66 | 9,76 | 3,81 | 1,87 | 12,59 | 116,89 |
| Getxo | 43,46 | 3,95 | 4,84 | 2,77 | 4,62 | 0,97 | 15,50 | 76,10 |
| Irun | 15,98 | 0,28 | 7,37 | 1,35 | 4,39 | 1,05 | 17,27 | 47,70 |
| Portugalete | 49,93 | 7,46 | 6,21 | 3,11 | 1,74 | 7,54 | 18,26 | 94,25 |
| Santurtzi | 91,44 | 8,26 | 4,57 | 7,13 | 1,68 | 2,90 | 17,40 | 133,37 |
| *20.000 biztanletik 40.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Arrasate | 15,36 | 3,30 | 8,94 | 11,43 | 9,78 | 2,57 | 16,99 | 68,36 |
| Durango | 22,79 | 1,54 | 3,70 | 8,73 | 4,61 | 2,00 | 20,06 | 63,43 |
| Eibar | 25,93 | 1,06 | 4,21 | 3,94 | 2,72 | 2,23 | 11,01 | 51,09 |
| Erandio | 34,48 | 1,40 | 8,22 | 2,69 | 4,99 | 3,88 | 17,60 | 73,27 |
| Errenteria | 50,62 | 1,61 | 3,07 | 2,31 | 13,22 | 0,21 | 48,49 | 119,53 |
| Galdakao | 32,42 | 3,83 | 7,24 | 1,51 | 2,41 | 3,67 | 11,80 | 62,87 |
| Leioa | 35,69 | 2,44 | 10,14 | 3,59 | 3,39 | 0,72 | 14,50 | 70,47 |
| Sestao | 95,05 | 0,89 | 9,50 | 2,55 | 0,74 | 0,70 | 18,27 | 127,70 |
| Zarautz | 10,64 | 1,32 | 5,43 | 5,77 | 1,26 | 1,94 | 28,29 | 54,64 |
| *10.000 biztanletik 20.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Amorebieta-Etxano | 31,32 | 13,58 | 6,99 | 3,07 | 1,61 | 0,25 | 20,89 | 77,71 |
| Amurrio | 4,92 | 2,71 | 12,11 | 3,57 | 1,56 | 3,30 | 9,33 | 37,51 |
| Andoain | 12,25 | 0,18 | 9,60 | 1,11 | 1,94 | 1,97 | 24,57 | 51,62 |
| Arrigorriaga | 30,85 | 1,47 | 4,32 | 1,98 | 3,33 | 1,38 | 17,31 | 60,65 |
| Azkoitia | 24,66 | 1,53 | 5,24 | 1,80 | 5,63 | 0,93 | 19,64 | 59,43 |
| Azpeitia | 9,54 | 0,33 | 3,70 | 8,03 | 13,21 | 1,42 | 16,41 | 52,64 |
| Beasain | 8,67 | 0,34 | 8,38 | 0,16 | 2,52 | 1,95 | 17,60 | 39,61 |
| Bergara | 38,99 | 4,09 | 7,48 | 1,88 | 4,26 | 3,38 | 23,12 | 83,20 |
| Bermeo | 110,87 | 6,80 | 10,02 | 0,77 | 1,53 | 2,14 | 21,91 | 154,03 |
| Elgoibar | 7,90 | 3,83 | 1,61 | 4,18 | 0,88 | 1,17 | 16,45 | 36,02 |
| Ermua | 6,62 | 1,25 | 8,36 | 8,94 | 2,50 | 1,67 | 17,65 | 46,99 |
| Etxebarri | 17,22 | 0,68 | 15,14 | 0,64 | 14,75 | 0,00 | 11,08 | 59,51 |
| Gernika-Lumo | 19,27 | 1,85 | 8,57 | 4,69 | 2,13 | 1,86 | 12,73 | 51,09 |
| Hernani | 49,74 | 1,82 | 7,54 | 6,06 | 2,70 | 0,22 | 35,44 | 103,53 |
| Hondarribia | 9,46 | 1,62 | 0,97 | 0,25 | 0,36 | 15,61 | 11,99 | 40,26 |
| Lasarte-Oria | 88,43 | 2,44 | 6,93 | 3,63 | 0,39 | 0,00 | 20,75 | 122,57 |
| Laudio | 3,55 | 2,60 | 1,33 | 7,24 | 3,31 | 3,63 | 15,47 | 37,14 |
| Mungia | 12,13 | 0,67 | 9,89 | 3,34 | 0,75 | 2,01 | 18,41 | 47,20 |
| Oiartzun | 25,77 | 9,91 | 9,35 | 2,62 | 10,28 | 1,48 | 22,35 | 81,77 |
| Oñati | 38,13 | 5,46 | 5,37 | 1,21 | 2,68 | 5,27 | 18,29 | 76,41 |
| Pasaia | 18,66 | 1,94 | 25,75 | 3,26 | 20,58 | 0,73 | 26,93 | 97,86 |
| Sopelana | 13,53 | 0,95 | 3,71 | 2,93 | 0,80 | 0,81 | 7,74 | 30,48 |
| Tolosa | 30,66 | 1,07 | 11,15 | 5,48 | 1,17 | 2,62 | 14,63 | 66,78 |
| Trapagaran | 89,79 | 9,71 | 0,79 | 1,43 | 4,49 | 0,60 | 19,97 | 126,78 |
| Zumarraga | 17,75 | 2,43 | 12,02 | 2,80 | 6,28 | 0,05 | 17,48 | 58,80 |

* Adineko pertsonen sektoreko datuak ematean, per capita gastua adierazten da taulan, eta ez 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko egiten dena

**Udalek gizarte-zerbitzuetan egindako gastuaren banaketa, arreta-sektoreen eta udalerrien arabera.**

**2011**

**(% horizontalak)**

| | Adineko pertsonak | Ezintasunak dituzten pertsonak | Familia, haurrak eta gazteak | Emakumea | Gizarte-bazterketa | Droga-mend. | Biztanleria guztia | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *100.000 biztanle baino gehiago* | | | | | | | | |
| Barakaldo | 38,9 | 5,8 | 21,6 | 5,7 | 8,2 | 2,4 | 17,6 | 100,0 |
| Bilbo | 45,1 | 3,7 | 14,5 | 4,1 | 12,0 | 1,7 | 18,8 | 100,0 |
| Donostia | 33,3 | 1,6 | 7,2 | 4,7 | 17,0 | 4,0 | 32,2 | 100,0 |
| Gasteiz | 40,9 | 0,7 | 19,1 | 2,1 | 19,0 | 2,0 | 16,2 | 100,0 |
| *40.000 biztanletik 100.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Basauri | 67,4 | 0,3 | 8,3 | 8,4 | 3,3 | 1,6 | 10,8 | 100,0 |
| Getxo | 57,1 | 5,2 | 6,4 | 3,6 | 6,1 | 1,3 | 20,4 | 100,0 |
| Irun | 33,5 | 0,6 | 15,5 | 2,8 | 9,2 | 2,2 | 36,2 | 100,0 |
| Portugalete | 53,0 | 7,9 | 6,6 | 3,3 | 1,9 | 8,0 | 19,4 | 100,0 |
| Santurtzi | 68,6 | 6,2 | 3,4 | 5,3 | 1,3 | 2,2 | 13,0 | 100,0 |
| *20.000 biztanletik 40.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Arrasate | 22,5 | 4,8 | 13,1 | 16,7 | 14,3 | 3,8 | 24,9 | 100,0 |
| Durango | 35,9 | 2,4 | 5,8 | 13,8 | 7,3 | 3,2 | 31,6 | 100,0 |
| Eibar | 50,7 | 2,1 | 8,2 | 7,7 | 5,3 | 4,4 | 21,5 | 100,0 |
| Erandio | 47,1 | 1,9 | 11,2 | 3,7 | 6,8 | 5,3 | 24,0 | 100,0 |
| Errenteria | 42,3 | 1,3 | 2,6 | 1,9 | 11,1 | 0,2 | 40,6 | 100,0 |
| Galdakao | 51,6 | 6,1 | 11,5 | 2,4 | 3,8 | 5,8 | 18,8 | 100,0 |
| Leioa | 50,6 | 3,5 | 14,4 | 5,1 | 4,8 | 1,0 | 20,6 | 100,0 |
| Sestao | 74,4 | 0,7 | 7,4 | 2,0 | 0,6 | 0,5 | 14,3 | 100,0 |
| Zarautz | 19,5 | 2,4 | 9,9 | 10,6 | 2,3 | 3,6 | 51,8 | 100,0 |
| *10.000 biztanletik 20.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Amorebieta-Etxano | 40,3 | 17,5 | 9,0 | 3,9 | 2,1 | 0,3 | 26,9 | 100,0 |
| Amurrio | 13,1 | 7,2 | 32,3 | 9,5 | 4,2 | 8,8 | 24,9 | 100,0 |
| Andoain | 23,7 | 0,3 | 18,6 | 2,1 | 3,8 | 3,8 | 47,6 | 100,0 |
| Arrigorriaga | 50,9 | 2,4 | 7,1 | 3,3 | 5,5 | 2,3 | 28,6 | 100,0 |
| Azkoitia | 41,5 | 2,6 | 8,8 | 3,0 | 9,5 | 1,6 | 33,0 | 100,0 |
| Azpeitia | 18,1 | 0,6 | 7,0 | 15,3 | 25,1 | 2,7 | 31,2 | 100,0 |
| Beasain | 21,9 | 0,9 | 21,2 | 0,4 | 6,4 | 4,9 | 44,4 | 100,0 |
| Bergara | 46,9 | 4,9 | 9,0 | 2,3 | 5,1 | 4,1 | 27,8 | 100,0 |
| Bermeo | 72,0 | 4,4 | 6,5 | 0,5 | 1,0 | 1,4 | 14,2 | 100,0 |
| Elgoibar | 21,9 | 10,6 | 4,5 | 11,6 | 2,4 | 3,3 | 45,7 | 100,0 |
| Ermua | 14,1 | 2,7 | 17,8 | 19,0 | 5,3 | 3,6 | 37,6 | 100,0 |
| Etxebarri | 28,9 | 1,1 | 25,4 | 1,1 | 24,8 | 0,0 | 18,6 | 100,0 |
| Gernika-Lumo | 37,7 | 3,6 | 16,8 | 9,2 | 4,2 | 3,6 | 24,9 | 100,0 |
| Hernani | 48,0 | 1,8 | 7,3 | 5,9 | 2,6 | 0,2 | 34,2 | 100,0 |
| Hondarribia | 23,5 | 4,0 | 2,4 | 0,6 | 0,9 | 38,8 | 29,8 | 100,0 |
| Lasarte-Oria | 72,1 | 2,0 | 5,7 | 3,0 | 0,3 | 0,0 | 16,9 | 100,0 |
| Laudio | 9,6 | 7,0 | 3,6 | 19,5 | 8,9 | 9,8 | 41,7 | 100,0 |
| Mungia | 25,7 | 1,4 | 21,0 | 7,1 | 1,6 | 4,3 | 39,0 | 100,0 |
| Oiartzun | 31,5 | 12,1 | 11,4 | 3,2 | 12,6 | 1,8 | 27,3 | 100,0 |
| Oñati | 49,9 | 7,1 | 7,0 | 1,6 | 3,5 | 6,9 | 23,9 | 100,0 |
| Pasaia | 19,1 | 2,0 | 26,3 | 3,3 | 21,0 | 0,7 | 27,5 | 100,0 |
| Sopelana | 44,4 | 3,1 | 12,2 | 9,6 | 2,6 | 2,7 | 25,4 | 100,0 |
| Tolosa | 45,9 | 1,6 | 16,7 | 8,2 | 1,8 | 3,9 | 21,9 | 100,0 |
| Trapagaran | 70,8 | 7,7 | 0,6 | 1,1 | 3,5 | 0,5 | 15,8 | 100,0 |
| Zumarraga | 30,2 | 4,1 | 20,4 | 4,8 | 10,7 | 0,1 | 29,7 | 100,0 |

**Udal-gastuak % -tan duen eragina gizarte-zerbitzuetako guztizko gastuaren gain, arreta-sektoreen eta udalerrien arabera. 2011**

| | Adineko pertsonak | Ezintasunak dituzten pertsonak | Familia, haurrak eta gazteak | Emakumea | Gizarte-bazterketa | Droga-mend. | Biztanleria guztia | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *100.000 biztanle baino gehiago* | | | | | | | | |
| Barakaldo | 18,8 | 4,9 | 23,1 | 46,5 | 2,4 | 42,3 | 80,6 | 12,5 |
| Bilbo | 19,5 | 3,2 | 18,8 | 41,8 | 3,0 | 37,2 | 87,6 | 11,6 |
| Donostia | 9,7 | 0,8 | 5,9 | 71,4 | 10,9 | 39,2 | 97,9 | 11,4 |
| Gasteiz | 21,8 | 0,8 | 28,4 | 38,0 | 12,3 | 76,1 | 85,8 | 18,8 |
| *40.000 biztanletik 100.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Basauri | 33,0 | 0,3 | 12,4 | 60,8 | 1,9 | 37,5 | 79,6 | 17,4 |
| Getxo | 23,1 | 3,9 | 6,6 | 30,5 | 2,2 | 23,7 | 80,8 | 12,6 |
| Irun | 8,1 | 0,3 | 8,9 | 40,9 | 4,5 | 38,3 | 92,4 | 9,3 |
| Portugalete | 25,0 | 6,8 | 8,3 | 33,1 | 0,8 | 70,7 | 82,1 | 14,5 |
| Santurtzi | 36,6 | 7,0 | 6,2 | 53,1 | 0,5 | 48,2 | 84,7 | 16,7 |
| *20.000 biztanletik 40.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Arrasate | 5,5 | 2,3 | 8,4 | 71,0 | 9,1 | 57,8 | 96,7 | 10,1 |
| Durango | 15,3 | 1,6 | 5,1 | 58,1 | 2,6 | 39,1 | 92,6 | 11,7 |
| Eibar | 6,2 | 0,9 | 6,9 | 68,1 | 2,7 | 48,2 | 85,3 | 7,1 |
| Erandio | 18,0 | 1,1 | 10,5 | 29,9 | 1,5 | 55,4 | 85,9 | 9,6 |
| Errenteria | 16,7 | 1,3 | 3,1 | 26,4 | 11,1 | 8,1 | 95,2 | 16,9 |
| Galdakao | 19,7 | 3,7 | 9,5 | 19,3 | 1,8 | 54,0 | 82,6 | 12,5 |
| Leioa | 15,9 | 2,3 | 13,0 | 36,3 | 1,4 | 18,8 | 84,0 | 10,4 |
| Sestao | 37,1 | 0,7 | 12,1 | 28,8 | 0,2 | 18,3 | 81,3 | 15,4 |
| Zarautz | 5,6 | 1,2 | 9,0 | 77,8 | 1,9 | 41,7 | 96,0 | 11,6 |
| *10.000 biztanletik 20.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Amorebieta-Etxano | 17,9 | 12,5 | 9,1 | 32,8 | 1,0 | 7,4 | 90,4 | 13,8 |
| Amurrio | 1,4 | 2,1 | 14,3 | 38,2 | 1,0 | 75,2 | 53,3 | 5,1 |
| Andoain | 5,5 | 0,2 | 14,7 | 39,4 | 2,2 | 56,6 | 98,1 | 10,2 |
| Arrigorriaga | 18,4 | 1,7 | 5,9 | 23,9 | 1,5 | 30,7 | 69,3 | 10,2 |
| Azkoitia | 8,8 | 1,5 | 8,6 | 53,8 | 5,5 | 34,3 | 95,9 | 10,4 |
| Azpeitia | 3,3 | 0,3 | 4,1 | 78,9 | 13,1 | 49,5 | 96,0 | 8,3 |
| Beasain | 4,2 | 0,3 | 10,3 | 10,6 | 3,6 | 80,5 | 96,1 | 8,1 |
| Bergara | 13,9 | 3,3 | 6,9 | 62,6 | 5,5 | 93,1 | 92,5 | 13,4 |
| Bermeo | 41,2 | 6,6 | 12,8 | 10,9 | 0,5 | 40,7 | 60,2 | 19,7 |
| Elgoibar | 3,0 | 2,7 | 2,7 | 47,7 | 1,0 | 32,4 | 97,4 | 6,2 |
| Ermua | 4,3 | 1,3 | 11,0 | 58,7 | 1,3 | 34,9 | 66,0 | 8,3 |
| Etxebarri | 14,9 | 0,7 | 18,2 | 9,2 | 6,7 | 0,0 | 63,9 | 10,9 |
| Gernika-Lumo | 10,5 | 1,8 | 11,1 | 42,7 | 0,8 | 37,3 | 77,0 | 7,6 |
| Hernani | 15,7 | 1,6 | 10,2 | 68,7 | 3,0 | 12,1 | 96,6 | 16,1 |
| Hondarribia | 5,2 | 1,5 | 1,5 | 14,8 | 0,5 | 91,3 | 95,2 | 9,0 |
| Lasarte-Oria | 34,3 | 2,0 | 11,0 | 37,1 | 0,5 | 0,0 | 95,3 | 21,8 |
| Laudio | 1,2 | 1,7 | 1,7 | 55,6 | 1,8 | 76,9 | 86,7 | 5,1 |
| Mungia | 7,8 | 0,9 | 12,8 | 34,7 | 0,3 | 39,2 | 89,0 | 8,4 |
| Oiartzun | 12,1 | 7,5 | 14,8 | 71,7 | 13,0 | 44,6 | 88,5 | 15,7 |
| Oñati | 12,6 | 4,7 | 10,9 | 56,8 | 4,6 | 95,9 | 64,8 | 13,6 |
| Pasaia | 5,9 | 1,4 | 25,4 | 28,3 | 12,1 | 10,9 | 94,6 | 12,7 |
| Sopelana | 8,2 | 1,0 | 5,1 | 31,7 | 0,5 | 20,7 | 79,5 | 5,7 |
| Tolosa | 8,9 | 0,9 | 10,6 | 70,2 | 1,1 | 59,3 | 86,8 | 9,5 |
| Trapagaran | 32,8 | 8,2 | 1,2 | 18,5 | 2,0 | 16,2 | 85,7 | 17,7 |
| Zumarraga | 5,8 | 1,6 | 17,6 | 64,8 | 0,4 | 13,6 | 96,3 | 2,6 |

**Gizarte-zerbitzuetako udal-gastuaren intzidentzia udalaren guztizko gastuaren gain. 2011**

| | Gastua gizarte-zerbitzuetan | Eragiketa arruntak | Gastuaren % -a gizarte-zerbitzuetan |
|---|---|---|---|
| *100.000 biztanle baino gehiago* | | | |
| Barakaldo | 9.647.535 | 99.034.692 | 9,7 |
| Bilbo | 38.736.188 | 415.088.218 | 9,3 |
| Donostia | 14.805.515 | 237.037.304 | 6,3 |
| Gasteiz | 41.067.671 | 329.996.760 | 12,4 |
| *40.000 biztanletik 100.000 biztanlera bitartean* | | | |
| Basauri | 4.928.727 | 42.368.588 | 11,6 |
| Getxo | 6.094.876 | 79.363.146 | 7,7 |
| Irun | 2.909.758 | 51.900.691 | 5,6 |
| Portugalete | 4.499.916 | 45.664.059 | 9,9 |
| Santurtzi | 6.278.586 | 48.441.500 | 13,0 |
| *20.000 biztanletik 40.000 biztanlera bitartean* | | | |
| Arrasate | 1.502.032 | 24.417.335 | 6,2 |
| Durango | 1.790.262 | 26.291.163 | 6,8 |
| Eibar | 1.399.776 | 26.331.572 | 5,3 |
| Erandio | 1.777.726 | 28.269.908 | 6,3 |
| Errenteria | 4.687.460 | 37.521.810 | 12,5 |
| Galdakao | 1.826.261 | 26.446.057 | 6,9 |
| Leioa | 2.146.147 | 29.996.962 | 7,2 |
| Sestao | 3.697.982 | 30.996.927 | 11,9 |
| Zarautz | 1.240.211 | 24.601.668 | 5,0 |
| *10.000 biztanletik 20.000 biztanlera bitartean* | | | |
| Amorebieta-Etxano | 1.409.649 | 20.510.512 | 6,9 |
| Amurrio | 375.644 | 12.401.372 | 3,0 |
| Andoain | 758.267 | 20.054.064 | 3,8 |
| Arrigorriaga | 758.745 | 11.552.665 | 6,6 |
| Azkoitia | 678.521 | 10.269.714 | 6,6 |
| Azpeitia | 755.417 | 15.030.682 | 5,0 |
| Beasain | 543.358 | 10.784.134 | 5,0 |
| Bergara | 1.212.786 | 17.045.569 | 7,1 |
| Bermeo | 2.630.558 | 17.162.453 | 15,3 |
| Elgoibar | 409.204 | 11.250.780 | 3,6 |
| Ermua | 764.641 | 17.643.365 | 4,3 |
| Etxebarri | 603.022 | 10.675.049 | 5,7 |
| Gernika-Lumo | 839.981 | 16.189.726 | 5,2 |
| Hernani | 1.997.760 | 21.882.832 | 9,1 |
| Hondarribia | 664.217 | 15.906.690 | 4,2 |
| Lasarte-Oria | 2.192.612 | 20.713.145 | 10,6 |
| Laudio | 686.809 | 22.114.215 | 3,1 |
| Mungia | 790.047 | 15.229.314 | 5,2 |
| Oiartzun | 818.180 | 12.847.606 | 6,4 |
| Oñati | 843.069 | 12.440.394 | 6,8 |
| Pasaia | 1.560.306 | 16.743.194 | 9,3 |
| Sopelana | 386.854 | 12.171.431 | 3,2 |
| Tolosa | 1.217.602 | 20.006.254 | 6,1 |
| Trapagaran | 1.549.732 | 12.517.600 | 12,4 |
| Zumarraga | 588.454 | 10.617.864 | 5,5 |

## 2. Udal-gastuari buruzko zenbait komentario osagarri sektore, programa eta zerbitzuen arabera

Orain arte egin den azterketa orokorraren osagarri, udalen gastu handiena hartzen duten sektoreen (adineko pertsonen sektorea, oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta gizarte-bazterketa) alor, programa eta zerbitzu batzuei buruzko datu orokorrak emango ditugu hemendik aurrera. Kasu honetan, 20.000 biztanletik gorako udalerriak aztertuko ditugu, baina udalerri txikiagoen datu bereziki azpimarragarriak aipatuko ditugu.

### *2.1. Udalen arteko aldeak Adinekoentzako programetan*

Udalerri hauek gainditu egiten dute 400 euroko gastu-langa 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko: Bermeo (538,05 euro), Trapagaran (459,44 euro), Santurtzi (450,28 euro), Lasarte-Oria (437,61 euro), Sestao (416 euro) y Vitoria-Gasteiz (402,37 euro).

Horien atzetik, beste udal-multzo batek gainditu egiten du, 65 urteko pertsona bakoitzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten den gastuaren batez bestekoa. Hauek dira: Basauri (336,78 euro), Hernani (274,06 euro), Leioa (259,36 euro), Errenteria (254,45 euro), Getxo (232,23 euro), Bilbo (223,94 euro) eta Arrigorriaga (216,14 euro).

Udal hauek dute gastu-mailarik txikiena adineko pertsonen sektorean: Laudio, Amurrio, Ermua eta Elgoibar. Udal horiek 50 euro baino gutxiago gastatzen dituzte 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko[9]. Bestalde, 50 eta 100 euro bitarteko gastua egiten dute udalerri hauek: Gernika-Lumo, Mungia, Irun, Pasaia, Zumarraga, Arrasate, Andoain, Zarautz, Azpeitia, Hondarribia eta Beasain. Udalerri horietatik, Irun eta Arrasate soilik egiten dute 20.000 biztanletik gorako udalerrien artean aztertutakoen pareko gastu-maila.

Udalerri ia guztietan, adinekoentzako udal-gastua batez ere egoitza-zerbitzuetan eta, Bizkaiaren kasuan bereziki, etxeko arretan biltzen da. Horrek azaltzen du, hain justu, zergatik egiten duten egoitza-gasturik handiena adineko pertsonen sektorean gastu handiena egiten duten udalerriek.

Zehaztu behar da, hala ere, egoitza-zerbitzuetan egindako gastua oso baldintzatua dagoela, foru-aldundien mendeko egoitzak izaten baitituzte udalerriek. Kasu horietan, udalek oso gastu txikia egiten dute egoitza-zerbitzuetan. Foru-zerbitzuen mendeko egoitza-zerbitzuak dituzte Leioak eta Laudiok.

---

[9] Berezia da Laudioren kasua, foru-aldundiak hartzen baitu bere gain adinekoentzako egoitza-zentroen gastu guztia eta horregatik du udal horrek gastu-maila txikia.

Beste kasu batzuetan, dirua beste zerbaitetan erabiltzen dela adieraz dezake egoitzen sektorean gastu-maila txikiak egiteak. Hori gertatzen da, esate baterako, Trapagaranen, egoitza-zerbitzuetan duen gastu txikia partzialki konpentsatzen baita etxeko arretan egiten duen udal-gastuarekin. Udalerri horretan, etxeko arretaren per capita gastua 279,98 eurokoa da, EAEko handiena eta Bizkaian adineko zerbitzuetan gastu handia egiten duten beste udal batzuek egiten dutena baino nabarmen handiagoa.

Etxeko arretaren edo laguntzaren alorrean, Bizkaiko udalek egiten duten gasturik handiena, eta horren arrazoia da probintzia horretan udalei dagokiela, esklusibotasunez, jardun-alor horretako eskumena. Euskal Autonomia Erkidegoaren batez bestekotik beherako gastua egiten dute Arabako eta Gipuzkoako udalek (batez besteko hori 92,69 eurokoa da, 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko). Oiartzun da salbuespen bakarra, 115,77 euroko gastuarekin.. Bizkaian, Getxo eta Durango soilik daude batez besteko horren azpitik 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrien artean. Batez bestekotik behera daude, era berean, Sopelana, Gernika-Lumo eta Mungia, 10.000 eta 20.000 biztanle bitartean dituzten herrien artean.

Eguneko zentroen gastua ezin da behar bezala konparatu udal-arloan, gastu hori gehienetan ere egoitza-zerbitzuei esleitzen baitzaie. Hori gertatzen denean, zaila izaten da gastuen gastua zenbatestea, langileak eta instalazioak konpartitzen baitira. Hori dela-eta, zenbait udalerrik oso gastu handia dute, eta beste batzuek, aitzitik, ez dute inolako gasturik biltzen.

Beste alor batean, erretirodunen etxeetako gastuan, ez da alde handirik ikusten herritik herrira. Hala ere, alor horretan gastu-maila nahiko handia da, esaterako, Sestao, Leioa eta Gasteizen, 68 eurotik gorako gastua egiten baitute 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko. Haien atzetik daude, 32 eta 38 euro bitarteko gastuekin, Trapagaran, Portugalete, Galdakao, Basauri, Tolosa eta Hondarribia. Bada horretan gasturik egiten ez edo gastu apalak egiten dituzten herriak, eta horren arrazoia izaten da Gipuzkoako Foru Aldundiak edo, Bizkaian, BBK erakundean finantzatutako etxeak dituztela.

**Udalek per capita egiten duten gastua adineko pertsonen sektorean, programa, zerbitzu, prestazio eta udalerrien arabera. 2011***

| | Lantalde Teknikoa | Egoitza-zerbitzuak | Etxeko laguntza | Eguneko zentroak | Etxeak | Sustapena | Laguntza ekonomikoak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *100.000 biztanle baino gehiago* | | | | | | | | |
| Barakaldo | 18,71 | 32,00 | 102,74 | 21,73 | 2,74 | 1,83 | 0,00 | 179,76 |
| Bilbo | 6,36 | 30,52 | 175,66 | 1,86 | 0,00 | 9,54 | 0,00 | 223,94 |
| Donostia | 0,00 | 71,84 | 39,24 | 0,00 | 11,92 | 5,66 | 0,00 | 128,66 |
| Gasteiz | 15,01 | 249,72 | 57,49 | 8,12 | 71,19 | 0,84 | 0,00 | 402,37 |
| *40.000 biztanletik 100.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Basauri | 0,00 | 121,40 | 182,36 | 0,00 | 32,47 | 0,56 | 0,00 | 336,78 |
| Getxo | 0,00 | 129,87 | 85,24 | 0,00 | 11,27 | 5,85 | 0,00 | 232,23 |
| Irun | 5,75 | 50,78 | 18,35 | 0,00 | 12,16 | 2,65 | 0,00 | 89,68 |
| Portugalete | 0,00 | 0,00 | 111,27 | 63,91 | 38,24 | 1,26 | 0,00 | 214,68 |
| Santurtzi | 0,00 | 301,14 | 107,65 | 13,36 | 9,58 | 18,55 | 0,00 | 450,28 |
| *20.000 biztanletik 40.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Arrasate | 0,00 | 44,60 | 9,47 | 0,00 | 6,59 | 11,47 | 0,00 | 72,14 |
| Durango | 0,00 | 0,00 | 91,64 | 0,00 | 25,41 | 17,23 | 0,00 | 134,28 |
| Eibar | 0,00 | 69,59 | 27,63 | 0,00 | 6,73 | 6,21 | 0,00 | 110,15 |
| Erandio | 0,00 | 83,19 | 105,12 | 0,00 | 0,00 | 1,71 | 0,26 | 190,28 |
| Errenteria | 0,00 | 164,76 | 53,39 | 0,00 | 24,24 | 12,07 | 0,00 | 254,45 |
| Galdakao | 0,00 | 0,00 | 144,27 | 0,00 | 34,71 | 10,83 | 3,24 | 193,05 |
| Leioa | 0,00 | 0,00 | 163,55 | 0,00 | 83,26 | 10,34 | 2,23 | 259,36 |
| Sestao | 0,00 | 206,47 | 138,28 | 0,00 | 68,54 | 2,71 | 0,00 | 416,00 |
| Zarautz | 0,00 | 18,00 | 11,51 | 0,00 | 26,11 | 9,75 | 0,00 | 65,36 |
| *10.000 biztanletik 20.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Amorebieta-Etxano | 0,00 | 0,00 | 151,49 | 0,00 | 21,63 | 10,41 | 0,00 | 183,54 |
| Amurrio | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 12,58 | 10,10 | 4,53 | 0,00 | 27,21 |
| Andoain | 0,00 | 35,12 | 10,44 | 2,13 | 5,65 | 12,72 | 0,00 | 66,07 |
| Arrigorriaga | 0,00 | 0,00 | 195,67 | 0,00 | 16,36 | 4,11 | 0,00 | 216,14 |
| Azkoitia | 0,00 | 38,95 | 48,76 | 28,00 | 6,32 | 8,90 | 0,88 | 131,81 |
| Azpeitia | 0,00 | 10,02 | 25,44 | 0,00 | 5,06 | 12,86 | 0,79 | 54,17 |
| Beasain | 0,00 | 21,25 | 8,82 | 0,00 | 17,20 | 3,87 | 0,00 | 51,14 |
| Bergara | 0,00 | 128,82 | 33,70 | 0,00 | 19,39 | 1,78 | 0,00 | 183,70 |
| Bermeo | 0,00 | 395,66 | 124,98 | 0,00 | 0,00 | 17,41 | 0,00 | 538,05 |
| Elgoibar | 0,00 | 2,82 | 18,17 | 0,00 | 13,87 | 2,95 | 0,00 | 37,80 |
| Ermua | 0,00 | 0,00 | 25,06 | 0,00 | 6,99 | 1,56 | 0,00 | 33,61 |
| Etxebarri | 0,00 | 0,00 | 105,11 | 0,00 | 24,87 | 18,55 | 0,00 | 148,53 |
| Gernika-Lumo | 0,00 | 2,36 | 68,55 | 3,95 | 15,93 | 2,20 | 0,00 | 92,99 |
| Hernani | 0,00 | 176,52 | 72,16 | 10,04 | 11,46 | 3,88 | 0,00 | 274,06 |
| Hondarribia | 0,00 | 12,09 | 8,69 | 0,00 | 32,37 | 0,48 | 0,00 | 53,63 |
| Lasarte-Oria | 0,00 | 234,13 | 64,71 | 113,42 | 17,97 | 7,38 | 0,00 | 437,61 |
| Laudio | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 6,83 | 9,67 | 0,00 | 16,50 |
| Mungia | 0,00 | 0,00 | 52,86 | 0,00 | 4,41 | 31,60 | 0,60 | 89,47 |
| Oiartzun | 0,00 | 0,00 | 115,77 | 0,00 | 13,10 | 32,68 | 1,54 | 163,09 |
| Oñati | 0,00 | 78,62 | 81,32 | 8,25 | 11,28 | 6,68 | 0,00 | 186,14 |
| Pasaia | 0,00 | 21,03 | 21,97 | 9,06 | 15,84 | 14,19 | 1,61 | 83,70 |
| Sopelana | 0,00 | 13,44 | 82,20 | 0,00 | 19,24 | 12,37 | 0,00 | 127,25 |
| Tolosa | 0,00 | 82,46 | 21,91 | 0,62 | 37,97 | 7,98 | 0,85 | 151,79 |
| Trapagaran | 0,00 | 0,00 | 279,98 | 89,19 | 38,29 | 51,98 | 0,00 | 459,44 |
| Zumarraga | 0,00 | 0,00 | 48,03 | 0,00 | 16,32 | 15,11 | 0,00 | 79,46 |

* € per capita, 65 urtetik gorako pertsonako

## Udalek adineko pertsonen sektorean egiten duten gastuaren banaketa, programa, zerbitzu, prestazio eta udalerrien arabera. 2011

**(% horizontalak)**

| | Lantalde Teknikoa | Egoitza-zerbitzuak | Etxeko laguntza | Eguneko zentroak | Etxeak | Sustapena | Laguntza ekonomikoak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *100.000 biztanle baino gehiago* | | | | | | | | |
| Barakaldo | 10,4 | 17,8 | 57,2 | 12,1 | 1,5 | 1,0 | 0,0 | 100,0 |
| Bilbo | 2,8 | 13,6 | 78,4 | 0,8 | 0,0 | 4,3 | 0,0 | 100,0 |
| Donostia | 0,0 | 55,8 | 30,5 | 0,0 | 9,3 | 4,4 | 0,0 | 100,0 |
| Gasteiz | 3,7 | 62,1 | 14,3 | 2,0 | 17,7 | 0,2 | 0,0 | 100,0 |
| *40.000 biztanletik 100.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Basauri | 0,0 | 36,0 | 54,1 | 0,0 | 9,6 | 0,2 | 0,0 | 100,0 |
| Getxo | 0,0 | 55,9 | 36,7 | 0,0 | 4,9 | 2,5 | 0,0 | 100,0 |
| Irun | 6,4 | 56,6 | 20,5 | 0,0 | 13,6 | 2,9 | 0,0 | 100,0 |
| Portugalete | 0,0 | 0,0 | 51,8 | 29,8 | 17,8 | 0,6 | 0,0 | 100,0 |
| Santurtzi | 0,0 | 66,9 | 23,9 | 3,0 | 2,1 | 4,1 | 0,0 | 100,0 |
| *20.000 biztanletik 40.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Arrasate | 0,0 | 61,8 | 13,1 | 0,0 | 9,1 | 15,9 | 0,0 | 100,0 |
| Durango | 0,0 | 0,0 | 68,2 | 0,0 | 18,9 | 12,8 | 0,0 | 100,0 |
| Eibar | 0,0 | 63,2 | 25,1 | 0,0 | 6,1 | 5,6 | 0,0 | 100,0 |
| Erandio | 0,0 | 43,7 | 55,2 | 0,0 | 0,0 | 0,9 | 0,1 | 100,0 |
| Errenteria | 0,0 | 64,7 | 21,0 | 0,0 | 9,5 | 4,7 | 0,0 | 100,0 |
| Galdakao | 0,0 | 0,0 | 74,7 | 0,0 | 18,0 | 5,6 | 1,7 | 100,0 |
| Leioa | 0,0 | 0,0 | 63,1 | 0,0 | 32,1 | 4,0 | 0,9 | 100,0 |
| Sestao | 0,0 | 49,6 | 33,2 | 0,0 | 16,5 | 0,7 | 0,0 | 100,0 |
| Zarautz | 0,0 | 27,5 | 17,6 | 0,0 | 39,9 | 14,9 | 0,0 | 100,0 |
| *10.000 biztanletik 20.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | | |
| Amorebieta-Etxano | 0,0 | 0,0 | 82,5 | 0,0 | 11,8 | 5,7 | 0,0 | 100,0 |
| Amurrio | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 46,2 | 37,1 | 16,6 | 0,0 | 100,0 |
| Andoain | 0,0 | 53,2 | 15,8 | 3,2 | 8,6 | 19,2 | 0,0 | 100,0 |
| Arrigorriaga | 0,0 | 0,0 | 90,5 | 0,0 | 7,6 | 1,9 | 0,0 | 100,0 |
| Azkoitia | 0,0 | 29,5 | 37,0 | 21,2 | 4,8 | 6,7 | 0,7 | 100,0 |
| Azpeitia | 0,0 | 18,5 | 47,0 | 0,0 | 9,3 | 23,7 | 1,5 | 100,0 |
| Beasain | 0,0 | 41,5 | 17,2 | 0,0 | 33,6 | 7,6 | 0,0 | 100,0 |
| Bergara | 0,0 | 70,1 | 18,3 | 0,0 | 10,6 | 1,0 | 0,0 | 100,0 |
| Bermeo | 0,0 | 73,5 | 23,2 | 0,0 | 0,0 | 3,2 | 0,0 | 100,0 |
| Elgoibar | 0,0 | 7,5 | 48,1 | 0,0 | 36,7 | 7,8 | 0,0 | 100,0 |
| Ermua | 0,0 | 0,0 | 74,6 | 0,0 | 20,8 | 4,6 | 0,0 | 100,0 |
| Etxebarri | 0,0 | 0,0 | 70,8 | 0,0 | 16,7 | 12,5 | 0,0 | 100,0 |
| Gernika-Lumo | 0,0 | 2,5 | 73,7 | 4,2 | 17,1 | 2,4 | 0,0 | 100,0 |
| Hernani | 0,0 | 64,4 | 26,3 | 3,7 | 4,2 | 1,4 | 0,0 | 100,0 |
| Hondarribia | 0,0 | 22,5 | 16,2 | 0,0 | 60,4 | 0,9 | 0,0 | 100,0 |
| Lasarte-Oria | 0,0 | 53,5 | 14,8 | 25,9 | 4,1 | 1,7 | 0,0 | 100,0 |
| Laudio | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 41,4 | 58,6 | 0,0 | 100,0 |
| Mungia | 0,0 | 0,0 | 59,1 | 0,0 | 4,9 | 35,3 | 0,7 | 100,0 |
| Oiartzun | 0,0 | 0,0 | 71,0 | 0,0 | 8,0 | 20,0 | 0,9 | 100,0 |
| Oñati | 0,0 | 42,2 | 43,7 | 4,4 | 6,1 | 3,6 | 0,0 | 100,0 |
| Pasaia | 0,0 | 25,1 | 26,3 | 10,8 | 18,9 | 17,0 | 1,9 | 100,0 |
| Sopelana | 0,0 | 10,6 | 64,6 | 0,0 | 15,1 | 9,7 | 0,0 | 100,0 |
| Tolosa | 0,0 | 54,3 | 14,4 | 0,4 | 25,0 | 5,3 | 0,6 | 100,0 |
| Trapagaran | 0,0 | 0,0 | 60,9 | 19,4 | 8,3 | 11,3 | 0,0 | 100,0 |
| Zumarraga | 0,0 | 0,0 | 60,4 | 0,0 | 20,5 | 19,0 | 0,0 | 100,0 |

## 2.2. Udalen arteko aldeak oinarrizko gizarte-zerbitzuetan

Eskala-ekonomiak dira oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta biztanleria guztiarentzako gizarte-zerbitzuetan egiten den udal-gastuaren berezitasunetako bat, hots, udalerriko biztanleria-tamaina hazi ahala, gutxitu egiten dela zerbitzu horiek atxikitzearen per capita inpaktua.

Faktore horrek argitzen du itxurazko paradoxa bat, hots, tamaina txikiagoko udalerrietan aurkitu ahal izatea oinarrizko gizarte-zerbitzuetako per capita gastu handienak.

Dena den, eskala-ekonomiek ez dituzte argitzen biztanleria handiko zenbait udalerriren gastu-maila oso txikiak, zeinetan gastu-maila txikiak mugak dituela erakusten baitu oinarrizko zerbitzuen sare nahikoa sendotzeko biztanleria guztiarentzat.

Egoera hori bizi eta 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrien artean, nabarmentzekoak dira, per capita egiten duten gastu apalarengatik, Eibar, Galdakao, Basauri, Leioa eta Getxoko udalak, 11,01, 11,80, 12,59, 14,50 eta 15,50 euroko per capita gastua egiten dutelako, hurrenez hurren. Hauek dira gastu-maila apaleneko udalerriak, 10.000 eta 20.000 biztanle bitartean dituzten udalerrien artean: Sopelana (7,74 euro), Amurrio (9,33 euro), Etxebarri (11,08 euro), Hondarribia (11,99 euro) eta Gernika-Lumo (12,73 euro).

Gainerako udalerri gehienek 16 eta 23 euro bitarteko per capita gastua egiten dute. Halaber, 25 euroren inguruan edo goragoko gastu-mailan dago Gasteiz eta Gipuzkoako Errenteria, Hernani, Zarautz, Pasaia, Donostia eta Andoain. Horiek dira, beraz, biztanleria guztiari zuzendutako zerbitzuak, eta, batik bat, oinarrizko gizarte-zerbitzuen sistema finantzatzeko per capita diru gehien gastatzen duten udalerriak.

Udalen eskumen esklusiboko zerbitzuak badira ere, kontuan izan behar da Eusko Jaurlaritzaren “Oinarrizko gizarte-zerbitzuak sendotzea" programarekin osatzen dela udalek arlo horretan egiten duten gastua.

## Biztanleria guztiaren sektorean per capita egiten den gastua, udalerrika. 2011

| | Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak |
|---|---|
| *100.000 biztanle baino gehiago* | |
| Barakaldo | 16,96 |
| Bilbo | 20,64 |
| Donostia | 25,62 |
| Gasteiz | 27,71 |
| *40.000 biztanle eta 100.000 biztanle artean* | |
| Basauri | 12,59 |
| Getxo | 15,50 |
| Irun | 17,27 |
| Portugalete | 18,26 |
| Santurtzi | 17,40 |
| *20.000 eta 40.000 biztanle artean.* | |
| Arrasate | 16,99 |
| Durango | 20,06 |
| Eibar | 11,01 |
| Erandio | 17,60 |
| Errenteria | 48,49 |
| Galdakao | 11,80 |
| Leioa | 14,50 |
| Sestao | 18,27 |
| Zarautz | 28,29 |
| *10.000 eta 20.000 biztanle artean.* | |
| Amorebieta-Etxano | 20,89 |
| Amurrio | 9,33 |
| Andoain | 24,57 |
| Arrigorriaga | 17,31 |
| Azkoitia | 19,64 |
| Azpeitia | 16,41 |
| Beasain | 17,60 |
| Bergara | 23,12 |
| Bermeo | 21,91 |
| Elgoibar | 16,45 |
| Ermua | 17,65 |
| Etxebarri | 11,08 |
| Gernika-Lumo | 12,73 |
| Hernani | 35,44 |
| Hondarribia | 11,99 |
| Lasarte-Oria | 20,75 |
| Laudio | 15,47 |
| Mungia | 18,41 |
| Oiartzun | 22,35 |
| Oñati | 18,29 |
| Pasaia | 26,93 |
| Sopelana | 7,74 |
| Tolosa | 14,63 |
| Trapagaran | 19,97 |
| Zumarraga | 17,48 |

### 2.3. Udalen arteko aldeak gizarte-bazterketaren aurkako programetan

Udal-eremuan, gizarte-bazterketaren aurkako programen sektorea da, ziur asko, gastu-homogeneotasun gutxiena duena. Gizarte-bazterketaren aurkako sektorea eta droga-mendetasunen sektorea batera aztertuz gero, ikusten da Gasteiz nabarmentzen dela gastu-kopuruan, 36,08 euro gastatzen baititu, Bilboko eta Donostiako udalek per capita egiten duten gastuaren bikoitza (15,06 eta 16,69 euro, hurrenez hurren). Per capita gastu handiena egiten duen bigarren udalerria Pasaia da 21,31 eurorekin, eta beste sei udalerrik gastatzen dute EAEko udalek sektore horietan egiten duten batez besteko gastu, 11,49 eurokoa. Gipuzkoako Hondarribia (15,97 euro), Azpeitia (14,63 euro), Errenteria (13,44 euro), Arrasate (12,35 euro) eta Oiartzun (11,77 euro) eta Bizkaiko Etxebarri (14,75 euro) udalerriak dira.

Per capita gastu handia egiten badute ere, alde handiak dituzte udalerri horiek gastuaren barne-banaketan. Izan ere, Gasteiz eta Bilbok modu nahiko proportzionalean banatzen dute gastua programen artean, baina Donostiak % 51,3 gastatzen du alojamendu-zerbitzuetan eta % 22,1 prestazio ekonomikoetan. Bestalde, Arrasate, Etxebarri, Oiartzun eta Pasaiak gastuaren % 60 baino gehiago bideratzen dute prestazio ekonomikoetara, eta Hondarribiak, aldiz, gizarteratze-jarduerak lehenesten ditu (% 69).

Aztertuz gero 40.000 biztanletik gorako zer udalerrik egiten duten gastu txikiena, adierazi behar da Irun, Getxo, Basauri eta Santurtziko udalak nabarmentzen direla, 6 euro baino gutxiago gastatzen baitute sektore horietan biztanleko.

Sarritan, Jaurlaritzak gizarte-larrialdietarako eta diru-sarrerak bermatzeko ematen dituen laguntzak osatzen dituzte udalek, horiek eskuratzeko aukerarik ez duten pertsonek kasuak artatzeko. Per capita gastuari erreparatuta, ikusten da udal hauek gastatzen dituztela 5 euro baino gehiago gizarte-larrialdietarako laguntzetan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonei emandako bestelako laguntzetan: Gasteiz Araban; Etxebarri eta Barakaldo Bizkaian; eta Pasaia, Oiartzun, Arrasate, Zumarraga eta Azpeitia Gipuzkoan. Etxebarri, Pasaia eta Oiartzungo udalek 10 eurotik gorako per capita gastua egiten dute.

Gizarteratze-ekintzen arloan, Gasteiz eta Hondarribia nabarmentzen dira, 15,68 eta 11,01 euroko gastua egiten baitute, hurrenez hurren. Bilbok eta Azpeitiak, berriz, 5 euro baino gehiago jartzen dituzte pertsona bakoitzeko programa horiek finantzatzeko (6,58 eta 5,96 euro, hurrenez hurren).

**Udalek gizarte-bazterketaren aurkako sektorean per capita egiten duten gastua, programa, zerbitzu, prestazio eta udalerrien arabera. 2011**

| | Lantalde Teknikoa | Alojamendua | GLL | Laguntza ekonomikoak | Gizarteratzea eta laneratzea | Gizarteratzea | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *100.000 biztanle baino gehiago* | | | | | | | |
| Barakaldo | 2,08 | 0,00 | 0,09 | 4,98 | 0,00 | 3,02 | 10,18 |
| Bilbo | 2,73 | 4,40 | 0,00 | 1,34 | 0,00 | 6,58 | 15,06 |
| Donostia | 0,57 | 8,56 | 0,00 | 3,69 | 0,00 | 3,88 | 16,69 |
| Gasteiz | 4,64 | 9,94 | 0,00 | 5,83 | 0,00 | 15,68 | 36,08 |
| *40.000 biztanletik 100.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | |
| Basauri | 1,93 | 0,00 | 0,00 | 2,07 | 0,00 | 1,69 | 5,68 |
| Getxo | 0,36 | 0,00 | 2,17 | 1,37 | 0,00 | 1,69 | 5,59 |
| Irun | 1,64 | 0,04 | 0,74 | 0,71 | 0,16 | 2,16 | 5,44 |
| Portugalete | 3,30 | 0,02 | 0,97 | 0,17 | 0,00 | 4,81 | 9,28 |
| Santurtzi | 1,64 | 0,00 | 1,07 | 0,40 | 0,00 | 1,47 | 4,58 |
| *20.000 biztanletik 40.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | |
| Arrasate | 2,07 | 1,04 | 6,74 | 1,10 | 0,91 | 0,48 | 12,35 |
| Durango | 2,11 | 0,53 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 3,97 | 6,61 |
| Eibar | 2,31 | 0,52 | 0,00 | 1,46 | 0,00 | 0,66 | 4,95 |
| Erandio | 2,84 | 0,00 | 2,84 | 0,46 | 0,00 | 2,74 | 8,88 |
| Errenteria | 0,00 | 11,06 | 2,17 | 0,00 | 0,00 | 0,21 | 13,44 |
| Galdakao | 4,29 | 0,00 | 0,40 | 0,00 | 0,00 | 1,38 | 6,07 |
| Leioa | 0,46 | 0,00 | 0,63 | 1,73 | 0,00 | 1,29 | 4,11 |
| Sestao | 0,54 | 0,04 | 0,01 | 0,00 | 0,24 | 0,61 | 1,44 |
| Zarautz | 1,52 | 0,00 | 0,00 | 0,88 | 0,00 | 0,80 | 3,20 |
| *10.000 biztanletik 20.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | |
| Amorebieta-Etxano | 0,00 | 0,01 | 1,00 | 0,38 | 0,00 | 0,47 | 1,86 |
| Amurrio | 2,98 | 0,12 | 0,00 | 0,46 | 0,00 | 1,31 | 4,87 |
| Andoain | 1,19 | 0,01 | 0,00 | 0,92 | 0,00 | 1,78 | 3,91 |
| Arrigorriaga | 1,02 | 0,00 | 0,00 | 2,09 | 0,00 | 1,60 | 4,71 |
| Azkoitia | 1,92 | 0,72 | 0,00 | 1,03 | 0,00 | 2,89 | 6,56 |
| Azpeitia | 1,32 | 0,65 | 3,28 | 2,49 | 0,94 | 5,96 | 14,63 |
| Beasain | 1,07 | 0,14 | 0,00 | 2,27 | 0,00 | 0,98 | 4,46 |
| Bergara | 1,81 | 0,01 | 3,16 | 1,28 | 0,00 | 1,39 | 7,64 |
| Bermeo | 2,14 | 0,00 | 0,00 | 0,32 | 0,00 | 1,21 | 3,67 |
| Elgoibar | 0,00 | 0,10 | 0,51 | 0,14 | 0,00 | 1,31 | 2,05 |
| Ermua | 2,24 | 0,05 | 0,55 | 0,74 | 0,00 | 0,59 | 4,17 |
| Etxebarri | 0,00 | 0,00 | 14,54 | 0,21 | 0,00 | 0,00 | 14,75 |
| Gernika-Lumo | 2,18 | 0,12 | 0,00 | 0,53 | 0,00 | 1,15 | 3,98 |
| Hernani | 1,27 | 0,00 | 0,00 | 0,79 | 0,00 | 0,86 | 2,92 |
| Hondarribia | 4,68 | 0,00 | 0,00 | 0,28 | 0,00 | 11,01 | 15,97 |
| Lasarte-Oria | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,39 | 0,00 | 0,00 | 0,39 |
| Laudio | 1,95 | 0,09 | 1,41 | 1,82 | 0,00 | 1,67 | 6,94 |
| Mungia | 1,25 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 1,51 | 2,76 |
| Oiartzun | 0,00 | 0,00 | 2,78 | 7,83 | 0,00 | 1,16 | 11,77 |
| Oñati | 1,84 | 0,45 | 0,43 | 1,71 | 0,00 | 3,53 | 7,95 |
| Pasaia | 0,38 | 0,00 | 9,18 | 3,72 | 4,87 | 3,15 | 21,31 |
| Sopelana | 0,55 | 0,00 | 0,00 | 0,48 | 0,00 | 0,57 | 1,61 |
| Tolosa | 1,80 | 0,23 | 0,00 | 0,51 | 0,00 | 1,26 | 3,79 |
| Trapagaran | 0,00 | 0,00 | 3,90 | 0,48 | 0,00 | 0,71 | 5,09 |
| Zumarraga | 0,00 | 0,00 | 3,57 | 2,43 | 0,00 | 0,32 | 6,33 |

**Udalek gizarte-bazterketaren aurkako sektorean egiten duten gastuaren banaketa, programa, zerbitzu, prestazio eta udalerrien arabera. 2011**

**(% horizontalak)**

| | Lantalde Teknikoa | Alojamendua | GLL | Laguntza ekonomikoak | Gizarteratzea eta laneratzea | Gizarteratzea | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *100.000 biztanle baino gehiago* | | | | | | | |
| Barakaldo | 20,5 | 0,0 | 0,9 | 48,9 | 0,0 | 29,7 | 100,0 |
| Bilbo | 18,1 | 29,2 | 0,0 | 8,9 | 0,0 | 43,7 | 100,0 |
| Donostia | 3,4 | 51,3 | 0,0 | 22,1 | 0,0 | 23,2 | 100,0 |
| Gasteiz | 12,9 | 27,5 | 0,0 | 16,1 | 0,0 | 43,4 | 100,0 |
| *40.000 biztanletik 100.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | |
| Basauri | 34,0 | 0,0 | 0,0 | 36,4 | 0,0 | 29,7 | 100,0 |
| Getxo | 6,4 | 0,0 | 38,8 | 24,5 | 0,0 | 30,3 | 100,0 |
| Irun | 30,1 | 0,7 | 13,6 | 13,0 | 2,9 | 39,6 | 100,0 |
| Portugalete | 35,5 | 0,2 | 10,5 | 1,8 | 0,0 | 51,9 | 100,0 |
| Santurtzi | 35,9 | 0,0 | 23,3 | 8,8 | 0,0 | 32,0 | 100,0 |
| *20.000 biztanletik 40.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | |
| Arrasate | 16,8 | 8,4 | 54,6 | 8,9 | 7,4 | 3,9 | 100,0 |
| Durango | 31,9 | 8,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 60,1 | 100,0 |
| Eibar | 46,7 | 10,6 | 0,0 | 29,5 | 0,0 | 13,3 | 100,0 |
| Erandio | 32,0 | 0,0 | 32,0 | 5,2 | 0,0 | 30,8 | 100,0 |
| Errenteria | 0,0 | 82,3 | 16,1 | 0,0 | 0,0 | 1,6 | 100,0 |
| Galdakao | 70,7 | 0,0 | 6,6 | 0,0 | 0,0 | 22,7 | 100,0 |
| Leioa | 11,1 | 0,0 | 15,4 | 42,1 | 0,0 | 31,4 | 100,0 |
| Sestao | 37,3 | 2,9 | 0,9 | 0,0 | 16,8 | 42,1 | 100,0 |
| Zarautz | 47,5 | 0,0 | 0,0 | 27,5 | 0,0 | 25,0 | 100,0 |
| *10.000 biztanletik 20.000 biztanlera bitartean* | | | | | | | |
| Amorebieta-Etxano | 0,0 | 0,4 | 53,7 | 20,6 | 0,0 | 25,4 | 100,0 |
| Amurrio | 61,3 | 2,4 | 0,0 | 9,4 | 0,0 | 26,9 | 100,0 |
| Andoain | 30,5 | 0,4 | 0,0 | 23,6 | 0,0 | 45,5 | 100,0 |
| Arrigorriaga | 21,6 | 0,0 | 0,0 | 44,4 | 0,0 | 33,9 | 100,0 |
| Azkoitia | 29,3 | 10,9 | 0,0 | 15,7 | 0,0 | 44,1 | 100,0 |
| Azpeitia | 9,0 | 4,5 | 22,4 | 17,0 | 6,4 | 40,7 | 100,0 |
| Beasain | 23,9 | 3,2 | 0,0 | 50,9 | 0,0 | 22,0 | 100,0 |
| Bergara | 23,7 | 0,1 | 41,3 | 16,7 | 0,0 | 18,1 | 100,0 |
| Bermeo | 58,3 | 0,0 | 0,0 | 8,7 | 0,0 | 33,0 | 100,0 |
| Elgoibar | 0,0 | 4,6 | 24,6 | 6,8 | 0,0 | 63,9 | 100,0 |
| Ermua | 53,8 | 1,1 | 13,3 | 17,7 | 0,0 | 14,2 | 100,0 |
| Etxebarri | 0,0 | 0,0 | 98,6 | 1,4 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| Gernika-Lumo | 54,8 | 2,9 | 0,0 | 13,4 | 0,0 | 28,8 | 100,0 |
| Hernani | 43,6 | 0,0 | 0,0 | 27,1 | 0,0 | 29,3 | 100,0 |
| Hondarribia | 29,3 | 0,0 | 0,0 | 1,7 | 0,0 | 69,0 | 100,0 |
| Lasarte-Oria | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 100,0 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| Laudio | 28,1 | 1,3 | 20,4 | 26,3 | 0,0 | 24,0 | 100,0 |
| Mungia | 45,3 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 54,7 | 100,0 |
| Oiartzun | 0,0 | 0,0 | 23,6 | 66,5 | 0,0 | 9,9 | 100,0 |
| Oñati | 23,2 | 5,6 | 5,4 | 21,4 | 0,0 | 44,4 | 100,0 |
| Pasaia | 1,8 | 0,0 | 43,1 | 17,5 | 22,9 | 14,8 | 100,0 |
| Sopelana | 34,4 | 0,0 | 0,0 | 30,0 | 0,0 | 35,6 | 100,0 |
| Tolosa | 47,4 | 6,1 | 0,0 | 13,4 | 0,0 | 33,1 | 100,0 |
| Trapagaran | 0,0 | 0,0 | 76,7 | 9,4 | 0,0 | 13,9 | 100,0 |
| Zumarraga | 0,0 | 0,0 | 56,5 | 38,4 | 0,0 | 5,1 | 100,0 |

# V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA

Gastu arruntari begiratuta, gizarte-zerbitzuetan 52,2 milioi euro gehiago gastatu ziren 2010 eta 2011 bitartean, hau da, 2010. urtean baino % 3,3 gehiago gastatu zen 2011. urtean. Mantsotu egin da, beraz, gastu-igoeraren erritmoa, 2009 eta 2010 urteen bitartean 77,6 milioi euroko gastu-igoera izan baitzen, 2009. urteko gastua baino % 5,2 gehiago.

Prezio konstanteak aztertuta, datuek adierazten dute gastu-milak egonkortzeko joera nagusitzen ari dela. Izan ere, urtetik urterako batez besteko igoera frente % 12,7koa izan zen 2006 eta 2009 urteen artean, eta gastu-igoeraren erritmoa, prezio konstanteetan, % 2,8ra jaitsi da 2009 eta 2010 urteen bitartean eta % 0,2ra 2010 eta 2011 urteen bitartean. Azken hamar urteetan izan den igoera-tasarik apalena izan da hori, baina, horrez gain, nabarmendu behar da lehen aldiz geldiarazi dela, 2000. urteaz geroztik, EAEko gizarte-zerbitzuetan egiten den gastua handitzeko joera.

Azken hamar urte hauetako bilakaeraren puntu adierazgarrienak aztertuta, gertakari hauek nabarmendu behar dira gizarte-zerbitzuetan egindako bilakaeraren harian, prezio konstanteei erreparatuta:

- XX. mende amaierako urtean, igoera ez zen % 5era iritsi, eta 2000-2002 urteen bitartean, % 11,5-12,4 bitarteko gastu-igoerak izan ziren. Seme-alabak dituzten familiak laguntzeko plana indarrean jarri zelako eman ziren igoera horiek. Horrez gainera, Euskadiko Gizarte Eskubideen Gutuna onartu zen 2000. urtean, eta, horren ondorioz, doitu egin ziren garai hartako Oinarrizko Errentaren zenbatekoak.

- Gastuak goranzko joerari eutsi zion 2003. urtetik aurrera, baina ez 2000 eta 2002 urteen bitarteko erritmoan. Hala, 2002 eta 2007 urteen bitartean, txandakatu egin ziren % 10aren inguruko igoera izan zituzten urteak eta igoera apalagokoak, hala nola 2004-2005 bitartekoa (+% 4) eta 2006-2007 bitartekoa (+% 7,9). Oro har, 2000-2002 urteen bitarteko igoera % 12koa izan zen, eta 2002 eta 2007 urteen bitartekoa, berriz, % 8,5koa.

- 2007-2008 urteen bitartean, hamarkadako igoera handiena eman zen, % 12,5ekoa. Igoera horren arrazoiak izan ziren indarrean jarri zirela mendeko pertsonentzako laguntza ekonomiko berriak, eta, neurri apalago batean, handitu egin zirela Oinarrizko Errentaren zenbatekoak.

  Hurrengo urte-tartean, 2008 eta 2009 urteen bitartean, gastuaren goranzko joera handitu egin zen, harik eta 2000-2011 epean goia jo zen arte, % 18ko igoerarekin prezio konstanteetan. Igoera horren eragile nagusia gizarte-bazterketaren aurkako sektorea izan zen, sektore horretan egin baitzen gizarte-zerbitzuetan egindako gastu-igoeraren % 47,8. Horrenbestez, diru-sarrak bermatzeko ereduaren aldaketak eta krisiaren ondorioek eragin nabarmena izan zuten igoera

horretan, asko handitu baitzen pobrezia prebenitu eta haren aurka egiteko prestazio ekonomikoetan egindako gastua.

Prezio konstanteetan, gizarte-zerbitzuetan egindako gastu publikoa % 32,7 handitu zen 2007 eta 2009 urteen bitartean, lehen adierazitako epearen joera orokorraren erakusle.

- Gizarte-zerbitzuetan egindako gastuaren zenbatekoak egonkortzeko prozesuari ekin zitzaion 2009. urtean, harik eta 2010 eta 2011 urteen bitartean % 0,2ko igoera apala eman den arte.

Krisi-egoera aintzat hartuta, 2009-2011 epeko egonkortze-prozesuak agerian uzten du, modu nabarmenean, gizarte-zerbitzuen sistema publikoa sendotu nahi izan dutela EAEko administrazio publikoek. Ahalegin horren erakusgarri da Barne Produktu Gordinaren % 2,4koa izaten jarraitzen duela Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek gizarte-zerbitzuak finantzatzeko egiten duten gastua.

**Gizarte-zerbitzuetan egindako gastuaren bilakaera (mila €)**

| | Gastu korrontea* | Gastu konstantea* | Urtetik urterako hazkunde-tasak | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Gastu korrontea | Gastu konstantea |
| 2000 | 450.843 | 625.316 | 15,4 | 11,5 |
| 2001 | 522.190 | 697.289 | 15,8 | 11,5 |
| 2002 | 615.653 | 784.098 | 17,9 | 12,4 |
| 2003 | 695.548 | 861.530 | 13,0 | 9,9 |
| 2004 | 791.375 | 951.483 | 13,8 | 10,4 |
| 2005 | 851.681 | 989.628 | 7,6 | 4,0 |
| 2006 | 972.329 | 1.094.381 | 14,2 | 10,6 |
| 2007 | 1.079.415 | 1.181.264 | 11,0 | 7,9 |
| 2008 | 1.264.018 | 1.328.748 | 17,1 | 12,5 |
| 2009 | 1.485.435 | 1.567.380 | 17,5 | 18,0 |
| 2010 | 1.563.028 | 1.611.413 | 5,2 | 2,8 |
| 2011 | 1.615.241 | 1.615.241 | 3,3 | 0,2 |

**Gizarte-zerbitzuetan egindako gastuaren bilakaera (mila €)**



Sistemaren finantzazio-iturriak euro konstanteetan aztertuz gero, ikusten da, zenbateko erlatiboak aintzat hartuta, autonomia-erkidegoko eta erkidegoaz gaindiko erakundeen finantza-ekarpen garbiaren gehiago igo dela 2007 eta 2011 urteen bitartean, gainerako erakundeek egindako ekarpena baino.

SAAD sistemak eta Europako Gizarte Fondoak egindako ekarpena aztertzen du “Beste finantzazio-iturri batzuk” epigrafeak, eta bertan ikusten da igoera erlatibo handiena aztertutako epean. Erakunde horien finantzazio-ildoak irregularrak izan dira, urtetik urterako aldaketa positiboak eta negatiboak izan baitituzte. Hala eta guztiz ere, agerikoa izan da erkidegoaz gaindiko erakundeek EAEko gizarte-zerbitzuen gastua finantzatzeko egin duten ekarpenak gora egin duela IMSERSO erakundeak Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistema indarrean jarri zuenetik. Erakunde horien ekarpenak % 76,7 egin du gora 2007 eta 2011 urteen bitartean, mendekotasun-egoeretarako laguntzak indarrean jarri ondoren. Hala ere, 2010 eta 2011 urteen bitartean, erkidegoaz gaindiko erakundeen ekarpenak % 35,9 egin du behera, Eusko Jaurlaritzari enpleguaren eta laneratzearen alorretan transferitu zaizkion eskuduntzen ondorioz.

Egia da Eusko Jaurlaritzak 2007 eta 2011 urteen bitartean EAEko gizarte-zerbitzu eta -prestazioen sistemara egin zuen ekarpenaren igoera zertxobait apalagoa izan zela SAAD/EGF erakundeek egindakoa baino (% 66,2 eta % 76,7, hurrenez hurren), baina haren ekarpena funts handiagokoa da. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren ekarpenak goranzko joera nahiko handia, % 5,8koa, adierazi du 2010 eta 2011 urteen bitartean; eta, bestetik, erakunde horri dagokio 2007-2011 epean izandako guztizko gastu-igoeraren % 52,6, eta soilik % 7,6ko igoera dagokie erkidegoaz gaindiko erakundeei. Gizarte-zerbitzuen sistemako gainerako finantza-iturriekin gertatu ez den bezala, Eusko Jaurlaritzaren ekarpenak goranzko joera etengabea du 2002. urteaz geroztik.

Foru-aldundiak dira sistemaren finantzazio-erakunde nagusiak, eta, haien ekarpenaren nolakoa aztertuta, ikusten da % 28,3 igo dela haiek egindako gastua 2007 eta 2011 urteen bitartean. Igoera hori nabarmen apalagoa da Eusko Jaurlaritzak eta erkidegoaz gaindiko erakundeek epe horretan izan dutena baino. Horrek agerian uzten du foru-aldundiek epe luzerako estrategia bat daramatela gastua kontrolatzeko; dena den, 90eko hamarkadaren lehen erditik ikus daiteke gizarte-zerbitzuen sistemara Eusko Jaurlaritzak baino ekarpen-igoera apalagoak egiteko joera izan dutela foru-aldundiek.

Foru erakundeek 2009-2010 epean egin zuten gastu-beherakada nabarmenena, % 2,6 jaitsi baitzen haien ekarpena, prezio konstanteetan. Hala ere, 2010 eta 2011 urteen bitartean, % 3,2ko igoera izan du erakunde horien ekarpenak, eta igoera horrek, prezio konstanteetan, konpentsatu egiten du aurreko ekitaldian izandako jaitsiera. Azken igoera horrek eta 2007 eta 2009 urteen bitartean egin ziren %

10etik gorako igoerek azaltzen dute zergatik igo den % 28,3 foru-erakunde horiek 2007-2011 epean eta gizarte-zerbitzuen arloan egin duten gastu arrunta.

Udalen gastu-dinamikan eragin du gehien krisiak. Izan ere, 2001. urtera arte ikusi ziren urtetik urterako hazkunde-tasak handienak, baina urte horretatik aurrera, aldiz, geldialdi nabaria izan dute, eta ezin izan dute % 7ko igoera-tasa gainditu. Azken bi urteetan, gainera, haien ekarpenak bilakaera negatiboa izan du, % 9,2ko beherakadarekin (2007-2009 aldiko igoerak konpentsatu ditu beherakada horrek). Udalek 2011. urtean egin duten gastua 2007koa baino % 1,9 handiagoa izan da; beraz, sistema finantzatzen duten gainerako erakundeena baino nabarmen apalagoa izan da igoera hori.

**Gizarte-zerbitzuetan egindako gastuaren bilakaera finantzazio-iturrien arabera (mila € konstanteetan)**

| | | Udalak | Aldundiak | Eusko Jaurlaritza | Beste batzuk | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gastu konstantea | 2007 | 195.675 | 597.634 | 345.180 | 42.775 | 1.181.264 |
| | 2008 | 209.333 | 665.193 | 373.932 | 80.290 | 1.328.748 |
| | 2009 | 219.489 | 762.633 | 483.272 | 101.986 | 1.567.380 |
| | 2010 | 208.890 | 742.548 | 542.059 | 117.916 | 1.611.413 |
| | 2011 | 199.404 | 766.644 | 573.602 | 75.591 | 1.615.241 |
| Bilakaera 2007tik | 2008 | 7,0 | 11,3 | 8,3 | 87,7 | 12,5 |
| | 2009 | 12,2 | 27,6 | 40,0 | 138,4 | 32,7 |
| | 2010 | 6,8 | 24,2 | 57,0 | 175,7 | 36,4 |
| | 2011 | 1,9 | 28,3 | 66,2 | 76,7 | 36,7 |
| Urtetik urterako bilakaera | 2007/2008 | 7,0 | 11,3 | 8,3 | 87,7 | 12,5 |
| | 2008/2009 | 4,9 | 14,6 | 29,2 | 27,0 | 18,0 |
| | 2009/2010 | -4,8 | -2,6 | 12,2 | 15,6 | 2,8 |
| | 2010/2011 | -4,5 | 3,2 | 5,8 | -35,9 | 0,2 |

**Gizarte-zerbitzuetan egindako gastuaren bilakaera finantzazio-iturrien arabera (mila € konstanteetan)**



Bilakaera horrek azaltzen du, era berean, zer-nolako partaidetza izan duten erakundeek gizarte-zerbitzuen sektorearen finantziazioan. Hori horrela, sistemaren % 29,2 finantzatzen zuen Eusko Jaurlaritzak 2007. urtean eta 2011. urtean, berriz, % 35,5. Era berean, jaitsi egin da foru-aldundien ehuneko-partaidetza, eta, bereziki, udalena. Foru-aldundiak dira, oraindik ere, finantza-ekarpen handiena egiten duten erakundea, baina haien pisua behera egin du 2007 eta 2011 urteen bitartean, % 50,6tik % 47,5era. Udalek, beren aldetik, gizarte-zerbitzuen gastuaren % 16,6 finantzatzen zuten 2007. urtean, eta % 12,3 finantzatu dute 2011. urtean. Bestalde, erkidegoaz gaindiko erakundeen karpenak gora egin du % 3,6koa izan baitzen 2007an eta % 4,7koa 2011n. Hala ere, 2011. urtean, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak Eusko Jaurlaritzari transferitu dizkion eskuduntzen ondorioz, erakunde haren ekarpenak 2,5 ehuneko-puntu egin du behera, 2010. urtean erdietsi zuen % 7,3ko igoera-gailurrarekiko.

**Gizarte-zerbitzuen finantzazio-egituraren bilakaera (% horizontalak)**

| | Udalak | Aldundiak | Eusko Jaurlaritza | EGF-SAAD | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| 2007 | 16,6 | 50,6 | 29,2 | 3,6 | 100,0 |
| 2008 | 15,8 | 50,1 | 28,1 | 6,0 | 100,0 |
| 2009 | 14,0 | 48,7 | 30,8 | 6,5 | 100,0 |
| 2010 | 13,0 | 46,1 | 33,6 | 7,3 | 100,0 |
| 2011 | 12,3 | 47,5 | 35,5 | 4,7 | 100,0 |

Gastuaren sektore-xedea prezio konstanteen ikuspegik aztertuta, ikusten da emakumeen sektoreak izan duela igoerarik handiena, % 12,1ekoa, 2010. eta 2011. urteen bitartean; dena den, kontuan izan behar da ez dela gastu handia egiten sektore horretan eta ekarpenek gorabehera handiak izan dituztela sektore horretan urtetik urtera. Droga-mendetasunen sektoreak izan du ekarpen-jaitsierarik handiena, -% 31,6 jaitsi baita. Osasun-arloko eskumenen transferentzia izan da jaitsiera horren arrazoi nagusia.

Sektore handiek, adineko pertsonen sektoreak eta familien, haurren eta gazteen sektoreak, eutsi egin diote aurreko urteko gastu-mailari % 0,7ko eta % 0,9ko igoerekin, hurrenez hurren. Ezintasunak dituzten pertsonen sektoreak, berriz, konpentsatu egin du 2009-2010 epeko jaitsiera, 2010 eta 2011 epean izan duen % 2,6ko igoerarekin. Ikuspegi kualitatiboa hartuta, aldaketa handienak gizarte-bazterketaren aurkako sektorean eta biztanleria guztiaren sektorean gertatutako jaitsierak izan dira. Egia da gizarte-bazterketaren aurkako sektoreak % 0,3ko jaitsiera izan duela 2010-2011 epean, baina kontuan izan behar da sektore horretan igo zela gehien gizarte-zerbitzuetako gastu publikoa 2010. urtera arte. Biztanleria guztiaren sektorean, berriz, % 7,2ko jaitsierak handitu egin du 2009 eta 2010 urteen bitartean izandako % 4,7ko jaitsiera. Hori gertatu da udalek murriztu egin dutelako azken bi urteetan gizarte-sistemara egiten zuten ekarpena.

Gastu konstanteak 2007-2011 epean izan duten bilakaera aztertuta, ikusten da gizarte-bazterketaren aurkako sektoreak, eta, neurri apalago batean, adineko pertsonen sektoreak izan dituztela gastu-igoerarik handienak (% 60,8ko eta % 38,9ko igoerak izan dituzte, batez besteko igoera % 36,7koa izan da). Gizarte-bazterketaren sektorean egin da epe horretan izan den gastu-igoeraren % 45,2, eta igoeraren % 35,3 egin da adineko pertsonen sektorean.

Gizarte-bazterketaren aurkako sektoreak izan duen bilakaera aztertuta, ikusten da gerturatzen joan dela adineko pertsonen sektoreak gizarte-zerbitzu guztiekiko duen % 33,8ko gastu-mailara; izan ere, gizarte-zerbitzuen gastuaren % 27,3 biltzen zuen 2007. urtean eta gastuen % 32,1 bildu du 2011n. Hala ere, nabarmentzeko moduko datua da gizarte-bazterketaren aurkako sektorean egindako gastuak % 0,3ko beherakada izan duela 2010 eta 2011 urteen bitartean. Beherakada horrekin, eten egin da sektore horren gastuak izan duen goranzko joera, % 10etik gorakoa 2007- 2009 epean, eta goranzkoa, oraindik ere, 2009 eta 2010 urteen bitartean. Sektore horrek gastu-igoera handiak izan dituen bitartean, gainerako sektoreek jaitsierak eta % 1etik beherako igoerak izan dituzte.

Adineko pertsonen sektorearen bilakaera apaltzekoa izan da 2007. urtera bitartean, bai gastu-igoeraren alorrean, bai gastu-bolumenaren alorrean; hala ere, gora egin du urte horretatik aurrera. Azken bilakaera horren arrazoi nagusia mendekotasun-egoeretarako laguntzen ezarpena izan da, sektore horretara bideratzen baitira alor horretako laguntza ugari; hala, horren ondorioz, % 15eko eta handiagoko gastu-igoerak izan ditu sektoreak 2007 eta 2009 urteen bitartean. Urtetik urtera % 0,7-0,8 inguruko igoerak izan dituen arren, nabarmentzekoa da, era berean, adineko pertsonen sektorean egindako gastuak gorazko joera izan duela 2009 eta 2011 urteen bitartean, datu horrek ageriko kontrastea egiten baitu gizarte-bazterketaren sektoreak 2010 eta 2011 urteen bitartean izan duen % 0,3ko beherakadarekin. Kontraste horrek berreskuratze-bidean jartzen du sektore horrek gastu-egituran zuen protagonismoa; izan ere, 2011. urtean, sektore horretan egin da gizarte-zerbitzuen gastu osoaren % 33,8, gastu osoaren % 33,6 gastatu zen 2010. urtean, eta % 33,3 gastatu zen 2007. urtean.

Ezintasunak dituzten pertsonen sektorean, gastu konstanteak 2007-2011 epean izan duen igoera, % 25,8koa, apalagoa izan da adineko pertsonen sektoreak eta gizarte-bazterketaren aurkakoak izan dutena baino. Horren arrazoia da igoera apalagoak izan dituela 2007 eta 2009 urteen bitartean, nahiz eta igoera horiek % 10,7 eta % 11,7 bitartekoak izan diren urte horietan. Gainera, gastuak % 0,9ko beherakada izan zuen 2009 eta 2010 bitartean, baina konpentsatu egin zuen beherakada hori 2010 eta 2011 urteen bitartean (+% 2,6). Bilakaera horren ondorioz, sektoreak gero eta pisu erlatibo arinagoa du gizarte-zerbitzuetan egiten den gastu osoarekiko, % 18,5ekoa baitzen 2007an eta % 17koa izan baita 2011n.

Familien, haurren eta gazteen sektorean, gastu-igoera % 14,1ekoa izan da 2007 eta 2011 urteen bitartean. Hala ere, 2005 eta 2009 bitarteko urteetan izan zituen gastu-igoerarik handienak sektore horrek, garai horretan garatu eta finkatu baitzen familien laguntzarako erakunde-arteko plana. Gastua, ordea, geldotu egin zen 2009. urtetik aurrera, % 0,1 igoera izan baitzuen 2009 eta 2010 urteen bitartean eta % 0,9ko igoera izan baitu 2010 eta 2011. urteen bitartean. Horrez gainera, beste egonkortze-aldi batzuk izan ditu, hala nola 2007-2008 aldikoa, % 1etik beherako gastu-igoera batekin. Bilakaera horren ondorioz, sektorean gero eta gastu apalagoa egiten da gizarte-zerbitzuetan egiten den gastu osoarekiko, guztizko gastuaren % 14,3 gastatu baitzen sektore horretan 2007. urtean eta % 11,9 gastatu baita 2011. urtean.

Emakumeen sektorean 2010 eta 2011 urteen bitartean ikusi den gastu-igoerak eten egin du aurreko bi urteetako joera, igoera negatiboak izan baitira haietan; hala ere, azken bost urteetan izan den igoerak (% 33,4) ez du iritsi gizarte-zerbitzuetan oro har egin den gastu-igoeraren batez bestekora, % 36,7koa. Gizarte zerbitzuen gastu osoarekiko duen ehunekoa oso txikia da (% 1,2 izan zen 2011n)..

Droga-mendekotasunaren sektoreak izan du beherakadarik handiena azken bi urteetan. Gorabehera handiko sektorea den arrean, azken bost urteetako bilakaeran argi uzten du gizarte-zerbitzuen sistemak gero eta gastu-ehuneko apalagoak bideratzen direla sektore horretara. Alde horretatik, datuek adierazten dute gastu osoaren % 1,2 bideratu zela 2007an sektore horretara eta 2011n, berriz, % 0,7. Bost urte horietan, gastu-beherakada % 26,6koa izan da.

Era berean, gastu-bilakaera negatiboa izan du biztanleria guztiaren sektoreak ere. Sektore horretara egindako diru-ekarpenak % 11,6ko beheraka izan du 2009 eta 2011 urteen bitartean; hori horrela, 2011n egindako gastua doi-doi da 2007an egin zena baino % 7,4 handiagoa. Agerikoa da igoera-ehuneko oro oso urrun dagoela gainerako sektoreen batez besteko igoera-ehunekotik. Gero eta ehuneko apalagoak bideratzen dira biztanleria guztiarentzako zerbitzuen sektorera; izan ere, gastu osoaren % 4,2 bideratu zen sektore horretara 2007. urtean eta % 3,3 bideratu da 2011n.

**Gizarte-zerbitzuetako gastuaren bilakaera, sektore-xedearen ikuspegitik**

**(Mila € konstanteetan)**

| | | Adineko pertsonak | Ezintasunak dituzten pertsonak | Familia, haurrak eta gazteak | Emakumea | Gizarte-bazterketa | Droga-mend. | Biztanleria guztia | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gastu konstantea | 2007 | 392.988 | 218.087 | 169.001 | 14.596 | 322.794 | 14.489 | 49.309 | 1.181.264 |
| | 2008 | 467.669 | 241.509 | 170.480 | 18.056 | 358.893 | 14.756 | 57.384 | 1.328.748 |
| | 2009 | 537.968 | 269.648 | 190.964 | 17.990 | 472.012 | 18.898 | 59.900 | 1.567.380 |
| | 2010 | 542.184 | 267.191 | 191.171 | 17.368 | 520.840 | 15.553 | 57.106 | 1.611.413 |
| | 2011 | 546.055 | 274.251 | 192.833 | 19.468 | 519.023 | 10.642 | 52.969 | 1.615.241 |
| % horizontalak | 2007 | 33,3 | 18,5 | 14,3 | 1,2 | 27,3 | 1,2 | 4,2 | 100,0 |
| | 2008 | 35,2 | 18,2 | 12,8 | 1,4 | 27,0 | 1,1 | 4,3 | 100,0 |
| | 2009 | 34,3 | 17,2 | 12,2 | 1,1 | 30,1 | 1,2 | 3,8 | 100,0 |
| | 2010 | 33,6 | 16,6 | 11,9 | 1,1 | 32,3 | 1,0 | 3,5 | 100,0 |
| | 2011 | 33,8 | 17,0 | 11,9 | 1,2 | 32,1 | 0,7 | 3,3 | 100,0 |
| HAZKUNDEA 07/08 | | 19,0 | 10,7 | 0,9 | 23,7 | 11,2 | 1,8 | 16,4 | 12,5 |
| HAZKUNDEA 08/09 | | 15,0 | 11,7 | 12,0 | -0,4 | 31,5 | 28,1 | 4,4 | 18,0 |
| HAZKUNDEA 09/10 | | 0,8 | -0,9 | 0,1 | -3,5 | 10,3 | -17,7 | -4,7 | 2,8 |
| HAZKUNDEA 10/11 | | 0,7 | 2,6 | 0,9 | 12,1 | -0,3 | -31,6 | -7,2 | 0,2 |
| HAZKUNDEA 07/11 | | 38,9 | 25,8 | 14,1 | 33,4 | 60,8 | -26,6 | 7,4 | 36,7 |

**Gizarte-zerbitzuetako gastuaren bilakaera sektore-xedearen arabera**

**(Mila € konstanteetan)**




Gizarte-gastuetan probintziatik probintziara ikusten diren aldeak aztertuz gero, diferentzia horiek urtetik urtera nahiko egonkor dirautela ikusten da. Dena den, nabarmendu behar da bateratze-prozesu moduko bat hautematen dela, gero eta gastu handiagoa egiten ari baitira per capita gastu-maila apala dituzten probintziak. Alde horretatik, 2007 eta 2011 urteen artean, Bizkaian baino handiagoa izan da Gipuzkoan gastu-igoera prezio konstanteetan (% 41,6 Gipuzkoan eta % 36,4 Bizkaian), eta bi probintzia

horiek gainditu egin dute per capita gastu handiena egiten duen probintziaren, Arabaren, gastu-igoera (% 30,3). Gastu osoarekiko duen partaidetzari begiratuta, 2007ko gastu-mailari eusten dio Bizkaiak 2011. urtean (% 53,3 eta % 53,5), eta jaitsi egin da ehuneko-partaidetza Araban (% 18,1 izan zen 2007an eta % 17,3 izan da 2011n). Gastu-ehunekoak gora egin du Gipuzkoan urtetik urtera, % 28,4koa baitzen 2007an eta % 29,4koa izan baita 2011n.

Probintzietan izandako gastu-bilakaera garbiago ikusten da per capita datuak aztertuta. Per capita gastuaren datuek 2007-2011 epean adierazten dute Araban izan dela bilakaera apalena, per capita gastuak % 26,3 egin baitu gora probintzia horretan, Bizkaian eta Gipuzkoan baino nabarmen apalagoa (% 35,3 eta % 39,8 hurrenez hurren). Joera hori finkatu egin da 2010 eta 2011 urteen bitartean, Araban gertatu baita, EAEko probintzien artean, per capita gastuaren igoerarik apalena: % 1,9 lurralde horretan, % 2,8 Bizkaian eta % 4,2 Gipuzkoan. Hala ere, Araban egiten da per capita gastu handiena gizarte-zerbitzuen arloan, Bizkaian baino % 17,2 handiagoa eta Gipuzkoan baino % 30,5 handiagoa.

**Gastu-bilakaera EAEko probintzietan**

**(Mila €-tan eta per capita gastua prezio konstanteetan)**

| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastu konstantea | 2007 | 214.075 | 631.582 | 335.607 | 1.181.264 |
| | 2008 | 253.158 | 693.862 | 381.728 | 1.328.748 |
| | 2009 | 278.386 | 837.094 | 451.899 | 1.567.380 |
| | 2010 | 280.464 | 862.464 | 468.485 | 1.611.413 |
| | 2011 | 278.862 | 861.327 | 475.052 | 1.615.241 |
| % horizontalak | 2007 | 18,1 | 53,5 | 28,4 | 100,0 |
| | 2008 | 19,1 | 52,2 | 28,7 | 100,0 |
| | 2009 | 17,8 | 53,4 | 28,8 | 100,0 |
| | 2010 | 17,4 | 53,5 | 29,1 | 100,0 |
| | 2011 | 17,3 | 53,3 | 29,4 | 100,0 |
| gehikuntza % | 07/08 | 18,3 | 9,9 | 13,7 | 12,5 |
| | 08/09 | 10,0 | 20,6 | 18,4 | 18,0 |
| | 09/10 | 0,7 | 3,0 | 3,7 | 2,8 |
| | 10/11 | -0,6 | -0,1 | 1,4 | 0,2 |
| | 07/11 | 30,3 | 36,4 | 41,6 | 36,7 |
| Per capita gastua | 2007 | 691,38 | 550,92 | 478,72 | 547,61 |
| | 2008 | 806,70 | 601,97 | 540,92 | 611,71 |
| | 2009 | 887,09 | 726,23 | 640,36 | 721,57 |
| | 2010 | 857,23 | 725,10 | 642,50 | 717,53 |
| | 2011 | 873,55 | 745,24 | 669,46 | 739,37 |
| gehikuntza % | 07/08 | 16,7 | 9,3 | 13,0 | 11,7 |
| | 08/09 | 10,0 | 20,6 | 18,4 | 18,0 |
| | 09/10 | -3,4 | -0,2 | 0,3 | -0,6 |
| | 10/11 | 1,9 | 2,8 | 4,2 | 3,0 |
| | 07/11 | 26,3 | 35,3 | 39,8 | 35,0 |

**Gastu-bilakaera EAEko probintzietan**

**(Mila € prezio konstanteetan)**




**Gastu-bilakaera EAEko probintzietan**

**(Per capita € prezio konstanteetan)**

